ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUA

ZERBITZUEN KONTRATUA

Prozedura irekia

Espediente-zk.: 2025007

Xedea: SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak sustatutako INDUSTRIA BERRIAREN SPRI HIZTEGIA eguneratu eta mantentzeko lanak

Edukia:

- **Kontratuaren klausula espezifikoak.**
- **Baldintza orokorrak.**
- **Eranskinak.**

AURKIBIDEA

KONTRATUAREN KLAUSULA ESPEZIFIKOAK 5

I.- PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK 5
1. KONTRATUAREN XEDEA. 5
2. KONTRATU IZAERA DUTEN DOKUMENTUAK 5
3. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA 5
4. KONTRATUAREN BALIO AURREIKUSIA 5
5. PREZIOA ETA ORDAINKETAK 6
6. KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUAREN IRAUPENA EDO GAUZATZEKO EPEA. LUZAPENA 6
7. PUBLIZITATE GASTUAK 6
8. BERMEAK 6
9. ASEGURUAK 6
10. SUBROGAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA 7
11. KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK 7
12. KONTRATUAREN FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK ETA INGURUMEN, GIZARTE EDO
LAN ARLOKO BESTE BETEBEHAR BATZUK 7
13. ZIGORRAK 8
14. AZPIKONTRATAZIOA 8
15. GAUZATZEAREN EGIAZTAPENA, HARTZEA ETA BERME EPEA 8
16. KONTRATUAREN ALDAKETA 8
17. INDARGABETZEKO ARRAZOI ESPEZIFIKOAK 9
18. KONTRATUAREN XEDE DEN PRESTAZIOARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK 9

II.- ESLEIPEN PROZEDURAREN EZAUGARRIAK. 10
19. ORGANOAK ETA ERREGISTROAK. 10
20. ESLEIPENAREN TRAMITAZIOA ETA PROZEDURA. 10
21. KAUDIMENA, SAILKAPENA, GAIKUNTZA ETA BALIABIDEAK ATXIKITZEA. 11
22. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK. 11
23. BERDINKETA EBAZTEKO IRIZPIDEAK. 12
24. GUTUN-AZAL BAKOITZEAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA. 12
25. ESKAINTZA ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK 13
26. PROZEDURARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK. 13

III.- BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK. 14
27.KONTRATUA
LAGATZEA……..14

BALDINTZA OROKORRAK. 15

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA GAI OROKORRAK. 15
1. KONTRATUAREN XEDEA. 15
2. KONTRATU IZAERA DUTEN DOKUMENTUAK. 15
3. KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA. 15
4. GAI HAUEI BURUZKO INFORMAZIOA: ZERGAK, INGURUMENA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA, ENPLEGUAREN BABESA, LAN BALDINTZAK, LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA ETA DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONEN GIZARTERATZE ETA LANERATZEA, DESGAITASUNEN BAT
DUEN PERTSONA KOPURU EDO PORTZENTAJE ESPEZIFIKO BAT KONTRATATZEKO BETEBEHARRA ETA
DATUEN BABESA 16
5. LIZITAZIOAREN AURREKONTUA, KREDITUA EGOTEA, AURRETIAZKO TRAMITAZIOA ETA AURREIKUSITAKO BALIOA. 16
6. KONTRATUAREN PREZIOA ETA KONTRATUAREN GEHIENEKO AURREKONTU MUGATZAILEA 16
7. PREZIOAK BERRIKUSTEA. 17

8. KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA EDO KONTRATUAREN IRAUPENA. LUZAPENA. 17
8.1. Traktu bakarreko kontratua. 17
8.2. Segidako traktuko kontratua. 17
8.3. Segidako traktuko kontratuaren luzapena. 17
9. BERMEAK. 17
10. KONTRATATZAILEAREN PROFILA ETA KONTSULTAK. 17

II.- LIZITAZIOA. 18
11. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK. 18
12. ESKAINTZAK AURKEZTEA. 18
12.1. Hizkuntza. 18
12.2. Baliabideak. 18
12.2.1. Bitarteko elektronikoak. 18
12.2.2. Bitarteko ez-elektronikoak edo paperekoak. 19
12.3. Konfidentzialtasuna. 20
12.4. Agiriak egiaztatzea. 20
12.5. Jakinarazpenak eta komunikazioak. 20
12.5.1. Jakinarazteko eta komunikatzeko jarduerak 20
12.5.2. Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztea. 20
12.5.3. Eskaintzak bitarteko ez-elektronikoen bidez edo paperean aurkeztea. 21

13. A GUTUN-AZALA «AURRETIAZKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN EGIAZTAGIRIAK». 21
13.1. Gutun-azal honetan jaso behar diren dokumentuen zerrenda. 21
13.2. Kaudimen-metaketa ABEE-en kasuan. 21
13.3. Europako Kontratazio Agiri Bakarrari (EKAB) buruzko arau espezifikoak. 22

III.-GUTUN-AZALAK IREKITZEA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA. 23
14. ESKAINTZAK BAZTERTZEKO ARRAZOIAK ETA ARGIBIDE ESKAERAK. 23
15. AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEN DUTEN DOKUMENTUAK IREKITZEA
ETA KALIFIKATZEA. 23
16. BALIO JUDIZIOA BEHAR DUTEN IRIZPIDEEN BIDEZ EBALUA DAITEKEEN ESKAINTZAREN ZATIA
IREKITZEA ETA EBALUATZEA. 23
16.1. Irekiera publikoa. 23
16.2. Kasu orokorra: kontratazio-mahaiak ebaluatzea. 23
16.3. Kasu berezia: adituen batzordeak edo erakunde tekniko espezializatuak ebaluatzea. 24
17. FORMULA BITARTEZ AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEKEEN ESKAINTZA ZATIA IREKITZEA ETA
EBALUATZEA. 24
17.1. Irekieraren aurreko jarduketak. 24
17.1.1. Balio-judizioa behar duten irizpideak erabiltzen dira. 24
17.1.2. Ez da balio-judizioa behar duen irizpiderik erabiltzen. 24
17.2. Gutun-azalak ireki eta eskaintzak irakurtzea. 24
18. ESKAINTZAK EBALUATZEA. 24
19. BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK. 25

IV.- KONTRATUA ESLEITZEA ETA FORMALIZATZEA. 26
20. ESLEITZEKO PROPOSAMENA. 26
21. ESLEITU AURRETIK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA. 26
22. KONTRATUA ESLEITZEA ETA ESLEIPENA JAKINARAZTEA. 27
23. KONTRATUA FORMALIZATZEA. 27

V.- KONTRATUA GAUZATZEA. 28
24. KONTRATUAREN ARDURADUNA. 28
25. ZERBITZUAK GAUZATZEA. 28

25.1. Kontratu-izaera duten dokumentuei eta jarraibideei lotzea. 28
25.2. Lan-egitasmoa. 28
25.3. Baimenak. 28
25.4. Aseguruak. 28
25.5. Lankidetza. 29
25.6. Kontratistaren erantzukizuna. 29
25.7. Indemnizazioa obra-proiektuak egiteko kontratuetan. 29
26. GAUZATZEKO ERABILITAKO BITARTEKOAK. 29
26.1. Baliabideak atxikitzeko konpromisoa. 29
26.2. Langileei buruzko arau espezifikoak. 29
26.3. Lan-baldintzei buruzko informazioa. 30
26.4. Kontratua gauzatzeko lekua. 30
26.5. Ukigabetasun-araua. 30
26.6. Langileen subrogazioa. 30
27. LAN ARLOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN ARLOKO BETEKIZUNAK. 31
28. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK. 31
28.1. Hizkuntza-baldintzak. 32
28.2. Sozialak edo enpleguari buruzkoak: 32
28.3. Azpikontratistei eta hornitzaileei egindako ordainketak egiaztatzea 32
29. KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA. 32
29.1. Konfidentzialtasuna. 32
29.2. Datu pertsonalen tratamendua. 33
30. EGINDAKO LANEN JABETZA ETA JABETZA INDUSTRIALAREN ETA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK. 33
30.1. Lanen jabetza. 33
30.2. Jabetza industriala eta intelektuala. 33
31. ARRISKU PENALAK ETA LEHIAREN AURKAKO JARDUERAK PREBENITZEKO SISTEMA
32. ZIGORRAK. 34
32.1. Kausak eta zenbatekoak. 34
32.2. Prozedura. 34
33. PREZIOA ORDAINTZEA. 35
33.1. Emandako edo gauzatutako zerbitzuen ziurtagiria. 35
33.2. Adostasuna. 35
33.3. Ordainketa. 35
34. KONTRATUA ALDATZEA. 36
34.1. Baldintzak. 36
34.2. Prozedura. 36
34.3. Ondorioak. 37
35. AZPIKONTRATAZIOA. 37
35.1. Kontratuaren arduradunari jakinaraztea. 37
35.2. Azpikontratistei edo hornitzaileei ordaintzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzea. 37
36. KONTRATUA LAGATZEA ETA ABEE-KO KIDEAK ALDATZEA. 37
36.1. Kontratua lagatzea. 37
36.2. ABEEko kideak aldatzea. 38

VI.- KONTRATUA AZKENTZEA. 40
37. BETETZEA: ENTREGATZEA, HARTZEA ETA LIKIDATZEA. 40
37.1.- Entregatzea eta ondo bete dela egiaztatzea 41
37.2.- Akatsak zuzentzea 41
37.3.- Hartzea 41
37.4.-Likidazioa 41
38. BERME ALDIA ETA BERMEA ITZULTZEA. 40
38.1. Kontratistaren betebeharrak. 40
38.2. Bermea itzultzea. 40
39. SUNTSIARAZTEA. 40

VII.- GORABEHERAK ETA BERRIKUSPENA 42

40. INTZIDENTZIAK. 42
41. BERRIKUSPEN-ARAUBIDEA 42

ERANSKINAK 43

KONTRATUAREN KLAUSULA ESPEZIFIKOAK

I.- PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK.

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

1.1.- Definizioa: SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak sustatutako INDUSTRIA BERRIAREN SPRI HIZTEGIA eguneratu eta mantentzeko lanak kontratatzea, preskripzio teknikoei dagokien agirian ageri diren terminoetan.

1.2.- Lotetan zatitzea: Ez. Kontratuaren xede den prestazioa prestazio bakartzat hartzen da, zatiezina, esleipendun bakar batek egin beharreko unitate funtzionala baita.

1.3.- CPV kodea:

Xedea	Kode nagusia
Ikerketa Sozialeko zerbitzuak	79315000
Itzulpenak	79530000-8

1.4.- Jarduerak sailkatzeko beste sistema batzuk: ez

1.5.- Traktua: segidakoa.

1.6.- Beste ezaugarri espezifiko batzuk: ez.

2.- KONTRATU-IZAERA DUTEN DOKUMENTUAK.

Baldintza orokorren 2. klausulan adierazitakoak.

3.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA.

3.1.- Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua hauxe 22.000 euro da, gehi 4.620 euro BEZ-agatik, eta honako urteroko kuota hauei egotziko zaio:

- 2025: 5.500 euro
- 2026: 11.000 euro
- 2027: 5.500 euro

Adierazitako aurrekontua merkatuko prezioetarako egokitzat jotzen dira, honako banakapen honen arabera (BEZik gabe):

- Zuzeneko kostuak: % 80.

- Zeharkako kostuak: % 14.

- Etekin industriala: % 6.

Nolanahi ere, adierazitako urtekako banaketa ez da mugatzailea izango eta, beraz, guztizko balio zenbatetsia soilik izango da gastuaren gehieneko muga kontratu osoan.

Ondorio guztietarako, ulertuko da esleipedunak proposatutako eskaintzetan eta prezioetan sartzen direla kontratatutako prestazioak betetzeko egin beharreko gastu guztiak, hala nola aseguruak, itzulpenak, garraioak, eskura jartzea eta zergak (BEZa izan ezik)

3.2.- Aurrekontua aplikatzea: SPRIko aurrekontuen kontabilitate-errubrika 249900/23, Euskadiko Autonomia Erkidegoko 2025erako Aurrekontu Orokorren zirriborroan jasotakoa, eta datozen ekitaldietarako baliokideak ere bai .

3.3.- Izapidetze aurreratua: ez.

3.4.- Gastua kofinantzatuta dago: ez.

4.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA.

4.1.- Kontratuaren balio zenbatetsia hau da:

Lizitazioaren aurrekontua (BEZik gabe)	22.000 €
Aurreikusitako aldaketen zenbatekoa (BEZik gabe)	----
Lizitatzaileei ordaindu beharreko sarien edo primen zenbatekoa (BEZik gabe)	----
Behin-behineko aukeren zenbatekoa (BEZik gabe)	----
Luzapenak (BEZik gabe)	22.000 €
BALIO ZENBATETSIA, GUZTIRA	44.000 €

4.2.- Kalkulatzeko metodoa: Erabilitako kalkulu-metodoak merkatuko ohiko prezioak hartu ditu kontuan prozedura hau hastean, kalkulua egiteko aurreko 12 hilabeteetan esleitutako antzeko kontratuen balioa oinarritzat hartuta, lizitazio honen xedean aurreikusitako kantitate- eta balio-aldaketen arabera doituta.

5.- PREZIOA ETA ORDAINKETAK.

5.1.- Prezioa zehazteko sistema: Prezioa zehazteko sistema honenbestekoa izan da.

5.2.- Prezioa ordaintzeko modalitatea: Ordainketa partzialen bidez, aldizkakotasun honekin: hileroko ordainketak. Esleipedunak guztira 24 faktura bidali beharko ditu, 24 hilerokoei dagozkienak, eskaintzaren azken prezioaren hainbanaketa eginez.

5.3.- Prestaketa-eragiketak: ez.

5.4.- Prezioen berrikuspena: ez.

5.5.- Epeekin edo errendimenduekin lotutako zenbait xede betetzearen arabera prezioa aldatzeari buruzko klausulak: ez.

6.- KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUAREN IRAUPENA EDO GAUZATZEKO EPEA. LUZAPENA.

6.1.- Iraupen osoa edo gauzatzeko epe osoa, edo azken eguna: 2 urte.

6.2.- Hasiera-data: Kontratua formalizatu ondorengo egun balioduna.

6.3.- Epe partzialak: ez.

6.4.- Kontratua luzatzea: bai, SPRIk hala eskatuz gero bi (2) luzapen egin daitezke, eta bakoitzak urte bat (1) iraungo du.

7.- PUBLIZITATE-GASTUAK: Ez dago halakorik

8.- BERMEAK.

8.1.- Behin-behineko bermea: Ez

8.2.- Behin betiko bermea: bai, eskainitako azken prezioaren %5a, BEZik gabe.

8.3.- Berme osagarria: ez.

8.4.- Zilegi da bermeak prezioaren atxikipenaren bidez eratzea: ez.

8.5.- Prestazio osoa ez baizik eta zati bat jasotzen denean, bermearen zati proportzionala itzultzea edo ezereztea eskatu ahal izango du kontratistak: ez

Bermea SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia - Agencia Vasca de Desarrollo Empresarialaren alde eratuko da. IFZ: Q4800789B. Bermea banku-abala edo kauzio-asegurua denean, jatorrizkoak SPRIren bulegoetan entregatuko dira, Kontratazio Mahaiko idazkari Oskar Alberdi jaunaren izenean.

9.- ASEGURUAK.

Kontratistak nahitaezko aseguruak eta ondoko aseguru espezifikoa/k eduki beharko ditu, eta esleipendunak kontratatuta dauzkala egiaztatu beharko du kontratua formalizatu aurretik:

- Poliza mota: Erantzukizun zibileko asegurua.
- Baldintza espezifikoak: erantzukizun zibileko asegurua arrisku profesionalengatik edo produktuan duen erantzukizunagatik, gutxienez kontratuaren balio zenbatetsiaren zenbateko berdinaren kalteak estaliko dituena, hau da, 44.000 euro.

Gainera, dagokionean, kontratuak duen iraupenaren arabera, berritu edo luzatu izanaren konpromisoa aurkeztu beharko du, kontratuaren betearazpen osoan estaldura mantenduko dela bermatzeko, **VI. eranskinean** ageri den ereduaren arabera.

10.- SUBROGAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA: ez da halakorik.

11.-EGIKARITZE-BALDINTZA BEREZIAK.

11.1.- Sozialak edo enpleguari buruzkoak:

11.1.1.- Baldintza orokorren 28.2 klausulan jasotakoak, zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzeko 2016ko apirilaren 7ko 3/2016 Legeko 7. artikulua betez.

11.1.2.- Bestelakoak: ez.

11.2.- Ingurumenari dagozkionak: ez.

11.3.- Etikoak: ez

11.4.- Linguistikoak: baldintza orokorren 28.1 klausulan ezarritakoak.

11.5.- Beste batzuk: ez

Halakorik balego, <u>azpikontratista guztiei</u> eskatuko zaizkie kontratua gauzatzeko baldintza berezi guztiak.

12.-KONTRATUAREN FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK ETA INGURUMEN-, GIZARTE- EDO LAN-ARLOKO BESTE BETEBEHAR BATZUK:

12.1.- Funtsezko kontratu-betebeharrak:

12.1.1.- Kontratuaren klausula espezifikoen 11. klausulan adierazitako egikaritze-baldintza bereziak.

12.1.2.- Kontratua gauzatzeko, **II-2 ERANSKINEAN "Baliabideak atxikitzeko konpromisoa"** ageri den erantzukizunpeko adierazpenean adierazitako baliabideak atxikitzea, bai eta giza baliabideak eta/edo baliabide materialak ere, baldin eta esleipen-prozeduran egiaztatuta badaude kaudimen tekniko edo profesionaleko baldintzak betetzeko.

12.1.3.- Kontratistak berak prestazioaren zati jakin batzuk edo lan zehatzak egiteko duen betebeharra, kontratuaren klausula espezifikoen 14.1 eta 18.3 klausulen arabera.

12.1.4.- Kontratuaren klausula espezifikoen 14.1 klausulan azpikontrataziorako adierazten diren baldintzak, azpikontratistaren gaitasuna baldintza orokorren 35.1 klausularen arabera egiaztatzea, eta SPKLren 215.2 artikuluaren c) letran aipatzen diren larrialdi- edo premia-egoeraren inguruabarrak egiaztatzea.

12.1.5.- Bestelakoak: ez.

Kontratuko funtsezko betebeharren bat ez betetzea **arau-hauste larria** da, SPKLren 71.2 c) artikuluaren arabera.

12.2.- Ingurumen-, gizarte- edo lan-arloko beste betekizun batzuk: ez.

12.2.1.- Ingurumen-arloko betekizunak: ez.

12.2.2.- Gizarte- edo lan-arloko betekizunak:

12.2.2.1- Langileen soldata-baldintzak betetzea, aplikatzekoa den sektoreko hitzarmen kolektiboaren arabera, SPKLren 122.2 artikuluan jasotakoarekin bat.

12.2.2.2- Bestelakoak: ez.

13.- ZIGORRAK.

13.1.- Zigor gehigarriak ezartzen dira baldintza orokorren 32.1 klausulan **aurreikusitakoez gain**: ez.

13.2.- SPKLren 193.3 eta 193.4 artikuluetan ezarritakoez **bestelako zigor-zenbatekoak ezartzen dira**, epeak betetzen berandutzeagatik: ez.

14.- AZPIKONTRATATZEA.

14.1.- Azpikontratatzeko aukera mugatzen da: Bai. Kontratuaren 18.3 klausula espezifikoan xedatutakoaren arabera, ez da azpikontratazioa onartzen, kontratuaren izaera eta kontratuaren xedearen ezaugarriak direla

eta. Horri dagokionez, uste da isilpekotasun-egoera bereziak ageri direla lana egitean, eta solaskide bakarra behar dela.

15.- BETEARAZPENA, HARRERA ETA BERME-EPEA EGIAZTATZEA.

15.1.- Prestazioa behar bezala gauzatu dela egiaztatzeko modua: adjudikaziodunaren txostena hilekoa kontratuaren xede diren lanak amaitu izanarena eta SPRIko kontratuaren arduradunaren egiaztapen-txostena, faktura(k) ordaindu aurretik.

15.2.- Jasotzeko epea: Ez dagokio.

15.3.- Bada harrera partzialik: ez.

15.4.- Berme-epea: hiru (3) hilabete, kontratua amaitzen denetik zenbatzen hasita.

16.- KONTRATUA ALDATZEA.

Kontratua aldatzeko aukera, pleguetan aurreikusita (SPKLren 204. art.): ez.

17.- SUNTSIARAZTEKO KAUSA ESPEZIFIKOAK.

Kontratua suntsiarazteko arrazoi gehigarriak ezartzen dira baldintza orokorren 39. klausulan aurreikusitakoez gain: ez

18.- KONTRATUAREN XEDE DEN PRESTAZIOARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK.

18.1.- Baldintza orokorren 25.2 klausulak ezarritako **laneko programa** aurkezteko betekizuna du kontratistak: ez.

18.2.- Datu pertsonalak tratatzeko neurri berezi gehigarriak ezartzen dira, baldintza orokorren 29.2. klausulako 2) atalean jasotakoez gain: Ez.

18.3- Eskatzen da prestazioaren zatiak edo lan zehatzak kontratistak berak egitea, SPKLren 75.4 artikuluak dioenarekin bat: bai, prestazio osoa enpresa esleipendunak egin behar du, eskaini beharreko zerbitzuen izaera dela eta.

18.4.- Beste batzuk: ez.

II.- ESLEIPEN PROZEDURAREN EZAUGARRIAK.

19- ORGANOAK ETA ERREGISTROAK.

19.1.- Botere adjudikatzailea: SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia (aurrerantzean, SPRI)

19.2.- Organoen identifikazioa.

19.2.1.- Kontratazio-organoa: SPRIko zuzendari nagusia.

19.2.2.- Kontratuaren arduraduna: Jasone Aretxabaleta (Komunikazio arloko teknikaria)

19.2.3.- Kontrataziorako zentrala: Kontratua esleitzen duen organoak beste erakunde batentzat jarduten du:

19.2.4.- Kontratazio-mahaiaren osaera:

Mahaiko presidentea Jasone Aretxabaleta andrea (Komunikazio arloko teknikaria) izango da eta beste 3 batzordekide ere izango ditu: Oskar Alberdi jauna (SPRIko Idazkari Nagusia), Aitor Uriarte jauna (Administrazioa eta Finantza Saileko teknikaria) eta Izaskun Arregi (Eraldaketa Digitaleko teknikaria) andrea. Oskar Alberdi jauna izango da idazkaria.

Beharrezkoak izanez gero, honako ordezkapen hauek aurreikusten dira:

- Jasone Aretxabaletaren ordez, Izaskun Arregi.
- Oskar Alberdiren ordez, Maider Escubi.
- Aitor Uriarteren ordez, Aitor Peñeñori.
- Izaskun Arreguiren ordez Cristina Ugarte.

19.2.5.- Adituen batzordea/erakunde tekniko espezializatua: Ez

19.3.- Kontsulta teknikoei erantzuteko kontaktua:

- Helbide elektronikoa: jaretxabaleta@spri.eus (Jasone Aretxabaleta)
- Telefono zk.: 944037000

19.4.- Kontsulta administratiboei erantzuteko kontaktua:

- helbide elektronikoa: aatela@spri.eus (Ana Atela)
- telefono-zenbakia: 944037000
- lizitazio elektronikoaren gorabeheretarako: CAU: tel.945 01 62 98

19.5.- Erregistroak:

19.5.1.- Eskaintzak aurkezteko erregistroa: Kontratazio Elektronikoko Erregistro Telematikoa (ikus baldintza orokorren 12.2.1 klausula).

19.5.2.- Ziurtagiriak eta fakturak aurkezteko erregistroa: SPRI, Urkixo Zumarkalea 36-4. Bizkaia Plaza eraikina, Bilbo.

20.- IZAPIDETZEA ETA ESLEIPEN-PROZEDURA.

20.1.- Erregulazio harmonizatuko kontratua: ez

20.2.- Izapidetzea: ohikoa.

20.3.- Prozedura: irekia.

20.4.- Lotetan banatzeari buruzko informazioa: ez da halakorik

20.5.- Izapidetzeko bitartekoak: elektronikoak.

20.6.- Enkante elektronikoa: ez

20.7.- Gizarteratzeko enplegu-zentro berezientzat eta laneratzeko enpresentzat edo enplegu babestuko programen barruan daudenentzat gordetako kontratua: ez.

20.8.- Zenbait erakunderentzat gordetako kontratua, gizarte-, kultura- edo osasun-izaerako zerbitzu-kontratua izateagatik, SPKLren 48. xedapen gehigarriaren arabera: ez

21.- KAUDIMENA, SAILKAPENA, GAIKUNTZA ETA BALIABIDEAK ATXIKITZEA.

21.1.- Gutxieneko kaudimen-baldintzak izateko betebeharra: bai, hurrengo 21.2 klausularen arabera.

21.2.- Kaudimena: Operadore ekonomikoek ondoko kaudimena izan behar dute

- **Ekonomikoa eta finantzarioa. Eskakizuna(k):** Lizitatzailearen urteko negozio-bolumena, erabilgarri dauden azken hiru ekitaldietako onenari dagokiona, enpresariaren eraketa- edo hasiera-dataren eta eskaintzak aurkeztekoaren arabera, kontratuaren urteko balio zenbatetsiren zenbateko berdinekoa edo bat eta erdi handiagoa, hau da 16.500 euro.
- **Teknikoa edo profesionala. Eskakizuna(k):** Lehiaketan parte hartu ahal izango dute soilik azken hiru urteetan lehiaketaren xede diren lan berdinak edo antzekoak egin dituztela ziurtatzen duten enpresak eta gauzatze handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren batez besteko urterokoaren %70 edo handiagoa dutenak, hau da, 7.700 euro.

Operadore ekonomiko sortu berrien kasuan (bost –5– urte baino gutxiagoko antzinatasuna), kaudimen tekniko edo profesional hau izan beharko dute:

Azken hiru urteetan edo, dagokionean, eratu zenetik, 5 langileko batez besteko plantilla izatea.

Baldintza orokorretako 11.4 klausulan ezarritakoari kalterik egin gabe, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak bakarrik egiaztatu behar ditu kaudimenari dagozkion eskakizun horiek, kontratuaren klausula espezifikoen 25.1 klausulan adierazitako dokumentuen bidez.

21.3.- Sailkapena: ez.

21.4.- Enpresa- edo lanbide-gaikuntza: ez.

21.5.- Pertsona juridikoek prestazioa gauzatzeko ardura duten langileen izenak eta lanbide-prestakuntza jakinarazi beharko dituzte: ez.

21.6.- Baliabideak nahitaez atxikitzea: bai, **II.2 ERANSKINEKO** «Baliabideak atxikitzeko konpromisoan» jasotako erantzukizunpeko adierazpenaren arabera.

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak bakarrik egiaztatu behar du benetan erabilgarri daudela baliabide horiek, kontratuaren klausula espezifikoen 25.2 klausulan adierazitako dokumentuen bidez.

22.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK.

22.1.- Esleipen-irizpide bakarra dago: Ez

22.2.- Hainbat esleipen-irizpide daude: Bai.

22.2.1.- Balio-judizio baten arabera zenbatetsitako irizpideak:

Balio-judizioko irizpideen multzoan, puntuazioaren % 50eko gutxieneko atalasea ezartzen da hautaketa-prozesuan jarraitzeko, eta 24,75 puntu gainditzen ez dituzten proposamenak baztertu egingo dira.

Ebaluatutako eskaintzaren puntuazio teknikoa atal bakoitzerako lortutako puntuazioen batura izango da, jarraian deskribatutakoaren arabera:

Haztapen-faktoreak

	Gehieneko puntuazioa	Bikaina	Ona	Nahikoa	Oinarrizkoa	Ez da egin edo ez dago halakorik
		100%	75%	50%	25%	0%
LANTALDEA	22					
Prestakuntza eta trebakuntza	9	9	6,75	4,5	2,25	00
Proposatutako lantaldeak antzeko proiektuetan duen esperientzia profesionala.	9	9	6,75	4,5	2,25	
Proposatutako lantaldeko kideen dedikazio egokia eta orekatua	4	4	3	2	1	0
LAN eta ZERBITZUEN PLANTEAMENDUA	22					
Lanaren planteamendua eta plangintzaren egokitasuna	11	11	8,25	5,5	2,75	0
Metodologiaren egokitasuna.	11	11	8,25	5,5	2,75	0
HOBEKUNTZAK: proposamen berriak, berritzaileak	5	5	3,75	2,5	1,25	0

OHARRA: EDOZEIN IRIZPIDETAN EDO AZPI-IRIZPIDETAN PUNTUAZIOA 0 BADA, ESKAINTZA HORI LEHIAKETATIK KANPO GERATUKO DA.

- **Irizpidea: Lantaldea**
- Haztapena: 22 puntu
- Irizpidea baloratzeko metodoaren deskribapena:

IRIZPIDEAK/AZPI-IRIZPIDEAK	Bikaina	Ona	Nahikoa	Oinarrizkoa	Ez da egin edo ez dago halakorik
Lantaldea					
Prestakuntza eta trebakuntza	Proiektua gauzatzeko proposatutako lantaldeak prestakuntza eta trebakuntza egokiak ditu, eta balio handia eskaintzen dio zerbitzuari.	Proiektua gauzatzeko proposatutako lantaldeak prestakuntza eta trebakuntza egokiak ditu, eta kalitatea eskaintzen dio zerbitzuari.	Proiektua gauzatzeko proposatutako lantaldeak prestakuntza eta trebakuntza nahikoa ditu.	Proiektua gauzatzeko proposatutako lantaldeak oinarrizko prestakuntza eta trebakuntza dauzka, baina ez da nahikoa zerbitzuari balioa emateko.	Proiektua gauzatzeko proposatutako lantaldeak ez dauka prestakuntzarik eta trebakuntzarik.
Proposatutako lantaldeak antzeko proiektuetan duen esperientzia profesionala.	Lantaldeak esperientzia profesionala dauka lizitazioaren xede den antzeko proiektuetan, eta balio handia ematen dio zerbitzuari.	Lantaldeak esperientzia profesionala dauka lizitazioaren xede den antzeko proiektuetan, eta kalitatea ematen dio zerbitzuari.	Lantaldeak esperientzia profesional eskasa dauka lizitazioaren xede den antzeko proiektuetan.	Lantaldeak ez dauka esperientzia profesional nahikoa lizitazioaren xede den antzeko proiektuetan.	Lantaldeak ez dauka esperientzia profesionalik lizitazioaren xede den antzeko proiektuetan.

Proposatutako lantaldeko kideen dedikazio egokia eta orekatua	Proposatutako langileen dedikazioak proportzionaltasun oso egokia dauka, eta balio handia ematen dio horiek gauzatzeari.	Proposatutako langileen dedikazioak proportzionaltasun egokia dauka, eta kalitatea ematen dio horiek gauzatzeari.	Proposatutako langileen dedikazioak proportzionaltasuna dauka, eta, beraz, ezin da bermatu horiek beteko direnik.	Proposatutako langileen dedikazioak oinarrizko proportzionaltasuna dauka, eta, beraz, ez da nahikoa horiek betetzeko.	Proposamenak ez du langileen dedikazioaren proportzionaltasunik jasotzen.

- **Irizpidea: Lan eta zerbitzuen planteamendua**
- Haztapena: 22 puntu
- Irizpidea baloratzeko metodoaren deskribapena:

IRIZPIDEAK /AZPI-IRIZPIDEAK	Bikaina	Ona	Nahikoa	Oinarrizkoa	Ez da egin edo ez dago halakorik
Metodologia eta lan-programa					
Lanaren planteamendua -eta plangintzaren egokitasuna	Proposatutako planteamenduak eta plangintzak agiriko eskakizunak jasotzen ditu, eta guztiak modu argi eta zehatzean garatzen ditu, eta zerbitzuari balio handia ematen dio, proposamenak erantzun ezin hobea bermatzeko moduan.	Proposatutako planteamenduak eta plangintzak agiriko eskakizunak jasotzen ditu, eta guztiak modu argi eta zehatzean garatzen ditu, eta zerbitzuari kalitatea ematen dio, proposamenak erantzun ezin hobea bermatzeko moduan.	Proposatutako planteamenduak eta plangintzak agiriko eskakizunak jasotzen ditu; hala ere, gutxi garatuta daude, eta, horregatik, proposamenak zerbitzuaren beharrak beteko dituela dirudien arren, ezin da bermatu behar guztiak beteko direnik.	Proposatutako planteamenduak eta plangintzak modu soilean betetzen ditu baldintza teknikoen agiriko betekizunak, baina zerbitzuren funtsezko alderdiren bat garatu gabe dago.	Proposamenak ez ditu eskatutako betekizunak betetzen.
Metodologiaren egokitasuna	Proposatutako metodologiak agiriko eskakizunak jasotzen ditu, eta guztiak modu argi eta zehatzean garatzen ditu, eta konponbidearri balio handia ematen dio, proposamenak erantzun ezin hobea bermatzeko moduan.	Proposatutako metodologiak agiriko eskakizunak jasotzen ditu, eta guztiak modu argi eta zehatzean garatzen ditu, eta konponbideari kalitatea ematen dio, proposamenak erantzun ezin hobea bermatzeko moduan.	Proposatutako metodologiak agiriko eskakizunak jasotzen ditu; hala ere, gutxi garatuta daude, eta, horregatik, proposamenak zerbitzuaren beharrak beteko dituela dirudien arren, ezin da bermatu behar guztiak beteko direnik.	Proposatutako metodologiak modu soilean betetzen ditu baldintza teknikoen agiriko betekizunak, baina zerbitzuren funtsezko alderdiren bat garatu gabe dago.	Proposamenean ez dago metodologiarik edo proposatutako metodologiak ez ditu eskatutako betekizunak betetzen.

- **Irizpidea: Hobekuntzak: proposamen berriak, berritzaileak**
- **H**aztapena: 5 puntu
- Irizpidea baloratzeko metodoaren deskribapena:

IRIZPIDEAK	Bikaina	Ona	Ertaina	Oinarrizkoa	Ez da aurkeztu edo ez dagokio
Hobekuntzak: proposamen berriak, berritzaileak	Jarduera eta ideia berriak eta berritzaileak jasotzen ditu proposamenak, ekimena aurrera ateratzeko, oso egokitzat jotzen direnak.	Proposamen berriak eta berritzaileak aurkeztu dira ekimena aurrera ateratzeko egokiak izan daitezkeenak.	Ideia berriren bat jasotzen du proposamenak, ekimenari balio erantsi txiki bat eman ahal diona.	Proposatutako ekimenak oso oinarrizkoak dira, balio erantsi handirik ez dute eskaintzen.	Proposamenak ez du ideia berririk aurkezten, ez dago balio erantsirik proposamenean.

22.2.2.- Formulak aplikatzearekin automatikoki balora daitezkeen irizpideak:

- **Irizpidea: Eskaintza ekonomikoa**

  Haztapena. Gehieneko puntuazioa: 51 puntu.

  Guztira, 51 puntu eman daitezke,
  honako formula hau aplikatuko da:

$$P = 51 \frac{\text{x gutxieneko eskaintza}}{\text{baloratu beharreko eskaintza}}$$

22.3.- Eskaintza anormalki baxuak:

Printzipioz, eskaintza neurrigabetzat edo ausarkeriazko eskaintzatzat hartuko dira honako ezaugarriak badituzte:

1.- Lizitatzaile bakarra lehiatu, eta eskaintza lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino txikiagoa bada ehuneko 35 unitate baino gehiagoko aldearekin.

2.- Bi lizitatzaile lehiatu, eta beste eskaintza baino baxuagoa dena ehuneko 30 unitate baino gehiagoko aldearekin.

3.- Hiru lizitatzaile lehiatu, eta aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino baxuagoak diren eskaintzak, baldin eta batezbestekoarekiko ehuneko 20 unitate baino gehiagoko aldea badute. Hala ere, batezbesteko hori kalkulatzeko, ez da aintzat hartuko zenbateko handieneko eskaintza, baldin eta batezbesteko hori baino handiagoa bada ehuneko 20 unitate baino gehiagoko aldearekin. Nolanahi ere, proportziorik gabekotzat hartuko da lizitazioaren oinarrizko aurrekontutik ehuneko 35 unitate baino gehiago jaistea.

4.- Lau lizitatzaile edo gehiago lehiatu, eta aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino baxuagoak diren eskaintzak, baldin eta batezbestekoarekiko ehuneko 20 unitate baino gehiagoko aldea badute. Hala ere, batezbesteko hori baino altuagoak izan, eta batezbestekoarekiko aldea ehuneko 20 unitate baino handiagoa duten eskaintzarik badago, berriro kalkulatuko da batezbestekoa, kasu horretan ez dauden eskaintzak bakarrik aintzat hartuta. Nolanahi ere, gainerako eskaintzak hiru baino gutxiago badira, batezbesteko berria zenbateko txikieneko hiru eskaintzekin kalkulatuko da.

23.- BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK: ez dira ezarri

24.- GUTUN-AZAL BAKOITZEAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

Prozeduran parte hartzeko eskatzen diren dokumentuak jarraian adierazten diren artxibo elektroniko edo gutun-azaletan aurkeztuko dira.

24.1.- A GUTUN-AZALA: AURRETIAZKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN EGIAZTAGIRIAK.

Baldintza orokorren 13.1 klausulan adierazitako dokumentuak aurkeztu behar dira gutun-azal honetan.

EKABen IV. atalari dagokionez, eragile ekonomikoak **α atala** bakarrik bete beharko du: bai.

24.2.- B GUTUN-AZALA: FORMULEN BIDEZ AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEKEEN ESKAINTZA.

Gutun-azal honetan dokumentu hau/hauek aurkeztu behar da/dira:

- Eskaintza ekonomikoaren **III.1 eranskinean** ageri den ereduaren arabera**.**

24.3.- C GUTUN-AZALA: EBALUATZEKO BALIO-JUDIZIOA BEHAR DUEN ESKAINTZA:

Gutun-azal honetan dokumentu hau/hauek aurkeztu behar dira:

Aurkezten diren proposamen teknikoak aurreikusitako esleipen- eta puntuazio-irizpideen arabera egokiro baloratzeko, lizitatzaileek "C" gutun-azalean sartu beharko dute, ahalik eta erarik argi eta zehatzenean, 22.2.1 puntuko esleipen-irizpideetan (Balio-judizio baten arabera baloratzeko irizpideak) baloratzen dena egiaztatzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia: Proposamen teknikoaren dokumentazioak gutxienez, jarraian aipatzen diren atalak izango ditu:

Gutun-azal honetan honako dokumentu hau(ek) aurkeztu behar d(ir)a:

- **Dokumentuaren izena: Lantaldea**
  - Atxikitako irizpidea: Lantaldea

    Dokumentuan jaso beharreko informazioa edo datuak:

    - Prestakuntza eta trebakuntza (CVak).
    - Proposatutako lantaldeak antzeko proiektuetan duen esperientzia profesionala
    - Proposatutako lantaldeko kideen dedikazioa.

- **Dokumentuaren izena: Lan eta zerbitzuen planteamendua**
  - Atxikitako irizpidea: Lan eta zerbitzuen irizpidea.

    Dokumentuan jaso beharreko informazioa edo datuak:

    - **Lanaren planteamendua eta plangintzaren egokitasuna:** honako hauek adierazita: egin beharreko lanen plangintza eta korrelazioa, zerbitzu globalaren planteamendua eta ikuspegia, preskripzio teknikoen agiriko 3. puntuan ("Egin beharreko lanak") jasotako edukiarekin bat etorriz.
    - **Metodologiaren egokitasuna:** planteatutako metodologia deskribatu laneko helburu nagusienak era egoki baten betetzeko.

- **Dokumentuaren izena: Hobekuntzak: proposamen berriak, berritzaileak**
  - Atxikitako irizpidea: Balio erantsia: proposamen berriak, berritzaileak

    Dokumentuan jaso beharreko informazioa edo datuak: Industria Berriaren Hiztegiaren proiektuak 7 urte bete ditu. Bere ibilbide honetan, tarteka hobekuntzak egin zaizkio hiztegiari bai bere diseinuan baita edukietan ere, kanpoko edukiak txertatzea adibidez. Hiztegia hobetzera zuzendutako ideia berriak baloratuko dira puntu honetan.

C GUTUN-AZAL HONETAN EZ DA AIPATU EDO SARTU BEHARKO FORMULAREN BIDEZ EBALUA DAITEZKEEN ALDERDIEI, ADIBIDEZ PREZIOARI EDO ESKAINITAKO PRESTAKUNTZARI, BURUZKO DATURIK EDO DOKUMENTURIK

Gutun-azal bakoitzean sartu beharreko dokumentazioari dagokionez, baldintza orokorren 14. klausulan ezarritakoa gogorarazten da.

24.4.- Aldaerak onartuta daude: ez

25.- ESKAINTZA ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK.

Baldintza orokorren 21.1 klausulan adierazitako gainerako agiriekin batera, honako hauek aurkeztu behar dira, hala dagokionean:

25.1.- Kontratuaren klausula espezifikoen 21.2 klausulan jasotako ekonomia- eta finantza-kaudimenaren eta gaitasun tekniko edo profesionalaren betekizunak egiaztatzeko dokumentazioa: bai, honako hauek:

- **Ekonomia- eta finantza-kaudimena**

  Ekonomia- eta finantza-kaudimena egiaztatzeko, honako dokumentu hauen kopia bat aurkeztu beharko da: (a) Onetsitako eta Merkataritza Erregistroan gordailututako urteko kontuak, enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago, eta, bestela, onetsitako eta dagokion erregistro ofizialean gordailututako kontuak; eta (b) auditoretza-txostena, hala badagokio.

  Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuek, berriz, Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentarioen eta urteko kontuen liburuen bidez egiaztatuko dute urteko negozio-bolumena.

- **Kaudimen teknikoa edo profesionala**:

  Lehiaketaren xede diren eta azken hiru urteetan egin diren antzeko zerbitzu nagusien zerrenda, haien zenbatekoak, datak eta hartzaile publiko edo pribatuak adierazita. Hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira lanak; hartzailea subjektu pribatua denean, berriz, hark emandako ziurtagiri baten bidez, edo, ziurtagiririk ezean, lizitatzailearen adierazpen baten bidez, haren esku dauden eta prestazioa egin dela egiaztatzen duten agiriekin batera.

  Operadorea berria baldin bada (5 urte baino gutxiago baditu): azken hiru urteotako urteko batez besteko plantillari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, edo bestela, eratu zenetik igarotako epekoa. Horrekin batera, kontratazio-organoak eskatutako egiaztagiriak ere aurkeztu beharko ditu, halakorik errekeritzekotan.

25.2.- Kontratuaren klausula espezifikoen 21.6 klausulan aipatzen diren baliabide materialak eta giza baliabideak badituela egiaztatzeko dokumentazioa: kontratua benetan gauzatzeko proposatutako baliabide pertsonalak edo materialak badituela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

26.- PROZEDURARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK:

26.1.-Pleguei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria:

26.1.1.- Eskabidea egiteko azken eguna: eskaintzak aurkezteko azken eguna baino 4 egun lehenago.

26.1.2.- Lortzeko azken eguna: Eskaintzak aurkezteko ezarritako epea amaitu baino 2 egun lehenago.

26.1.3.- Pleguei edo gainerako dokumentuei buruzko argibideen izaera loteslea: ez

26.2.- Konpentsazio-modu espezifiko bat aurreikusten da kontratua ez esleitzea edo ez egitea erabakitzen den kasuetarako eta botere adjudikatzaileak prozeduran atzera egiten duen kasuetarako: Bai, 600 euro.

26.3.- Kontratua esleitzeko gehieneko epea, SPKLren 158.2 artikuluan ezarritakoa ez dena: ez dagokio

26.4.- Formalizazioaren aurretik aurkeztu beharreko beste agiri batzuk: ez.

III.- BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK.

27.- KONTRATUA LAGATZEA. Kontratua lagatzeko, baldintza orokorretako 36.1.1 klausulan ezarritako kasuez gain, beste kasu batzuk ere aurreikusi dira: ez.

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA GAI OROKORRAK.

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren xedea kontratuko berariazko klausuletako 1. klausulan adierazitakoa da eta baldintza teknikoen agirian definituta dago.

Kontratua loteka zatikatuta dagoenean, lote bakoitzaren xedea kontratuko berariazko klausulen 1.2.2. klausulan adierazten da eta preskripzio teknikoen agirian definitzen da.

CPV eta prestazioa kokatzen den zerbitzuen kategoria kontratuaren berariazko klausulen 1.3 eta 1.4 klausuletan adierazita daude.

Segidako traktuko kontratua denean eta xedeko prestazio-ale kopurua ez denean zehatz zehaztu, botere adjudikatzaileak eskatutako prestazio-unitateak gauzatu beharko ditu kontratistak.

2.- KONTRATU IZAERA DUTEN DOKUMENTUAK.

Honako dokumentu hauek kontratu izaera dute:

a)Administrazio klausula partikularren agiria (AKPA).

b) Preskripzio tekniko agiria (PTA).

c)Kontratua formalizatzeko agiria, baita kontratuko berariazko klausulen 18.2an aurreikusitakoaren arabera tratamenduaren enkarguaren akordioari buruzko eranskina ere.

d) Eskaintza.

e)Laneko programa, kontratuko berariazko klausulen 18.1 klausulan hala zehazten denean.

3.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA.

3.1.- Kontratua **administratiboa** da eta jarraian adieraziko diren arau eta dokumentuek arautzen dute.

3.2.- Kontratuko dokumentuetan aurreikusi gabekorako, honako hauek arautuko dute:

a) 9/2017 Legea, azaroaren 8ko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa (SPKL).

b) Administrazio Publikoko Kontraturen Legearen Erregelamendu Orokorra (APKLEO), SPKLn aurreikusitakoaren aurka ez badago.

c) 116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kontratazioaren araubideari buruzkoa, SPKLn aurreikusitakoaren aurkakoa ez bada.

d) 871/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duena.

e) 2004ko abuztuaren 16ko Agindua, Osasun eta Administrazio Publikoko Sailburuarena, Administrazio Publikoen kontratuen legedian aurreikusitako jardueren eta prozedura jakin batzuen tramitazio telematikoari buruzkoa.

f) Estatuan nahiz EAEn kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapen, ezarri baldin badaiteke.

Gainera, zuzenbide administratiboko gainerako arauak ezarriko dira eta, horrelakorik ezean, zuzenbide pribatukoak.

3.3.- Aldeak kontratuaren dokumentuetan ezarritakoaren mende geratzen dira espresuki.
Dokumentu horietan ezarritakoa ez jakiteak ez du salbuesten kontratista hura betetzetik eta eskaintza aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela klausula guztiak, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

4.- zerga arloko informazioa, ingurumena, emakume eta gizonen berdintasuna, enpleguaren babesa, lan-baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa eta desgaitasuna duten pertsonak lan-munduan sartzea eta gizarteratzea, desgaitasuna duen pertsona kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzeko beharra eta datuen babesa.

Honako erakunde hauetan aurki daiteke honako gaiei buruzko betebeharren eta indarrean diren xedapenen informazioa:

4.1.- Emakume eta gizonen berdintasuna: Eraskunde Autonomoa EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea.

4.2.- Fiskalitatea: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetako foru-ogasunak eta Nafarroako Foru Erkidegokoa eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzia.

4.3.- Ingurumenaren babesa: IHOBE sozietate publikoa.

4.4.- Enpleguaren babesa, lan-baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa: Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendaritza eta OSALAN Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.

4.5.- Desgaitasuna duten pertsonak lanean eta gizartean sartzea eta desgaitasuna duen pertsona kopuru edo portzentaje jakin bat kontratatzeko beharra: LANBIDE erakunde autonomoa.

4.6.- Datuen babesa: Datuak Babesteko Euskal Agintaritza.

5.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, KREDITUA IZATEA, IZAPIDETZE AURRERATUA ETA BALIO ZENBATETSIA.

5.1.- Kontratuko lizitazioaren oinarrizko aurrekontua kontratuko berariazko klausulen 3.1 klausulan dago eta klausula horretan finkatutako urterokotasunetan eta sortetan banatzen da, dagokionean.

5.2.- Kontratuko berariazko klausulen 3.2 klausulan adierazitako kontabilitate-errubrikan **kreditu** zehatza dago, kontratuaren ondoriozko betebeharrak artatzeko.

5.3.- Espedientea **izapidetze aurreratukoa** bada, kontratuko berariazko klausulen 3.3 klausularen arabera, kontratuaren adjudikazioa dagokion ekitaldi ekonomikoan kreditu egokia eta nahikoa egotearen mende egongo da.

5.4.- **Balio zenbatetsia** kontratuaren berariazko klausulen 4. klausulan ageri dena da.

6.- KONTRATUAREN PREZIOA ETA KONTRATUAREN GEHIENEKO AURREKONTU MUGATZAILEA.

6.1.- Oroharreko prezioa zehaztutako kontratua: prezioa oro har zehazten den kontratuetan, adjudikaziodunak eskainitakoa izango da kontratuaren prezioa eta ezingo du gainditu kontratuko berariazko klausulen 3.1. klausulan ageri den lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZik gabe).

6.2.- Prezio unitarioen bidez prezioa zehaztutako kontratuak: prezioa zehazteko prestazioko osagaiei, egikaritze- edo prestazio– edo denbora-unitateei dagozkien prezio unitarioak hartzen badira kontuan, ezingo dituzte gainditu kontratuko berariazko klausulen 3.1 klausulako gehieneko aurrekontuak (BEZik gabe).

a) Xedeko unitate kopurua zehatz definitutakoan: adjudikaziodunak eskainitako prezio unitarioa bider unitate kopurua eginda lortzen den emaitza izango da

b) Xedeko unitate kopurua zehatz definitzen ez denean:

1) Unitate bakoitzaren prezioa adjudikaziodunak eskainiko du.

2) Guztizko balio zenbatetsia izango da kontratuaren esparruan egin beharreko gastuaren gehieneko kopurua.

Kasu honetan, aurrekontu horren egiazko gastua botere adjudikatzailearen egiazko beharrek baldintzatzen dute, ez baitu ale kopuru jakin bat eskatzeko beharrik eta erabat gastatzekorik ere ez.

6.3.- Prezioa zehazteko bi sistemak erabiliz gero (oroharrekoa eta prezio unitarioa) prestazioaren zati desberdinetarako, kontratuko berariazko klausulen 5.1 klausulan ezarritakoa hartuko da kontuan eta baldintza orokorren 6.1 eta 6.2 klausuletan xedatua.

6.4.- Kontratuaren zenbatekoa adjudikazioaren ebazpenean zehaztuko da, BEZa beste partida bat balitz bezala jarriko da eta, dagokionean, urte anitzeko banaketa ere bai.

6.5.- Kontratuaren prezioan edo prezioetan sartzen dira ezar daitezkeen zerga, tasa eta kanon guztiak, baita kontratuko baldintzak betetzearen ondoriozko gainerako gastuak ere.

7.- PREZIOAK BERRIKUSTEA.

Prezioak berrikusiko dira soilik kontratuko berariazko klausulen 5.4 klausulan hala adierazita badago, klausula horretan dagoen formula erabilita.

8.- KONTRATUAREN INDARRALDIA: EGIKARITZEKO EPEA EDO KONTRATUAREN IRAUPENA. LUZAPENA.

8.1.- Traktu bakarreko kontratuak

Kontratua betearazteko epea, honako hau da:

a) Guztizko epearen eta/edo partzialen murrizketarik proposatu ezin duten eskaintzetan: kontratuko berariazko klausulen 6.1 klausulan adierazitakoa.

b) Guztizko epearen eta/edo partzialen murrizketa proposa dezaketen eskaintzetan: adjudikaziodunak eskainitakoak.

Epe horiek soilik luzatu ahal izango dira SPKLren 195.2 artikuluan xedatuaren arabera.

8.2.- Segidako traktuko kontratuak

Kontratuaren iraupena eta, dagokionean, epe partzialena kontratuaren berariazko klausulen 6.1 eta 6.3 klausuletan adierazitakoak dira, hurrenez hurren.

8.3.- Segidako traktuko kontratuen luzapena

Kontratuaren berariazko klausulen 6.4 klausulan hala xedatutakoan, kontratazio-organoak kontratuaren luzapena adostu dezake eta nahitaezkoa izango da kontratistarentzat, non eta ez den gertatzen SPKLren 198.6 artikuluan suntsitzeko aipatzen den kausa. Kontratuaren luzapena kontratistarentzat derrigorrezkoa izateko, kontratuaren arduradunak kontratua amaitu baino gutxienez bi (2) hilabete lehenago jakinarazi behar izango dio.

9.- BERMEAK.

9.1.- Behin-behineko bermea eman ahal izango da SPKLren 108.1 artikuluan ezarritako formuletakoren batean eta SPKLren 106.3 artikuluan xedatu bezala utzi beharko da.

Behin-behineko bermea automatikoki iraungiko da eta lizitatzaileei berehala itzuliko zaie kontratua burutzen denean. Aukeratutako lizitatzaileari behin-behineko bermea itzuliko zaio behin betiko bermea eratzen duenean SPKLren 106.4 artikuluan eta baldintza orokorren 23.4 artikuluan xedatuaren arabera.

9.2.- Behin betiko bermea eta osagarria eman ahal izango dira aurreko atalean aurreikusitako formulen bidez eta prezioei eutsita horrelakorik egin daitekeenean kontratuko berariazko klausulen 8.4 klausularen arabera.

9.3.- aldi baterako enpresa-elkartea denean (aurrerantzean ABEE), behin-behineko eta betiko bermeak eratu ahal izango dituzte ABEEko partaide batek edo gehiagok, guztira eskatutako zenbateko osora iristen bada, eta elkarrekin eta solidarioki elkarteko kide guztiak bermatzen badira.

10.- KONTRATZAILEAREN PROFILA ETA KONTSULTAK.

10.1.- Kontratatzailearen profilean sartzeko, esteka hau erabiliko da, http://www.contratacion.euskadi.eus edo kontratatzailearen profila: lizitazioak eta kontratuak - Spri taldea

10.2.- Interesatuek **kontsultak egin ditzakete eta dokumentazio osagarria edo informazio gehigarria eskatu** kontratuko berariazko klausulen 19.3 eta 19.4 klausuletan agertzen diren helbide elektronikoetan. Idatziz egingo dira kontratuko berariazko klausulen 26.1.1. klausulan informazioa eskatzeko adierazitako epemugara arte eta kontratuko berariazko klausulen 26.1.2. klausulan adierazitako epemugara arte (egun hori barne) artatu beharko dira.

II.- LIZITAZIOA.

11.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.

11.1.- Kontratazioaren prozeduran parte har dezakete Espainiako edo atzerriko pertsona natural edo juridikoek, jarduteko erabateko gaitasuna badute, kontratatzeko galarazpenik ez badute eta kaudimen arloko baldintzak betetzen badituzte edo, dagokionean, sailkapena badute; eta kontratuko berariazko klausulen 21.4 klausulan ezarritzako gaikuntzak badituzte, dagokionean (klausula horretan adierazi bada, gaikuntzak izateko unea "eskaintzak aurkezteko azken data" dela).

Aurreko paragrafoan adierazitako baldintzak biltzen dituzten hainbat pertsonak ere har dezakete parte ABEE batean taldekatuta, legez aurreikusitako baldintzen arabera.

Soilik parte har dezakete SPKLren 66.1 artikuluan xedatutakoa betetzen duten pertsona juridikoek eta Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu zuten estatuetako eragileek edo Batasuneko eragile ekonomikoek eta Batasunekoak ez izan arren SPKLren 67. eta 68.1 artikuluetan xedatua hurrenez hurren betetzen duten eragile ekonomikoek.

11.2.- Pertsona bakoitzak proposamen bat aurkeztu ahal izango du, kontratuko berariazko klausulen 24.4 klausulan aldagaiak onartzen ez badira. Era berean, proposamen bat banaka aurkeztuz gero ezingo du ABEEn ere aurkeztu beste batzuekin batera eta ezingo da ABEE bat baino gehiagotan agertu. Arau horiek urratzen badira, horrek sinatutako proposamen guztiak onartu gabe geratuko dira.

ABEE bateko enpresen artean kolusio susmoak ikusiz gero, kontratazio-mahaiak edo –organoak eskatuko die berariaz eta motibatuta justifika ditzatela elkartuta lehiatzeko arrazoiak, SPKLren 69. artikuluaren arabera. Lehiaren Euskal Agintaritzari (aurrerantzean, LEA) jakinarazi behar zaizkio enpresek egindako justifikazioa kontuan izanda kolusio susmoak dauden kasuak.

11.3.- Kontratuaren berariazko klausulen 20.7 eta 20.8 klausulek kontratua erreserbatuz gero, hurrenez hurren, gizarteratzeko enplegu-zentro bereziei eta laneratzeko enpresei, edo enplegu babestuko programen esparruan badago, SPKLren laugarren xedapen gehigarrian xedatuaren arabera edo erakunde jakin batzuei erreserbatuz gero SPKLren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, gainerako baldintzez gain legaz ezarritako baldintzak ere betetzen dituztenek baino ezingo dute parte hartu (Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizateratzeari buruzko Legeo Orokorraren testu bategina, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartua; abenduaren 13ko 44/2007 Legea, laneratzeko enpresen araubidea arautzekoa eta SPKLren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarria).

11.4.- Hala badagokio, kontratuaren berariazko klausulen 21.4 klausulan eskatzen den gaitasun, kaudimen eta enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionalari buruzko inguruabarrak (salbu eta klausula horretan adierazi bada gaikuntzak "eskaintzak aurkezteko azken egunean" eduki behar direla) eta kontratatzeko debekurik ez izateari buruzko inguruabarrak, eskaintzak aurkezteko azken egunean bete behar dira, eta kontratua egiteko unean horiek betetzen jarraitu beharko da.

Kontratazio-mahaiak prozeduraren edozein unetan eskatu ahal izango die lizitatzaileei ziurtagiri eta dokumentu guztiak edo batzuk aurkezteko, kontratua adjudikatu aurretik, prozeduraren garapenaren mesederako baldin bada. Halaber, aurkeztutako ziurtagiri eta dokumentuei buruzko argibideak emateko edo beste dokumentu batzuk aurkezteko ere eskatu ahal izango die kontratazio-mahiak.

11.5.- Eskaintza aurkeztu izanak esan nahi du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela agiri honen nahiz gainerako kontratu-dokumentuen klausulak, inolako eragozpen edo erreparorik gabe, eta gainera baimena ematen diela kontratazio-mahairi eta kontratazio-organoari, kontratua adjudikatzeko prozeduraren edozein unetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan eta Europar Batasuneko kide den estatu baten datu-base nazional batean jasotako datuak kontsultatzeko, baldin eta, azken kasu horretan, datu-basera sartzea doako bada. Operadore ekonomikoek ez dute nahitaez aurkeztu behar erregistro, zerrenda eta datu-base horietan agertzen diren datuak egiaztatzeko dokumentazioa.

12.- eskaintzak aurkeztea.

12.1.- Hizkuntza.

Dokumentuak euskaraz edo gaztelaniaz idatzita edo ofizialki itzulita aurkeztu behar dira.

12.2.- Bitartekoak.

12.2.1.- Bitarteko elektronikoak

Salbu eta kontratuaren berariazko klausulen 20.5 klausulan azaltzen bada kontratua esleitzeko prozeduran izapideak egiteko bitartekoak elektronikoak ez direla, bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira eskaintzak LIZITAZIO ELEKTRONIKOKO SISTEMA izeneko aplikazioaren bidez. Aplikazio hori KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN atarian dago, EUSKADIKO KONTRATAZIO PUBLIKOKO PLATAFORMA, LIZITAZIO ELEKTRONIKOKO SISTEMA.

12.2.1.1.- Erabiltzeko eskakizunak honako hauek dira:

1. Eskakizun adminsitratiboak:

   a) EAEko administrazioak izapidetze elektronikorako baimendutako ziurtagiri digitala izatea. Gaur egun, honako ziurtagiri elektroniko hauek daude:

   - Izenpe (erakundea, herritarra, erakundearen ordezkaria)
   - FNMT (erakundea, herritarra, erakundearen ordezkaria)
   - Nan-e
   - Camerfirma (erakundea, herritarra, ziurtagiri horiekin oso jende gutxi sartu da aplikazioan)

   b) Honako egoera hauetakoren batean egotea:

   a. Alta emanda egotea eta indarrean den ziurtagiria izatea Euskadiko lizitatzaileen eta enpresa sailkatuen erregistroan.

   b. Aldi baterako gaitzeko sisteman alta emanda egotea.

   c. Bi eragile ekonomiko edo gehiago elkartuta aurkezten badira, adjudikaziodunak izanez gero formalki ABEE eratzeko konpromisoarekin: ABEEren konpromisoa erregistratuta egon behar da aldi baterako gaitze sisteman.

2. Betekizun teknikoak:

Betekizun teknikoei buruzko informazioa honako esteka honetan dago:

3. https://www.contratacion.euskadi.eus/lizitazio-elektronikorako-sarbidea-kontratazioa-plataforman-enpresak/webkpe00-kpelicel/eu/ Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak ebazteko euskarria: **945016298**.

12.2.1.2.- Aurkezteko modua:

a) Kontratuko berariazko klausulen 24. klausulan adierazitako agiriak erantsi behar dira, klausula horren arabera aplikazioan ageri diren dagozkien gutun-azaletan.

b) Honako hedapen hauetan biltegiratutako dokumentuak irakurtzea eta tramitatzea bermatzen da: . doc, .xls, .ppt, .docx, .xlsx, .pptx, .pdf, .rtf., .sxw, .sdw, .abw, .xml, .jpg, .bmp, .tiff, .zip, eta .7z

c) Birusek sistemaren eraginkortasunean izan dezaketen eragina txikitzeko, dokumentuak honako formatu hauetan igortzea gomendatzen da: .pdf, .rtf, .sxw, .jpg eta .tiff.

d) Eskaintza aurkezteko epean jaso dela esan nahiko du epe horretan igortzen hasi eta arrakastaz amaitzen bada.

12.3.- Konfidentzialtasuna.

Lizitatzaileren batek uste badu aurkeztu duen dokumenturen bat konfidentzialtzat jo behar dela, beren-beregi adierazi beharko du hori —**II.3 ERANSKINA** betez— eta argi eta garbi agerrarazi, gaininprimatuta edo orriaren bazterrean, konfidentzialtzat jo den dokumentuan bertan. Ez bada horrela agerrarazten, dokumentua ez da konfidentzialtzat joko.

II.3 ERANSKIN horretan, sekretu tekniko edo merkataritzakoekin lotuta egoteagatik eskaintzan konfidentzialtzat jotzen diren informazio eta alderdiak azaltzeaz gain, sekretu horiei **zein arrazoi zehatzengatik lotzen zaien** azaldu beharko dute.

Eskaintza ekonomikoa ez da inola ere izango konfidentziala. Eskaintza ekonomikoa konfidentziala dela esan bada, eskaintzarik ez dela egin ondorioztatuko da.

Konfidentzialtasun-deklarazioak ezin du barne hartu lizitatzaileak aurkeztu duen dokumentazio osoa, ezta eskaintza teknikoa egiaztatzeko dokumentazio osoa ere. Kasu horretan, edo deklarazio hori oker dimentsionatzen denean, kontratazio-organoak erabakiko du (arrazoiak adieraziz) zer datuk edo dokumentuk izan behar duten konfidentzialak. Gauza bera egingo du kontratazio-organoak baldin eta deklarazioak ez badu arrazoi egoki eta nahikoa oinarridunik lizitatzaileak konfidentzialtzat jotzeko hala deklaratutako informazioa.

Lizitatzaileak ez badu espresuki adierazi datu eta/edo dokumenturen bat konfidentziala denik, datu edo/eta dokumentu bat ere konfidentziala ez dela ondorioztatuko da. Hala ere, salbuespen moduan eta arrazoituta, kontratazio-organoak konfidentzialtzat jo dezake konfidentzial deklaratu ez den informazioren bat, enpresa-interes legitimoak zaintzearren.

Halaber, eskaintzak aurkeztu ostean ezin izango da adierazi datu batzuk konfidentzialak direla, datu horiek aurkeztean adierazi ez bazen.

Hasierako eskaintzan ez zegoen dokumenturen bat aurkezten bada adjudikazio-prozeduran, konfidentzialtzat jo ahal izango da dokumentazio berri horren artean dagoen datu edo dokumenturen bat, klausula honen aurreko paragrafoetan azaltzen diren baldintzetan.

12.4.- Dokumentazioa egiaztatzea.

Adjudikazio-prozeduraren barruan nahiz kontratua adjudikatu eta formalizatu ostean, aurkeztutako dokumentuak benetakoak direla egiaztatu ahal izango du botere adjudikatzaileak. Datuak faltsutzea kontratuaren deuseztasun-kausa izan daiteke. Arrazoi horregatik kontratuaren deuseztasun-deklarazioa eginez gero, operadore ekonomikoari leporatu ahal izango zaio ez-betetzea, eta eragindako kalte eta galerak ordaindu beharko dizkio botere adjudikatzaileari.

12.5.- Jakinarazpenak eta komunikazioak.

12.5.1.- Jakinarazi eta komunikatu behar diren jarduketak.

12.5.1.1.- Adjudikazio-erabakia eta SPKLren 44.2.b) artikuluan definitutako izapidetze-egintzak jakinarazi beharko dira.

12.5.1.2.- Honako hauek izango dira komunikazioak: argibide-eskariak, akatsak edo omisioak konpontzeko errekerimenduak, agiri honetan aurreikusitako dokumentuak aurkezteko errekerimenduak eta SPKLren 44.2 b) artikuluan sartzen ez diren bestelako izapide-egintzak.
Jakinarazpenak eta komunikazioak lizitazio elektronikoko sistemaren bidez egingo dira.

12.5.2.- Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztea.

Lizitazio elektronikoaren sistema erabiliko da eskaintzak aurkezteko.

13.- A gutun-azala «AURRETIAZKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN EGIAZTAGIRIAK».

13.1.- Gutun-azal horretan egon behar diren dokumentuen zerrenda

13.1.1.- Eragile ekonomikoaren kontratazio-agiri europar bakarra (KAEB) behar bezala beteta. Hori betetzeko, helbide hau erabiliko da https://www.contratacion.euskadi.eus/webkpe00-kpeperfi/es/contenidos/anuncio_contratacion/expjaso30642/es_doc/adjuntos/deuc1.pdf eta kontratatzailearen profilean argitaratutako xml artxiboa. **II.1 ERANSKINA**

Halaber dagozkion KEAB guztiak aurkeztuko dira, baldintza orokorren 13.3 klausulan jasotako kasuetan.

13.1.2.- Behin-behineko bermea, kontratuaren berariazko klausulen 8.1 klausulak hala eskatuz gero.

13.1.3.- Bitartekoak atxikitzeko konpromisoa **II.2 ERANSKINEAN** dagoen ereduaren arabera.

13.1.4.- Prestazioa emateaz arduratuko diren langileen izenak eta prestakuntza profesionala, kontratuaren berariazko klausulen 21.5 klausulan hala eskatzen bada.

13.1.5.- Operadore ekonomikoak emandako informazioak konfidentzialtzat jotzea, **II.3 ERANSKINEAN** agertzen den ereduaren arabera.

13.1.6.- ABEEa formalki eratzeko konpromisoa, **II.4 ERANSKINAREN** arabera, dagokionean.

13.1.7.- Kontratuaren objektu den jarduera egiten duten langileei dagokienez operadore ekonomikoak hartutako konpromisoei buruzko deklarazioa, **II.5 ERANSKINEAN** agertzen den ereduaren arabera**.**

13.1.8.- Merkataritzako Kodearen 42.1 artikuluaren arabera enpresa-talde berekoak diren hainbat operadore ekonomikok aurkezten badute eskaintza, **II.6 ERANSKINA** bete beharko da.

13.1.9.- Kontratuaren berariazko klausulen 1.2 klausularen arabera sortarik badago, **II.7 ERANSKINA** bete beharko da eskaintza zein sortatarako aurkezten den adierazteko.

13.1.10.- Operadore ekonomikoak Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoak badira eta kontratua Espainian betearaziko bada, deklarazio bat aurkeztu beharko dute, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla eta, hala balegokio, operadore ekonomikoari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diotela adieraziz.

13.1.11.- Europar Batasunekoak ez diren hainbat operadore ekonomiko izanez gero, SPKLren 68.1 artikuluan araututa dagoen txostena aurkeztu beharko dute. Halaber, kontratua Espainian betearaziko bada, deklarazio bat aurkeztu beharko dute, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla eta, hala balegokio, operadore ekonomikoari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diotela adieraziz.

13.2.- Kaudimena metatzea, ABEEen kasuan

ABEEen kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta kaudimen tekniko edo profesionala zehazteko, operadore ekonomiko bakoitzaren ezaugarriak metatuko dira.

Baldin eta kontratuaren berariazko klausulen 21.3 klausularen arabera 21.2 klausula horretan azaltzen den kaudimenaren ordez 21.3 klausulan jasota dagoen sailkapena erabil badaiteke, eta ABEEan parte hartzen duten operadore ekonomiko guztiek sailkapena badaukate, banakako sailkapenak zerbitzu-kontratista gisa metatuko dira, kontratuaren berariazko klausulen 21.3 klausulan azaltzen den sailkapen orokorra lortu ahal izateko.

Hala ere, operadore ekonomiko guztiek ez badaukate sailkapenik, ondorioztatuko da ABEEak bete egiten dituela eskatutako kaudimen-betekizunak baldin eta, elkartea osatzen duten guztien ezaugarriak metatu ondoren, betekizun hauetakoren bat betetzen badu aldi baterako elkarteak

- Kontratuaren berariazko klausulen 21.2 klausulan adierazitako kaudimen-betekizunak.
- Kontratuaren berariazko klausulen 21.3 klausulan adierazitako Taldea, Azpitaldea eta Kategoria.

13.3.- Kontratazio-agiri europar bakarrari (KAEB) buruzko erregela zehatzak

13.3.1.- Kontratua sortaka zatituta baldin badago, eta hautaketa-irizpideak, hau da, kaudimena egiaztatzeko bitartekoak sorten arabera aldatzen baldin badira, KAEB agiri bat aurkeztu behar da sorta bakoitzeko. Hala eta guztiz ere, kaudimena egiaztatzeko baliabide berberak behar badira sorta guztietarako, eta operadore ekonomikoaren eskaintza lotuko zaien sorta kopuruaren arabera aldatzen badira betekizunak, KEAB bakarra bete beharko da sorta guztietarako.

13.3.2.- Azpikontratistak:

13.3.2.1.- Kontratuaren berariazko klausulen 14.2 klausulako a) letran hala azaltzen bada, operadore ekonomikoek KAEBen II. zatiko D atala bete behar dute, eta honako datu hauek jarri behar dituzte:

- azpikontratatzea aurreikusi duten **kontratuaren zatia(k),**
- azpikontratatzea aurreikusi duten zati bakoitzaren **ehunekoa**
- eta **azpikontratistaren izena edo definitutako enpresaburu-profila, kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzen arabera.**

13.3.2.2.- Kontratuaren berariazko klausulen 14.2 klausulako b) letran hala azaltzen bada, operadore ekonomikoek, azpikontratatu behar duten pertsonaren KAEB (II. zatiko A eta B atalak eta III. zatia behar bezala beteta) aurkeztu beharko dute edo, pertsona bat baino gehiago badira, zenbat pertsona azpikontratatu behar diren eta hainbat KAEB, behar bezala sinatuta.

13.3.3.- Kaudimena kanpoko baliabideen bitartez osatzea: operadore ekonomikoak beste pertsona edo entitate batzuen kaudimena edo baliabideak erabili nahi baditu, bere KAEB eta pertsona edo entitate horietako bakoitzarenak ere aurkeztu beharko ditu(pertsonak edo entitateak adina KAEB), behar bezala sinatuta, eta II. zatiaren A eta B atalak eta III. zatia behar bezala beteta; gainera, hala dagokionean, IV. zatia ere beteko da

13.3.4.- ABEEa: operadore ekonomiko batzuek ABEE batean parte hartu nahi badute, bereizitako KAEB bat aurkeztu beharko dute. Bertan jaso beharko dute II. zatitik IV. zatira eskatzen den informazioa, parte hartzen duen operadore ekonomiko bakoitzeko.

13.3.5.- Sailkapena: kaudimenaren ordez kontratuaren berariazko klausulen 21.3 klausulan adierazitako sailkapena erabili nahi bada, dagozkion talde, azpitalde eta kategoriak adierazi beharko dira KAEB agiriaren II. zatiaren A atalean.

13.3.6.- Baztertzeko arrazoiak: III. zatiko D atalean xedatuta dagoenaren ondorioetarako, baztertzeko arrazoi nazionalak (nazionalak bakarrik) honako hauek dira (SPKLren 71.1 artikuluko d) letra)::

- Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta euren gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginaren 42. artikuluaren arabera desgaitasunen bat duten pertsonentzat lanpostuen % 2ko erreserbaren kuota ez betetzea.
- Berdintasun-plana edukitzeko betebeharra ez betetzea, emakume gizonen berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.

III.- GUTUN-AZALAK IREKITZEA ETA ESKAINTZAK BALIOESTEA.

14.- eskaintzak ez onartzeko arrazoiak, eta argibideak eskatzea.

14.1.- Kontratazio-mahaiak eskaintzak ez onartzea erabakiko du, baldin eta:

a) Kontratuaren berariazko klausulen 24. klausulan aipatuez besteko gutun-azalen batean sartu badute dokumenturen bat, eta ondorioz kolokan jartzen bada eskaintzaren isilpekotasuna

b) Kontraesanak, omisioak, akatsak edo marratuak badituzte, eta horrela eskaintzaren edukia argi ulertzea eragozten bada.

c)Eskaintzak ez badatoz bat aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin.

d) Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua edo gehieneko unitate-prezioak gainditzen badituzte.

e)Agiri honetako eskaintza ekonomikoaren eredutik nabarmen aldatzen badira.

f) Zenbatekoan errore nabarmena ageri badute.

g) Errorea badute edo funtsik ez badute, eta horren ondorioz bideraezinak badira lizitatzaileak berak onarturik.

h) AKPAn edo PTPAn ezarritako baldintza edo betekizunak betetzen ez badituzte.

i) Irakurtzea edo edukia ikustea eragozten duten birusen bat badute.

14.2.- Kontratazio-mahaiak adjudikazio-proposamena egin aurreko edozein unetan eskatu ahal izango ditu eskaintzak hobeto ulertu ahal izateko **argibideak**. Inola ere ez da onartuko lizitatzaileak, argibideak ematean, eskaintzan adierazitako ezer aldatu nahi izate.

15.- AURRETIAZKO ESKAKIZUNAK BETE izanaren egiaztagiriak irekitzea eta kalifikatzea.

15.1.- Eskaintzak aurkezteko epea amaitutakoan, kontratazio-mahaiak bilera egingo du A gutun-azalean garaiz eta behar bezala aurkeztutako dokumentuak kalifikatzeko.

Baldin eta ondorioztatzen bada aztertutako dokumentazioa zuzena eta nahikoa dela betekizunak bete direla egiaztatzeko, lizitatzaile guztiak prozeduran onartzen direla erabakiko du.

Baldin eta konpon daitekeen akats edo omisioren bat ikusten badu aztertutako dokumentazioan, hiru (3) egun balioduneko epea emango die akats edo omisio hori konpontzeko.

Emandako epea amaiturik, zuzentze-fase horretan emandako dokumentazioa aztertuko du kontratazio-mahaiak eta lizitatzaileak onartuko edo baztertuko diren erabakiko du. Lizitatzaileren bat baztertzea erabakiz gero, horretarako arrazoiak adieraziko ditu erabakiarekin batera.

15.2.- Hautatutako eta baztertutako lizitatzaileen zerrenda kontratatzailearen profilean argitaratuko da eta, hala dagokionez, baztertzeko arrazoiak ere adieraziko dira.

16.- balio-iritzi batean oinarrituta aplikatu beharreko irizpideen bidez ebaluatu daitekeen eskaintzaren zatia irekitzea eta ebaluatzea.

16.1- Jendaurrean irekitzea.

Kontratazio-mahaiak, ekitaldi publikoan, lizitatzaileak onartu edo baztertu diren jakinaraziko du eta ondoren, onartu diren lizitatzaileek aurkeztu dituzten C gutun-azalak irekiko ditu.

16.2.- Kasu orokorra: kontratazio-mahaiak ebaluatzea.

Dokumentazioa kontratua sustatzen duen sailera bidaltzeko erabakia hartu dezake kontratazio-mahaiak, egiazta dezan eskaintzen edukia ez dela PTPAn ezarritako zehaztapenen aurkakoa, eskaintzak balioets ditzan eta txostena egin dezan.

Sailak ebaluazioa egitean egiaztatu egiten badu eskaintzaren bat agirien aurkakoa dela edo beste gutun-azal batean sartu beharreko dokumentuak edo datuak sartu dituela, txostenean idatziko du inguruabar hori. Txostena egindakoan, kontratazio-mahaiari igorriko dio, eskaintzako dokumentuekin batera.

16.3.- Salbuespena: aditu-batzordeak edo organismo tekniko espezializatuak ebaluatzea.

Baldin eta kontratuaren berariazko klausulen 19.2.5 klausulak ezartzen badu aditu-batzorde bat edo erakunde tekniko espezializatu bat izendatu behar dela eskaintzaren zati hau ebaluatzeko, izendatutako organoari bidaliko dio dokumentazioa kontratazio-mahaiak, ebaluatu eta txostena egin dezan. Txostena egindakoan, kontratazio-mahaiari igorriko dio, eskaintzako dokumentuekin batera.

17.- FORMULA APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEKEEN ESKAINTZAREN ZATIA IREKITZEA ETA EBALUATZEA.

17.1.- GUTUN-AZALAK IREKI AURREKO JARDUKETAK.

17.1.1.- Balio-iritzi batean oinarritu beharreko irizpideak erabiltzen dira.

Baldintza orokorren 16.2 klausulan aurreikusitako kasu orokorrean, B gutun-azalak ireki aurretik, honako jarduera hauek egingo ditu kontratazio-mahaiak:

Bileraren zati publikoa hasi aurretik:

- Kontratua sustatzen duen sailak egindako balorazio-txostena aztertuko du, eta eskaintzak balioetsi eta puntuatuko ditu.
- Baldintza orokorren 14.1 klausulan aurreikusitako kasuetan, eskaintza(k) ez onartzea erabakiko du.

Bileraren zati publikoa hasi ondoren:

- Eskaintza bakoitzari emandako puntuak jakinaraziko dizkie saiora bertaratutakoei eta, hala badagokio, onartu ez diren eskaintzen berri eta ez onartzeko arrazoiak ere emango dira.

Baldintza orokorren 16.3 klausulan aurreikusitako salbuespenezko kasuan, kontratazio-mahaiak, gutun-azala ireki aurretik, aditu-batzordeak edo erakunde tekniko espezializatuak emandako puntuak jakinaraziko ditu eta, dagokionean, onartu ez diren eskaintzen berri ere emango du, ez onartzeko arrazoiak azalduta.

17.1.2.- Ez dira erabiltzen balio-iritzi batean oinarritu beharreko irizpideak.

Gutun-azalak ireki aurretik, zein lizitatzaile onartu diren eta zein baztertu diren jakinaraziko du kontratazio-mahaiak.

17.2.- GUTUN-AZALAK IREKITZEA ETA ESKAINTZAK IRAKURTZEA.

Kontratazio-mahaiak aurretiko jarduketak egin ostean, ekitaldi publikoan irekiko ditu baztertu ez diren lizitatzaileek aurkeztutako B gutun-azalak eta eskaintzak irakurriko ditu.

18.- ESKAINTZAK ebaluatzea.

Jarraian, honako jarduketa hauek egingo ditu kontratazio-mahaiak, beharrezkoak diren bileretan:

18.1.- Egiaztatuko du ea eskaintzaren batek baldintza orokorren 14.1 klausulan ezarritako ez onartzeko arrazoiren bat duen. Halakorik egonez gero, eskaintza ez onartzeko erabakia hartuko du.

18.2.- Egiaztatuko du ea onartutako eskaintzek kontratuaren berariazko klausulen 22.3 klausulan ezarritako mugak gainditzen dituzten, eta eskaintzaren batek hala eginez gero SPKLren 149.4 artikuluan aurreikusita dagoena egingo da.. Kontratazio-mahaiak erabakiko du zein izango den entzunaldi-epea, eskaintzen ezaugarriak kontuan hartuta, baina gutxienez hiru (3) eta gehienez hamar (10) egun baliodunekoa izango da.

Prozedura hori amaitutakoan, kontratazio-organoari proposatuko dio bete ezin diren eskaintzak onartzeko edo ez onartzeko.

18.3.- Eskaintzen puntuazioak kalkulatuko ditu eta eskaintzarik onena zein den zehaztuko du, haietako bakoitzak adjudikazio-irizpide guzti-guztietan lortutako puntuak batuta.

Kalkulu hori egiteko, ez ditu kontuan hartuko ez onartzeko proposatu diren eskaintzak.

18.4. SPKLren 132. eta 150. artikuluetan xedatutakoaren arabear, kontratazio-mahaiak LEAri jakinarazi beharko dizkio lizitazio honen esparruan ezagutu ditzakeen balizko egitate edo zantzu guztiak, lehiaren defentsaren alorreko legediaren urraketak izan badaitezke. Bereziki, akordio, erabaki edo gomendio kolektibo, edo lizitatzaileen arteko praktika itundu edo nahita paraleloa den jardueraren zantzu oro, horien helburua kontratazio-prozesuan lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea bada edo lehia benetan eragozten, murrizten edo faltsutzen badute edo eragotzi, murriztu edo faltsutu ahal badute.

Eskaintza bik edo gehiagok puntuazio berbera lortzen badute, errekerimendua egingo die eskaintzok aurkeztu dituzten lizitatzaileei, gehienez ere hamar (10) egun balioduneko epean aurkez ditzaten berdinketa hausteko irizpide zehatzak betetzeari buruzko egiaztagiriak, baldin eta kontratuaren berariazko klausulen 23. klausulan irizpide horiek azaltzen badira. Baldin eta kontratuaren berariazko klausulen 23. klausulan irizpide zehatzik ezarri ez bada, baldintza orokorren 19. klausulan jasotzen diren irizpideei jarraituko zaie berdinketa hausteko.

19.- BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK.

Kontratuaren berariazko klausulen 23. klausulan ez bada aurreikusten berdinketa hausteko irizpide zehatzik, eta kontratua adjudikatzeko irizpideak aplikatu ondoren berdinketarik badago zenbait eskaintzaren artean, honako irizpide sozial hauek (adierazitako hurrenkeran) aplikatuko dira berdinketa ebazteko, betiere eskaintzak aurkezteko epea amaitzeko unea kontuan hartuta:

a) Lizitatzaile bakoitzaren plantillatik desgaitasunen bat duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena; berdintasuna izatekotan, plantillan desgaitasunen bat duten langile finkoen kopuru handiena edo plantillan inklusio neurrien bidez dauden langile kopuru handiena duena.

b) Lizitatzaile bakoitzaren plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.

c) Lizitatzaile bakoitzaren plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena.

d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa hautsi ez bada.

Irizpide horiek aplikatze aldera, lizitatzaileek irizpideok egiaztatu beharko dituzte, hala badagokio, lan-kontratu egokiak eta Gizarte Segurantzaren kotizazioen dokumentuak eta zuzenbidean onartutako bestelako dokumentuak ere aurkeztuz, baldin eta aipatu diren irizpide sozial horiek egiaztatu nahi badituzte.

IV.- KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA FORMALIZATZEA.

20.- adjudikazio-proposamena.

Kontratazio-mahaiak puntuen arabera sailkatuko ditu eskaintzak, puntu gehien eskuratu duenetik puntu gutxien duenera, eta sailkapen horren arabera igorriko dio adjudikazio-proposamena kontratazio-organoari.

Kontratazio-organoak kontratazio-mahaiaren proposamena onartuko du.

21.- ADJUDIKATU AURREKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA.

21.1.- Kontratazio-organoak adjudikazio-proposamena onartu ondoren, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari errekerimendua egingo zaio, errekerimendu hori jasotzen duenetik aurrera zenbatuta hamar (10) egun balioduneko epean honako dokumentu hauek aurkez ditzan:

1.- Jarduteko gaitasuna daukala egiaztatzeko:

1.1. Pertsona juridikoak diren Espainiako lizitatzaileek honakoa aurkeztu beharko dute jarduteko gaitasuna egiaztatzeko: euren jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituen eraketa-eskritura, estatutuak edo sortze-egintzaren dokumentua, jarduera arautzen duten arauekin, hala badagokio pertsona juridiko motaren arabera dagokion erregistro publikoan inskribatua.

1.2. Espainiakoak ez diren eta Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoak diren lizitatzaileek, SPKLren 84.2 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera egiaztatuko dute jarduteko gaitasuna..

1.3. Atzerriko gainerako lizitatzaileek SPKLren 84.3 artikuluan xedatuaren arabera egiaztatuko dute jarduteko gaitasuna.

2.- Ahalordea: baldin eta eskaintza sinatzen duen pertsona ez bada bere izenean ari, edo lizitatzailea sozietatea edo pertsona juridikoa bada, berariazko ahalorde nahikoa aurkeztu beharko du sinatzaileak. Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, dagokion erregistro publikoan behar bezala inskribatuta egon beharko da ahalorde hori, baldin eta, zein motatako pertsona juridikoa den kontuan hartuta aplikatu behar den araudiaren arabera, nahitaez egon behar bada inskribatuta.

3.- Kaudimena: kontratuaren berariazko klausulen 21.1 klausularen arabera kaudimeneko gutxieneko betekizun batzuk edukitzea nahitaezkoa bada, kontratuaren berariazko klausulen 25.1 klausulan azaltzen den dokumentazioa aurkeztu beharko da betekizun horiek egiaztatzeko, salbu eta betekizunhorien ordez sailkapena erabiliko bada; kasu horretan kontratuko berariazko klausulen 21.3 klausulan eskatutako sailkapena baduela egiaztatzeko ziurtagiria aurkeztu beharko da.

4.- Enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionala: kontratuaren berariazko klausulen 21.4 klausulan azaltzen bada eskaintzak aurkezteko azken egunean eduki behar dela gaikuntza.

5.- Lizitatzaileak kontratua betearazteari adskribatu nahi dizkion baliabide materialak eta giza baliabideak eskura izatea: kontratuaren berariazko klausulen 25.2 klausulan jasota dagoen dokumentazioa.

6.- Kontratuaren indarraldi osoan beste entitate batzuen kaudimena eta baliabideak eskura izatea: lizitatzaileak beste entitate batzuen kaudimena eta baliabideak erabiliko baditu, **IV.1 ERANSKINEAN** agertzen den "Beste entitate batzuen kaudimena eta baliabideak erabiltzeko konpromisoa" aurkeztu beharko du.

7.- Kontratatzeko debekurik ez izatea: kontratatzeko debekurik ez izatea egiaztatzen duten dokumentuak, SPKLren 85. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera (erantzukizunpeko adierazpena **IV.2 ERANSKINAREN** arabera).

8.- Eskaintza modu independenteak prestatzea**:** eskaintza modu independenteak prestatzeari buruzko berariazko adierazpena **IV.3. ERANSKINA** beteta.

9.- **Tratamenduaren arduradunaren akordioa, SPRIren sistemari sarbidearekin:** lizitatzaileak datu pertsonalak tratatu behar baditu SPRIren sistemari sartuta, **IV.4. (i) ERANSKINA** beteta.

10.- **Tratamenduaren arduradunaren akordioa, SPRIren sistemara sarbide mugatuarekin**: lizitatzaileak datu pertsonalak tratatu behar baditu SPRIren sistemari sartu gabe, **IV.4. (ii) ERANSKINA** beteta.

11.- Zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatea: zerbitzu publikoarekin kontratuak egiteko, zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen ziurtagiriak eta zerbitzu publikoarekin kontratuak egiteko, Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen ziurtagiria. Lizitatzaileak lurralde batean baino gehiagotan ordaindu behar baditu zergak, administrazio eskudun guztiek egindako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.
Atzerriko lizitatzaileek jarduera egiten duten tokian (Espainia kanpoan edo barruan) zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak (edo baliokidearenak) betetzen dituzten ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

12.- Bermea: behin betiko bermea eratu eta, beharrezkoa bada, bai eta osagarria eratu izanaren frogagiria ere (salbu kontratuaren berariazko klausulen 8.2 klausulan ez den eskatu). **IV.5 eta IV.6 ERANSKINETAKO** ereduen arabera, bankuko abala edo kauzio-aseguruarena bada.

13.- Publizitate gastuak: kontratuaren berariazko klausulen 7. Klausulan hala azaldu bada, dagozkion publizitate-gastuen ordainagiria.

14.- Erreserbatutako kontratuak: kontratuaren berariazko klausulen 20.7 edo 20.8 klausulen arabera kontratua erreserbatua bada, lizitatzaileak dokumentu bidez egiaztatu beharko du erreserba horren baldintzak betetzen dituela.

15.- Kopia sinplearen bidez aurretiaz aurkeztu zirenen artean eska daitezkeen jatorrizko dokumentuak.

Bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoen bidez egin ahal izango dira ziurtagiriak.

Baldintza orokorren 11.5 klausulan azaltzen diren erregistro, zerrenda eta datu-baseetan inskribatzeak klausula horretan azaltzen diren ondorioak izango ditu erregistro, zerrenda eta datu-base horietan agertzen diren datuak egiaztatzeari dagokionez, betiere dohainik sartu badaiteke horietara.

21.2.- Errekerimendua ezarritako epean behar bezala betetzen ez badu, eskaintzan atzera egin duela ulertuko da. Kasu horretan, honako jarduketa hauek egingo dira:

- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio (BEZa sartu gabe), zigor gisa; zenbateko hori behin-behineko bermetik hartuko da, baldin eta hori eratu bada, hargatik eragotzi gabe SPKLren 71.2 artikuluko a) letran ezarritakoa.
- Dokumentazio berbera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, euren eskaintzan zein ordenatan sailkatu diren kontuan hartuta.

22.- KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA ADJUDIKAZIOA JAKINARAZTEA.

22.1.- Adjudikazioa lortzen duen proposamenak aurkeztutako dokumentazioa jaso eta bost (5) egun balioduneko epean adjudikatu beharko du kontratua kontratazio-organoak.

22.2.- Adjudikatzeko ebazpena lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta horrekin batera, hala badagokio, eskaintzaren barruan balio-iritzi batean oinarrituta aplikatu beharreko irizpideen bidez ebaluatu diren zatiak balioesteko txostena; eta kontratatzailearen profilean argitaratu beharko dira hamabost (15) eguneko epean.

22.3.- SPKLeko 44. artikuluko errekurtso berezi baten ebazpenaren edukiaren ondorioz kontratazio-organoak kontratua beste lizitatzaile bati adjudikatu behar badio, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio lizitatzaile horri, baldintza orokorren 21. klausulan jasotako dokumentazioa aurkez dezan.

22.4.- Adjudikazioa betiere bitarteko elektronikoekin jakinaraziko da.

23.- KONTRATUA FORMALIZATZEA.

23.1.- Kontratua SPKLren 153. artikuluak xedatzen dituen baldintza eta epeetan formalizatuko da, eta aurretiaz honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) ABEEa eratzeko eskritura publikoa, adjudikaziodunek ABEE batean elkartuta parte hartu badute.

b) Kontratuaren berariazko klausulen 9. klausulan bereziki adierazitako aseguru-kontratuen polizak kontratista aseguratuta agertzen denak. Halaber, horien ordainagiriak aurkeztu beharko dira.

Adjudikazioduna ABEE bat balitz, aurkeztu beharreko aseguru-kontratuaren poliza ABEE horren izenean egon beharko da.

c) Enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionala, kontratuaren berariazko klausulen 21.4 klausulan zehaztuta badago, eta, gainera, klausulan azaldu bada kontratua formalizatu baino lehen eduki behar dela gaikuntza hori.

d) Kontratuaren berariazko klausulen 26.4 klausulan adierazitako dokumentazioa.

23.2.- Formalizazioa kontratatzailearen profilean argitaratuko da, dagokion kontratuarekin batera, gehienez ere hamabost (15) eguneko epean, perfekzionatzen denetik aurrera zenbatuta. Halaber, erregulazio harmonizatuko kontratua bada, formalizazioari buruzko iragarkia bidaliko da Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratzeko, gehienez ere hamar (10) eguneko epean, formalizatzen denetik aurrera.

23.3.- Adjudikaziodunari leporatu ahal zaizkion arrazoiengatik kontratua legearen arabera ezarritako epeetan formalizatzea ezinezkoa bada, honako hau egingo da:

- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio (BEZa sartu gabe), zigor gisa; zenbateko hori behin-behineko bermetik hartuko da hasteko, baldin eta hori eratu bada, hargatik eragotzi gabe SPKLren 71.2 artikuluko b) letran ezarritakoa.
- Kontratua hurrengo lizitatzaileari adjudikatzea, eskaintzak zein ordenatan sailkatu diren kontuan hartuta, baldintza orokorren 21.1 klausulan jasotako dokumentazioa errekeritu eta aurkeztu ondoren.

23.4.- Kontratuaren berariazko klausulen 8.1 klausulan behin-behineko bermea eskatu bada, kontratua formalizatu ondoren automatikoki azkenduko da, eta kontratista bihurtu ez diren lizitatzaile guztiei berehala itzuliko zaie. Bermea itzultzeko, aurkezteko erabili den araubide berbera erabiliko da.

V.- KONTRATUA BETEARAZTEA.

24.- Kontratuaren arduraduna.

Kontratua sustatu duen sailak egin beharreko jarraipen- eta betearazpen-eginkizunei kalterik egin gabe, kontratuaren arduradunak gainbegiratu eta ikuskatu beharko ditu lanak eta honako eginkizun hauek egingo ditu:

a) Kontratazio-organoari proposatzea baldintza orokorren 25.2 klausulan aurreikusitako lan-programa onets dezala.

b) Idatzia ematea prestazioa behar bezala ematen dela ziurtatzeko beharrezko jarraibideak.

c) Baldintza orokorren 33.1 klausulan ezarritako zerbitzuen ziurtagiriak onestea.

d) Baldintza orokorren 33.2 klausulan adierazitakoak, hau da, prestazioa behar bezala ematen eta hartzen dela egiaztatzeari buruzkoak.

e) Kontratuaren arabera kontratistak bere gain hartu dituen betebeharrak gainbegiratzea eta bete egin dituela egiaztatzea, kontratazio-organoari jakinaraztea zerbait bete ez dela eta, hala badagokio, kontratua suntsiarazteko edo zigorrak ezartzeko proposamena egitea.

f) Baldintza orokorren 26. klausularen arabera kontratuaren betearazpenari adskribatu zizkion giza baliabideak eta baliabide materialak aldatzeko baimena ematea.

g) Egin beharreko aldaketak proposatzea.

h) Errekerimendua egitea kontratistari, kontratuaren betearazpenari adskribatutako langileen lan-baldintzei buruzko datuak eman ditzan.

i) Errekerimendua egitea kontratistari dokumentazio gehigarria eman dezan, egiaztatu ahal izateko kontratuaren indarraldi osoan dauzkala hirugarren entitateen kaudimena eta/edo baliabideak, kaudimen eta/edo baliabide horiek oinarri hartu baitzituen kontratuaren adjudikazio-prozeduran.

j) Kontratistak azpikontratistei eta/edo hornitzaileei ordaintzen diela egiaztatzea, baldintza orokorren 28.3.2 klausulan xedatutakoaren arabera.

k) Kontratuaren betearazpena atzeratuz gero, txostena egitea sortutako atzerapena kontratistari leporatu ahal zaion zehazteko.

l) Baldintza orokorren 36. klausulan BAEEko kideen lagapenari eta aldaketari buruz aurreikusten diren txostenak egitea.

m) Errekerimendua egitea kontratistari, akta bidez ziurta dezan kontratua betearazten amaitu ondoren datu pertsonalak zeuzkaten euskarri guztiak itzuli dituela edo datu pertsonalak zeuzkaten fitxategi guztiak suntsitu edo ezabatu dituela.

Kontratuaren berariazko klausulen 19.2.2 klausulan agertzen denez, kontratuaren arduraduna aldatuz gero, idatziz jakinaraziko zaio hori, berehala, kontratistari.

25.- Zerbitzuak ematea.

25.1.- Kontratu-dokumentuetan eta jarraibideetan ezarritakoa betetzea.

Zerbitzuak ematean zorrotz beteko da kontratu-dokumentuetan eta jarraibideetan, kontratistaren eskaintzan eta hori guztia betearazi edo interpretatzeko kontratuaren arduradunak idatziz emandako jarraibideetan ezarrita dagoena.

25.2.- Lan-programa.

Kontratuaren berariazko klausulen 18.1 klausulan hala eskatzen bada, kontratistak lan-programa bat entregatu beharko dio kontratuaren arduradunari zazpi (7) egun balioduneko epean, kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik aurrera. Lan-programa horretan, PTPAko klausula egokian zehazten diren datu eta informazioak jaso beharko ditu.

Lan-programak nahitaez bete beharko ditu AKPAn eta, hala badagokio, eskaintzan ezarritako epeak, eta kontratazio-organoak onartuko du hamabost (15) egun balioduneko epean.

25.3.- Baimenak.

Kontratistak eskuratu behar ditu prestazioa emateko behar diren baimen eta lizentzia publiko nahiz pribatu guztiak, baita sortzen diren gastuak ordaindu ere.

25.4.- Aseguruak.

Kontratistak nahitaezko aseguru guztiak kontratatu behar ditu, baita kontratatuta mantendu ere, hala badagokio, kontratuaren berariazko klausulen 9. klausulan ezartzen direnak.

25.5.- Lankidetza.

Kontratistak inolako kostu gehigarririk gabe eman behar dizkio botere adjudikatzaileari kontratuaren objektua behar bezala garatzeko eta betetzeko beharrezkoak diren zerbitzu profesionalak; adibidez: azalpen-bileretara joatea, jendeari informazioa ematea… Era berean, prestazioa zein lekutan ematen den, horietarako sarbide librea eman beharko dio kontratuaren arduradunari.

25.6.- Kontratistaren erantzukizuna.

Kontratista izango da egiten dituen lanen eta ematen dituen prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzulea. Halaber, kontratua betearaztean omisio edo okerrik egiten badu, metodo desegokirik erabiltzen badu edo lanak gaizki ematen baditu eta ondorioz kalterik eragiten badio botere adjudikatzaileari edo beste hirugarren bati, kontratista izango da erantzulea.

25.7.- Obra-proiektuak prestatzeko kontratuetan eman beharreko kalte-ordaina.

Kontratista aholku-emaileari egotz dakizkiokeen akats edo omisioen ondorioz proiektuan aurreikusitako obra egiteko aurrekontua benetako kostuaren % 20 baino gehiago desbideratzen denean (gorantz zein beherantz), kontratista aholku-emaileak kalte-ordaina eman beharko dio botere adjudikatzaileari, 315. artikuluan aurreikusitako baremoaren arabera.

26.- BETEARATZEAN ERABILITAKO BITARTEKOAK.

26.1.- Baliabideak adskribatzeko konpromisoa.

Kontratista behartuta dago baliabideak adskribatzeko konpromisoan adierazitako baliabideak, halakorik egonez gero, kontratuaren betearazpenari adskribatzera (**II.2 ERANSKINA**), eta kontratuaren betearazpena kontratu-dokumentuetan ezarritako baldintza eta epeen arabera egiteko behar diren baliabideak ere adskribatu beharko ditu.

Adierazitako baliabide materialak ordeztu nahi badira, ezinbestekoa izango da aldez aurretik jakinarazpena egitea kontratuaren arduradunari.

Hark ziurtatuko du, emandako ziurtagirien bitartez, proposatutako baliabideak nahitaezko betekizunak betetzen dituela, eta zazpi (7) egun balioduneko epea izango du baimena jakinarazteko. Kontratuaren arduradunak ondorioztatzen badu baliabideak ez dituela betekizunak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakia oinarritzeko arrazoiak adierazita. Kontratistak beste baliabide bat proposatu ahal izango du.

Adierazi diren giza baliabideak ordezteko, klausula honetan xedatuari jarraitu beharko zaio. Nolanahi ere, ordezpen horren ondorioz eragozpenen bat sortuko balitz lan-ingurunera egokitzeko, ordeztu behar den kideak eta ordezkoak batera jardun beharko lukete, kostu gehigarririk gabe, beharrezkoa den denbora guztian.

Prozedura eta baldintza hauen arabera ordeztu ahal izango da:

a) Kontratistak eskatutako aldaketa: arrazoi justifikatuak direla-eta ordezpenen bat egin behar badu, idatziz jakinaraziko dio kontratuaren arduradunari (15) egun baliodun lehenago –arrazoia ez bada aldi baterako lanerako ezintasuna edo heriotza–, eta datu hauek adierazi beharko ditu:

- Ordeztu nahi den pertsona nor den eta zergatik ordeztu nahi den.
- Ordezkoa izateko hautagaiaren proposamena, ordezko izateko betekizunak betetzen dituela egiaztatzen duten dokumentuak ere aurkeztuta.

Zazpi (7) egun balioduneko epean, kontratuaren arduradunak ordezpena baimenduko du; bestela, ondorioztatzen badu hautagaiak ez dituela betekizunak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakia oinarritzeko arrazoiak adierazita. Beste hautagai bat proposatu ahal izango du kontratistak.

b) Botere adjudikatzaileak eskatutako aldaketa: kontratua behar bezala betearazteko ordezpenen bat egin behar dela uste badu, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, arrazoiak adierazita. Kontratistak, hamabost (15) egun balioduneko epean, betekizunak betetzen dituen hautagai bat proposatuko du gutxienez, hori ziurtatzen duten ziurtagiriak ere aurkeztuta.

Zazpi (7) egun balioduneko epean, kontratuaren arduradunak ordezpena baimenduko du; bestela, ondorioztatzen badu hautagaiak ez dituela betekizunak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakia oinarritzeko arrazoiak adierazita. Kontratistak beste hautagai bat proposatu beharko du, aurreko apartatuan aipatu diren baldintzei jarraituz.

Arau berak aplikatuko zaizkie kaudimena egiaztatzeko emandako baliabideei, kontratistak lizitazio-fasean beste entitate batzuen kaudimena eta/edo baliabideak aurkeztu baditu.

26.2.- Langileei buruzko erregela zehatzak.

Zerbitzuaren prestazioari adskribatutako langileak kontratistaren mende bakarrik egongo dira eta harenak izango dira enplegatzaileei atxikitako eskubideak eta betebeharrak. Ondoroi horietarako, kontratistak betebehar hauek hartuko ditu bere gain:

a) Kontratuaren betearazpenari adskribatu behar dizkion langileak hautatzea. Hala ere, botere adjudikatzaileak ahalmena izango du agirietan, hala badagokio, ezarri diren prestakuntza profesionalaren betekizunak betetzen direla egiaztatzeko

b) Langileen egonkortasuna mantentzea eta, aldaketarik gertatuz gero, bakanak eta arrazoituak izatea, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez eragozteko (exijentzia hori justifikatzeko arrazoirik baldin badago); aldaketarik egonez gero, horren berri emango dio uneoro botere adjudikatzaileari.

c) Enplegatzaile ororen berezko zuzendaritza ahalmena modu errealean, efektiboan eta jarraituan baliatzea kontratuaren betearazpenari adskribatutako langileen gainean. Bereziki, hauek egin beharko ditu: soldatak negoziatu eta ordaindu; baimenak, lizentziak eta oporrak eman; langileak ordeztu absentziak daudenean; Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak bete –dagokionean, kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne–; lan-arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak bete; diziplina-ahala erabili, eta langilearen eta enplegatzailearen arteko kontratuzko harremanetik eratortzen diren eskubide eta betebehar guztiak bete.

d) Langileek, jarduera garatu bitartean, agirietan kontratuaren objektu gisa mugatutako jarduerari dagozkion eginkizunak besterik ez dituztela betetzen bermatzea.

e) Bere plantillako pertsona bat gutxienez koordinatzaile izendatzea, honako zeregin hauek betetzeko:

- Kontratistaren mintzakide gisa jardutea botere adjudikatzailearen aurrean, komunikazioa bideratuz batetik kontratistaren eta kontratuari adskribatutako langileen eta bestetik botere adjudikatzailearen artean, kontratua betearaztetik eratorritako auzi guztietan.
- Lana langileen artean banatzea eta langileei lanerako agindu eta jarraibideak ematea, prestazioa behar bezala emateko.
- Langileek aginduta dauzkaten eginkizunak behar bezala egiten dituztela gainbegiratzea eta lanpostuan daudela kontrolatzea.
- Oporren araubidea antolatzea.

f) Botere adjudikatzaileari jakinaraztea kontratuaren betearazpenari adskribatutako lantaldean sortzen diren aldaketak, noizbehinkakoak zein iraunkorrak izan.

26.3.- Lan-baldintzei buruzko informazioa.

Hurrengo apartatuetan azaltzen diren datu eta dokumentuak eman behar dizkio kontratistak kontratuaren arduradunari, kasu bakoitzean adierazten diren epe eta baldintzetan:

a) Kontratuaren betearazpenari adskribatutako langile guztien lan-baldintzei buruzko datuak: posta elektronikoz aurkeztuko dira; horretarako, **II.5 ERANSKINEAN**, agertzen den erantzukizunpeko deklarazioa bete beharko da zazpi (7) egun balioduneko epean, dagokion errekerimendua jasotzen denetik aurrera.

b) Kontratuaren arduradunak eskatzen dituen dokumentuak, emandako datuak benetakoak direla eta kontratistak enplegatzaile gisa bere gain hartutako lan arloko betebeharrak bete dituela egiaztatzeko: posta elektronikoz aurkeztuko dira, eskaneatutako kopiekin, hamar (10) egun balioduneko epean, errekerimendua jasotzen den egunetik aurrera.

Kontratuaren arduradunak kontratuaren indarraldiko edozein unetan eskatu ahal izango du informazio hori, eta, bereziki, SPKLren 130. artikuluan xedatuta dagoenaren ondorioetarako.

26.4.- Kontratua betearazteko lekua.

Botere adjudikatzaile kontratatzailearenak berarenak ez diren bulego edo instalazioetan emango da prestazioa. Hori ezinezkoa bada, plantillen nahasketa saiheste aldera, kontratistaren langileek ez dituzte espazioak eta lantokiak partekatuko botere adjudikatzailearen zerbitzuko langileekin, inguruabar zehatzek aukera ematen badute; gainera, behar diren ikur bereizgarriekin identifikatuko dira kontratistaren langileak eta baliabideak, esate baterako uniformeak edo errotulazioak erabilita.

26.5.- Kaltegabetasun-erregela.

Kontratistak klausula honetan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik botere adjudikatzailea kontratistarekin batera solidarioki diru-kopururen bat ordaintzera kondenatzen badute, kontratistari kobratuko zaio ordaindutako zenbatekoa, egokiak diren legezko ekintzen bitartez.

26.6.- Langileen subrogazioa.

Lan araudiaren arabera langileak subrogatu behar badira, ordura arte zerbitzua ematen zuen kontratista ez den beste operadore ekonomiko bati adjudikatzen zaionean kontratua, kontratistak ordaindu beharko ditu subrogazioaren mendean dauden langileei ordaindu ez zaizkien soldatak, bai eta sortu diren Gizarte Segurantzaren kotizazioak ere, kontratua suntsiarazten bada ere. Betebehar hori inola ere ez da kontratista berriarena izango.

Kasu horretan, botere adjudikatzaileak, aipatutako soldatak ordaindu ez direla egiaztatu ondoren, kontratistari zor zaizkion diru-kopuruen atxikipena egingo du soldata horien ordainketa bermatzeko, eta ez du behin betiko bermea itzuliko soldatak ordaindu direla egiaztatu arte.

27.- BETEBEHARRAK LAN ARLOAN, GIZARTE SEGURANTZAREN ARLOAN ETA LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN ARLOAN

Kontratistak nahitaez bete beharko ditu lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden xedapenak, eta, bereziki, honako hauek:

27.1.- Garatu beharreko prestazioak lan-ordenantza edo hitzarmen kolektibo bati lotuta badaude, kontratistak nahitaez bete beharko ditu lan-ordenantza eta hitzarmen kolektibo horietan ezarritako xedapenak.

27.2.- Kontratistak langileen bizitzari, osotasunari eta osasunari eragin diezaieketen arriskuak ahalik eta ondoen prebenitzeko behar diren edo derrigorrezkoak diren laneko segurtasun- eta higiene-neurri guztiak hartuko ditu.

27.3.- Halaber, indarreko araudiak lan-arriskuak prebenitzeko ezarritako betebeharrak beteko ditu eta, kontratatutako jarduera hasi aurretik, betebehar hauek bete dituela frogatu behar du:

a) Indarreko legeriarekin bat datorren prebentzio-antolamendua ezarri.

b) Lan-arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sistema orokorrean integratu, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onetsi zuen Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuen Erregelamenduaren 2. artikuluaren araberako lan-arriskuen prebentzio-plan bat ezarri eta aplikatuz. . Baldintza hori frogatutzat joko da OHSAS 18001 Arauan, LANEren segurtasun- eta osasun-sistemei buruzko jarraibideetan edo beste arau baliokide batean oinarritutako lan-arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistema bat ezarrita edukitzearekin, baldin eta sistema horrek ebaluatzen eta egiaztatzen badu eskatzen diren neurriak betetzen diren ala ez. Beste edozein bide egokiren bidez ere froga daiteke betebehar hori bete den.

c) Kontratatutako jardueraren arriskuak ebaluatu eta prebentzio-jarduera planifikatu.

d) Lan-arriskuen prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen V. kapituluan ezarritako kontsulta eta partaidetza nola gauzatu den arautzen duen idatzizko prozedura bat eduki edo, hala badagokio, Segurtasun eta Osasun Batzordearen bileren aktak

e) Ezarritako segurtasun-neurriak betetzen diren ala ez kontrolatzeko prozedura eduki eta, beharrezkoa bada, Langileen Estatutuan, hitzarmen kolektiboan eta abarretan langile guztien segurtasuna bermatzeko ezarritako diziplina-neurriak hartu.

f) Arriskuen ebaluazioari lotutako prebentzio-baliabideak eduki beharra eragiten duten lanpostuen eta/edo jardueren zerrenda eduki.

g) Kontratuaren betearazpenean parte hartzen duten langile guztiek, enpresakoek zein kanpokoek, sartzerakoan arrisku espezifikoei, babes-neurriei eta larrialdi-neurriei buruzko informazioa jaso dutela egiaztatu, bai eta bere jarduerari eragiten dioten arriskuei buruz behar duten prestakuntza jaso dutela ere (azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 18. eta 19. artikuluak), lan-arriskuen prebentzio planaren prozeduraren arabera. Bereziki, norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruzko beharrezko prestakuntza eman dela.

h) Norbera babesteko ekipamenduak eman izanaren egiaztagiriak eduki, beharrezkoak balira.

i) Jangela- eta atseden-zerbitzu egokiak, higiene-zerbitzuak eta aldagelak eman, langileen kopurua eta lan-eremuen kokapena kontuan hartuta.

j) Lanen garapena eta langileen kontratazioa planifikatu, langileen atseden-egunak errespetatuz eta aparteko orduak salbuespenezko kasuetan bakarrik eginez.

27.4.- Kontratistak kontratuaren betearazpenaren zati bat azpikontratatzen badu, aurreko betebeharren egiaztagiriak eskatu beharko dizkie azpikontratatuei, eta kontratazioa egin duen botere adjudikatzaileari eman.

27.5.- Langileek lanean dabiltzala istripuren bat izanez gero edo kalteren bat jasanez gero, indarreko arauek xedatutakoa bete behar du adjudikaziodunak; berak edukiko du horren erantzukizuna, inola ere ez botere adjudikatzaileak.

28.- BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK.

Kontratua betearazteko baldintza berezi hauek eta kontratuaren klausula espezifikoen 11. klausulan jasota daudenak, kontratistak zein azpikontratistek bete beharko dituzte.

28.1.- Hizkuntza-arlokoak.

28.1.1.- Botere adjudikatzailearen eta kontratistaren arteko harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratua betearazteari begira, honela ulertuko da “normalean euskara erabiliko da” esaldia:

a) Ahozko komunikazioetan, euskaraz dakiten langileek euskaraz egingo dute, hasiera batean, kontratua betearazteko zereginak direla-eta administrazio kontratatzailearekin harremanetan jartzen direnean. Botere adjudikatzaileak kontratua betearazteko langileei euskaraz eginez gero eta langile horiek hizkuntza hori behar beste ezagutzen ez badute, betearazteko ardura duen

enpresak berehala eskaini beharko ditu euskaraz aritzeko behar adinako gaitasuna duten bitartekoak eta langileak, kontratuaren ondorioz botere adjudikatzailearekin den harremana euskaraz izan ahal izateko.

b) Komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

28.1.2.- Kontratuaren xedea betearaztearen ondorioz zerbitzuak eman behar bazaizkie herritarrei edo hirugarrenekin edo herritarrekin oro har harremanak izan behar badira:

a) Enpresa kontratistak hizkuntza-arloko araudia bete beharko du eta, dagokionean, kontratuaren agirietan adierazitako hizkuntza-baldintzak, kontratua betearazten ari den bitartean. Hizkuntza-baldintzei dagokienez, enpresak ziurtatu egin beharko du Administrazioari eskatzen zaizkion baldintza berdinetan egin dezakeela.

b) Enpresa kontratista saiatuko da herritarrekin izango diren ahozko harremanak euskaraz izaten. Horretarako, enpresa kontratistako langileak euskaraz hasiko du elkarrizketa eta gero igaroko da erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzara. Enpresa kontratistak zerbitzuaren erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzan idatziko ditu ziurtagiriak, txartelak, oharrak eta zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak diren gainerako idatziak.

Nolanahi ere, behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak jarri beharko ditu kontratistak zerbitzuaren hartzaileek, uneoro, euskaraz jaso ahal izan ditzaten arreta, informazioa eta komunikazioa.

Legea edo aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboko klausulak aplikatuz adjudikaziodun berria azkendutako kontratuari adskribatutako langileekin subrogatu behar bada lan-harremanei dagokienez, eta langile horiek ez badaukate hizkuntza-gaitasun nahikorik kontratuko baldintza-agirietan hizkuntzari buruz ezarritako betekizunak betetzeko, euskara kontratuan eskatzen den bezala ezagutzen eta erabiltzen duten langileak hartu beharko ditu kontratista berriak langile subrogatuak ordezteko.

28.1.3.- Azterlanak, txostenak, proiektuak edo antzeko lanak egiteko kontratuetan, bi hizkuntza ofizialetan entregatu beharko dira lan horiek, PTPAn hala ezarriz gero, softwareen testu- eta soinuinterfazeak barne.

28.2.- Baldintza sozialak edo enpleguari buruzkoa:

28.2.1.- Lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapenak betetzea.

28.2.2.-. Baldintza orokorren 26.3 klausulan xedatua betetzea.

28.2.3.- Kontratua betearazi bitartean, langile bakoitzaren lanbide-kategoriaren arabera dagokion hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaintzea, eta inola ere ez ordaintzea soldata hori baino gutxiago.

28.2.4.- Gardentasun instituzionalaz lantzea kontratua betearaztetik eratorritako datu guztiak.

28.3.- Azpikontratistei eta hornitzaileei ordaintzen zaiela egiaztatzea:

28.3.1.- Kontratuaren arduradunari igortzea, hala eskatzen duenean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda xehatua, haien parte-hartzea perfekzionatzen denean, bai eta horietako bakoitzaren azpikontratazioaren edo horniduraren baldintzak ere, ordainketa-epearekin zuzeneko lotura baldin badute.

28.3.2.- Kontratuaren arduradunari igortzea, hala eskatzen duenean, aurreko puntuan azaldu diren azpikontratistei edo hornitzaileei ordaindu izanaren frogagiria, behin prestazioa amaituta, SPKLren 216. artikuluan eta merkataritza-eragiketetarako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako legezko ordainketa-epeen barruan.

29.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

29.1.- Konfidentzialtasuna

Kontratua gauzatzeko kontratistak eskuragarri duen informazio guztiak izaera konfidentziala izango du. Kontratistak eta kontratua gauzatzeko atxikitzen dituen bere ardurapeko langileek ezin dute inolako informaziorik erabili norbere intereserako, ez eta hirugarrenei eskuratzeko ere, baldin eta SPRIk baimentzen ez badu. Hala, eskura dituzten bitarteko guztiak ezarriko dituzte informazioa konfidentzialtasunez eta isilpean gordetzeko.

29.2.- Lizitazio-prozeduran datu pertsonalak tratatzea

Lizitazio-prozeduran lizitatzaile bakoitzak ematen dituen datu pertsonalak (beren legezko ordezkarienak, kontaktuzko pertsonenak eta lantaldearenak barne) eta adjudikazioduna izanez gero lizitatzaileak berak kontratua formalizatzeko eta/edo gauzatzeko ematen dituenak SPRIk tratatuko ditu lizitazioan partaidetza kudeatzeko eta, adjudikaziodunaren kasuan, alderdien artean definitzen den kontratua formalizatu, kudeatu eta behar bezala kontrolatzeko. Hori guztia kontratazio publikoaren arloan aplikatzeko araudian oinarrituta egingo du eta lizitatzaile adjudikaziodunari dagokionez, alderdien artean ezartzen den kontratu-harremanean funtsatuta.

Hirugarren interesdunen datuak ematen direnean, lizitatzaileek eta adjudikaziodunak datuak emateko legezko eskakizunak betetzen dituztela bermatuko diote SPRIri.

Datu pertsonalak honako hauei bakarrik jakinaraziko zaizkie: (i) SPRIk kontuan hartu behar dituen legezko eginkizunak betetzeko jakinarazpena egin behar zaien erakundeei eta/edo organismo publikoei; (ii) prozedurako interesdunei, baldin eta kontratazio publikoko aplikazioko araudiaren arabera lortzeko eskatzen badute. Datuak nazioartean transferitzeko aurreikuspenik ez dago.

Testuinguru honetan, idatziz jasota uzten da, berariaz bestelakoa adierazi ezean, datu horiek ematea eta, ondoren, aipatu diren baldintzetan jakinaraztea nahitaezkoa dela eta ez badira ematen edo datu okerrak emanez gero, lizitazioan partaidetza kudeatzea eta, hala badagokio, kontratua burutzea ezinezkoa izan daitekeela.

Lizitatzaile bakoitzak emandako datu pertsonalak kontratazio-prozedura behar bezala garatzeko ezinbesteko denboraz gordeko dira, eta gordetzeko epe gehigarriak erantsiko zaizkio SPRIk legezko eskakizunak bete ditzan. Adjudikaziodunaren kasuan, emandako datu pertsonalak kontratua behar bezala gauzatzeko nahitaezko denboraz gordeko dira, eta, beharrezkoa denean, epe gehigarriak erantsiko zaizkio SPRIk legezko eskakizunak bete ditzan.

Interesdunek eskubidea izango dute, dagokienean, (i) datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, eramateko edo tratamenduaren kontra egiteko. Xede horrez, posta elektroniko bat bidaliko dute honako helbide honetara: lopd@spri.eus; eta (ii) SPRIn datuak babesteko delegatuarekin jar daitezke harremanetan hurrengo helbide elektroniko honetan: dpd@spri.eus.

Halaber, interesdunek Datuak Babesteko Euskal Agintaritza erreklamazioa aurkezteko eskubidea dute, batez ere, eskubideak erabiltzean gogobeteta gelditu ez badira.

29.3.- Kontratua gauzatzen ari den bitartean datu pertsonalak tratatzea

Datu pertsonalak tratatzeari eta datu horiek aske zirkulatzeari dagokionez pertsona fisikoak babesteko, adjudikaziodunak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (aurrerantzean, "**DBEO**"), Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (aurrerantzean, "**DB-EDBLO**") eta datu pertsonalak babestearen arloan Estatuko eta Europar Batasuneko beste edozein arauketan aurrez ikusitakoaren ondoriozko eskakizunak bete beharko ditu, baldin eta jardueren esparruan, bere kabuz eta erabakiz, tratamenduaren arduradun gisa datu pertsonalak tratatzeko orduan kontratuaren indarraldian aplikaziokoak badira.

Edukia kontuan hartuta, kontratua gauzatzean adjudikaziodunak datu pertsonalak SPRIren eta/edo hirugarren erakunde baten kontura tratatu behar baditu eta, ondorioz, tratamenduaren eragilea bada, tratamenduaren eragilea/eragileordea den neurrian, SPRIrekin dagokion kontratua sinatuko du ezinbestez DBEOren 28. artikuluak zehazten duen edukiari eta irismenari jarraikiz.

Kontratu hori SPRIren eta adjudikaziodunaren artean zerbitzu-kontratua sinatzen den une berean izenpetuko da.

Nolanahi ere, kontratuak xedatzen duena gorabehera, lizitazio honen helburu den kontratazioa dela bide, adjudikaziodunak aintzat hartuko ditu honako aurreikuspen hauek:

a) DBEOn, DB-EDBLOn eta datuak babesteko gainerako arauetan xedatutakoa beteko du, betiere kontratuaren indarraldian aplikatzekoak badira.

b) Datu pertsonalak agiri honetan eta/edo kontratazio hau arautzen duen preskripzio teknikoen agirian izendatutako helburuetarako baino ez dira tratatuko.

c) Kontratua formalizatu baino lehen, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, datu pertsonalen tratamenduan euskarri gisa erabiliko diren zerbitzarien kokapen fisikoa eta datu pertsonal horiekin lotutako zerbitzuak nondik emango diren identifikatzeko.

d) Aurreko c) letran azaltzen den erantzukizunpeko adierazpenean eman den informazioari dagokionez, kontratuaren indarraldian gertatzen den edozein aldaketa jakinaraziko du.

e) Datu pertsonalak tratatzeko SPRIren dokumentuen bidezko argibideei bakarrik erreparatuko die.

f) DPEOk eta DB-EDBLOk xedatzen dituzten informazio-eskakizunak eta interesdunaren baimena eskuratzea behar bezala beteko ditu.

   Xede horrez, bidezkoa denean, adjudikaziodunak behar diren bitartekoak erabiliko ditu (adibidez, interesdunekin harremanak ardazteko inprimakietan eta bestelako agirietan informazio-klausulak, etab.) eta, nolanahi ere, honako hauek aipatuko ditu: (i) datuak SPRIren eta/edo hirugarren erakundearen kontura tratatzen direla eta, ondorioz, tratamenduaren eragilea dela; eta (ii) horrenbestez, SPRIren eta/edo hirugarren erakundearen datu pertsonalak tratatzeko eragilea den neurrian, lehenengoak izango dira beren-beregi arduradun bakarrak. Adjudikazioduna tratamenduaren eragilea/eragileordea baino ez da izango.

g) Bere ardurapeko pertsonek datu pertsonalak tratatzeko baimena badute, konfidentzialtasunez egiten dutela bermatuko du.

h) Segurtasun-maila egokia bermatzeko arlo teknikoan eta antolakuntzazkoan neurri aproposak aplikatuko ditu, teknologiaren egoera, aplikazioaren kostuak eta tratamenduaren izaera, irismena, testuingurua nahiz helburuak eta pertsona fisikoen eskubideetarako eta askatasunetarako probabilitate- eta larritasun-arrisku aldakorrak kontuan hartuko ditu. Besteak beste eta adierazpen modura baino ez, honako neurri hauek balioetsiko dira:

   - Datu pertsonalei izengoitia jartzea eta enkriptatzea.
   - Tratamendu-zerbitzuen eta -sistemen konfidentzialtasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta erresilientzia iraunkorrak bermatzeko neurriak.
   - Gorabehera fisikoa edo teknikoa dagoenean, datu pertsonalak azkar berreskuratu eta eskuratzeko neurriak.

- Tratamenduaren segurtasuna bermatze aldera ezarrita dauden arlo teknikoko eta antolakuntzazko neurrien eraginkortasuna erregulartasunez egiaztatzeko, ebaluatzeko eta baloratzeko prozesuak.

i) SPRIk hala eskatzen duenean, datuak babestearen arloan eskakizunak bete dituela frogatzeko honako hauek aurkeztuko ditu: (i) SPRIren eta/edo hirugarren erakundearen kontura egindako tratamenduaren jarduera-kategoria guztien erregistroari buruzko kopia, baldin eta adjudikazioduna tratamendu horien eragilea bada; eta (ii) erakunde kontratatzaileak komenigarritzat jotzen duen beste edozein agiri, baldin eta SPRIren eta/edo hirugarren erakundeen kontura kontratistak egindako datu pertsonalen tratamenduarekin lotuta badago eta bera tratamendu horren eragilea bada.

j) SPRIren eta hark baimendutako beste auditore baten auditoriak ahalbidetu eta horietan lagunduko du, ikuskapenak barne.

k) Segurtasun-neurriak praktikan jarri eta ikuskatzearen zuzeneko arduraduna edo arduradunak jakinaraziko dizkio SPRIri.

l) Langileei trebatu eta berri emango die datuak babestearen arloan indarreko aplikazioko araudiak ezartzen dituen eskakizunei buruz.

Aurreko a)tik d)ra bitarteko letretan ezartzen diren eskakizunak funtsezko kontratu-betebeharrak izango dira SPKLren 211.1.f) artikuluak aurrez ikusten duenerako, beraz, ez badira betetzen kontratua SPRIren borondatez suntsiarazi ahalko da.

30.- ZIGOR-ARRISKUAK ETA LEHIAREN AURKAKO JARDUKETAK PREBENITZEKO BETETZE-SISTEMA

Pertsona juridikoen zigor-erantzukizunari buruz Zigor Kodean zehazten den araubidea SPRIrentzat aplikaziokoa ez izatearen kalterik gabe, SPRIko administrazio-organoak Zigor Arriskuak eta Lehiaren aurkako Jarduketak Prebenitzeko Sistema bat ezarri du, kultura etikoak eta arauemaileak eta delitu izan daitekeen edozein jokabideren aurka zero tolerantziak bultzatuta, bere Bikaintasun Politikan eskatutako konpromiso bat baita.

Ildo horri jarraikiz, gardentasunaren, korporazioko gobernu onaren eta arauak betetzearen oinarrizko printzipioei erreparatzeko, kontratistak adierazten du Jokabideari buruzko Kodea, Salaketetarako Kanalari buruzko Protokoloa eta Irregulartasunak Detektatutakoan Jarduteko Protokoloa ezagutzen dituela. Horiek guztiak SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren webgunean daude (https://www.spri.eus/es/portal-transparencia/grupo-spri/?fwp_epigrafe_ptransparencia=pt08). Hala, irismena eta edukia ulertzen ditu, eta kontratuaren funtsezko baldintza gisa, onartzen du dokumentu haietako balioak eta eskakizunak betetzea.

31.- EGINDAKO LANEN JABETZA ETA JABETZA INDUSTRIAL ETA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK

31.1.- Lanen jabetza

Edozein fasetan egindako lanak botere adjudikatzailearen jabetzakoak izango dira, eta horrek, ondorioz, aukera izango du edozein unetan prestazioetako batzuk ematea aldarrikatzeko, betiere berau egiteko behin betiko programarekin bat badator eta lanak behar bezala egitea kaltetzen ez badu.

Era berean, kontratistak prestazioa aurretik hartzeko eskatu ahal izango du, eta botere adjudikatzailearen mende geldituko da harrera onartzea.

31.2.- Jabetza industriala eta intelektuala

Jabetza intelektual edo industrialeko eskubide baten babespean dauden produktuak garatzea eta eskuragarri jartzea helburu duten zerbitzu-kontratuetan, eskubide hori botere adjudikatzaile kontratatzaileari lagako zaio.

Ondorioz, SPRIk, ekoizpenaren jatorrizko formatuaz gain, jabetza intelektualaren eskubideak eta, bereziki, erreproduzitu, banatu, jendaurrean jakinarazi, lana edo produktua eraldatu eta ekonomikoki ustiatu daitezkeen gainerakoen eskubideak eskuratuko ditu. Jabetza intelektualaren eskubide horiek sinatzen den egunean dagoen edozein ustiapen- eta/edo euskarri-modalitatetan esklusiboak dira Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bateginak aurrez ikusten duen gehieneko epean. Jabetza horren lurralde-eremuari dagokionez, munduko herrialde guztietara zabalduko da, salbuespenik gabe.

Eskubide horren titulartasuna azken lan edo produktuaz gain, beste hauetara ere zabalduko da: aurretik egindako lanak, zirriborroak, eskemak eta agiriak, diagrama-fluxuak eta, oro har, garatzeko jabetza intelektualaren eta industrialaren xede izan daitezkeen lanak.

Kontratistak zehatz-mehatz **jakinarazi behar dio** SPRIri hirugarrenen edozein legezko eskubide eta erreserbari buruz, baldin eta kontratatutako lanaren emaitzan sartu behar diren aurretiazko ekarpenei eragiten badiete. Kontratistaren betebeharra da aipatu diren eskubideen eta erreserben araberako elementu guztien eskuragarritasun osoa bermatzea, eta bere gain hartu beharko ditu betetzeak dakartzan kostuak.

Kontratistak erantzukizun osoa izango du eta bere kargura suertatuko da eskubideei buruzko erreklamazio oro. Hala, SPRIri kalte-ordaina eman beharko dio erreklamazioak jartzearen ondorioz eragin daitezkeen kalte-galera guztiak direla eta, izan daitezkeen ordezkaritza- eta defentsa-gastuak barne.

Kontratuaren xedea **aplikazio informatikoak** egin eta garatzea denean, aurreko paragrafoko hirugarrenen legezko eskubideei eta erreserbei buruzko informazioak halabeharrez aipatu beharko ditu erabilitako iturri guztiak, beren bertsioa eta jatorria, osagai bakoitzari aplikatutako lizentziak eta konpilazioan edo egikaritzean erabiltzen den ala ez.

Kontratistak edo egiteko orduan parte hartu duen edozein pertsonak ezingo du lana berez erabili eta hirugarrenei ez dizkie kontratatutako azken lanaren, filmaketaren, testuen, marrazkien, argazkien edo parekoen zatirik emango; halaber, ezingo du edukia oso-osorik edo zati batean argitaratu berariaz eta idatziz SPRIk baimendu gabe. Era berean, ez da jabetza industrialaren edo intelektualaren edozein eskubide

erregistratzen saiatuko, baldin eta kontratuaren berdinak edo antzekoak badira, eta betebehar horrek indarrean jarraituko du amaitzen denean ere. Edozein kasutan, kontratista izango da eskakizun horiek ez betetzetik eratorritako kalte-galeren arduraduna.

Kontratistak SPRIrekin lankidetzan jarduteko eta eskatzen zaion dokumentazio guztia sinatzeko konpromisoa hartzen du, SPRIk klausula honetan aipatu diren eskubide guztiak eroste eta/edo babeste aldera.

32.- ZEHAPENAK

Legez kontratistari dagozkion akatsak zuzentzea eta kalte-galerengatik kalte-ordaina jasotzea gorabehera eta SPKLren eta baldintza orokorren 39. klausularen arabera kontratua suntsiaraztea baztertu gabe, kontratazio-organoak kontratistari zehapenak jarri ahalko dizkio honako arrazoi hauek direla eta:

32.1.- Arrazoiak eta zenbatekoak

a) Kontratuaren berariazko klausulen 13.1 klausulan azaldutako ez-betetzeak: klausula horretan azaltzen diren zenbatekoak.

b) Epe osoa edo epe partzialak betetzean atzeratzea: SPKLren 193.3 eta 193.4 artikuluetan aipatutako zenbatekoak, kontratuaren berariazko klausulen 13.2 klausulan beste batzuk adierazten direnean izan ezik.

c) Funtsezko kontratu-eskakizunak ez betetzea: kontratua gehieneko prezio edo aurrekontu mugatzailearen **% 1** eta **% 10** bitartean, ez-betetzearen larritasunaren eta, bidezkoa bada, errepikatzearen arabera.

d) Kontratuaren berariazko klausulen 12.1.4 klausulan xedatutakoa ez betetzea: azpikontratuaren zenbatekoaren **% 50era** arte.

e) Baldintza orokorren 28.3 klausulan xedatutakoa ez betetzea: atzerapen-egun bakoitzeko zenbatekoa kontratuaren gehieneko prezio edo aurrekontu mugatzailearen **% 0,01** izango da.

f) Eskaintzaren bidez onartu diren konpromisoak ez betetzea, baldin eta balorazio-irizpide gisa kontuan hartu badira: kontratuaren gehieneko prezio edo aurrekontu mugatzailearen **% 1 eta % 10** artean, ez-betetzearen larritasunaren eta, hala badagokio, errepikatzearen arabera.

g) Kontratuaren berariazko klausulen 12.2 klausulari jarraikiz, ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko eskakizunak ez betetzea (xede horrez, 12.2.2.1 klausula ez betetzat joko da ordainsariak ez ordaintzea edo behin eta berriz atzeratuta egitea ala modu larrian eta engainagarrian ordainsariak hitzarmen kolektiboan ezartzen dituenak baino txikiagoak izatea): kontratuaren gehieneko prezio edo aurrekontu mugatzailearen **% 0,5 eta % 10** bitartean, ez-betetzearen larritasunaren eta, hala badagokio, errepikatzearen arabera.

h) Laneko segurtasun- eta osasun-plana aurkezteko epea ez betetzea, hala eska daitekeenean: atzerapen-egun bakoitzeko kontratuaren gehieneko prezio edo aurrekontu mugatzailearen 5.000,00 euroko euro batekoa izango da.

32.2.- Prozedura

Zehapenak kontratazio-organoaren ebazpenez jarriko dira, eta erabakitzeko prozedurak honako jarduketa hauek aurrez ikusten ditu:

a) Kontratuaren arduradunaren txostena, antzemandako ez-betetzeak identifikatzeko eta zehapenaren zenbatekoa proposatzeko.

b) Bost (5) egun baliodunetan kontratistari entzutea, egokitzat jotzen dituen alegazioak egin ditzan.

c) Kontratazio-organoaren ebazpena.

d) Kontratistari oso-osorik edo zati batean ordaindu behar zaizkion zenbatekoetatik edo ordainketatik kendu ezin daitekeenean osatu duen zenbatekotik zehapenaren kopurua biltzea.

33.- PREZIOA ORDAINTZEA

Prezioa honela ordainduko da:

33.1.- Emandako edo gauzatutako zerbitzuak ziurtatzea

33.1.1.- Kontratistak kontratuaren berariazko klausulen 19.5 klausulan azaltzen den erregistroan aurkeztu beharko ditu zerbitzuen ziurtagiriak honako datu hauekin:

a) Espedientearen kodea.

b) Kontratistaren izena eta IFZ.

c) Itundutako prezioen arabera emandako edo gauzatutako zerbitzuen zerrenda zenbatetsia (BEZik gabe).

a) Azpikontratistak gauzatutako prestazioen datuak: azpikontratisten izenak, egindako lana, ordaintze-epearekin zuzeneko harremana duten baldintza hizpatuak.

d) Zerbitzuaren denboraldia (ziurtapena partziala bada).

33.1.2.- Epea eta baldintzak

Honako epe eta baldintza hauetan aurkeztuko dira:

b) Berariazko klausulen 5.2 klausulak prezioaren ordainketa bakarra aurrez ikusten badu: ziurtagiri osoa aurkeztuko da kontratua amaitzen denetik zenbatzen hasita, hurrengo hogeita hamar (30) egunetan.

c) Berariazko klausulen 5.2 klausulak prezioaren ordainketa partzialak aurrez ikusten baditu: ziurtagiri partzialak aurkeztuko dira klausulan ezartzen diren aldizkako epealdi bakoitza amaitu eta hurrengo hogeita hamar (30) egunetan.

33.2.- Adostasuna

Kontratua enpresa kontratistak bete duela ulertuko da, horrek helburua oso-osorik bertan ezarritako baldintzen arabera gauzatu badu, bertan zehaztutako baldintzekin bat etorriz eta SPRI asebeteta egonik.

Egiaztatzeko adjudikaziodunak txosten bat egin beharko du kontratuaren xede diren lanak amaitu dituela adierazteko; SPRIko kontratuaren arduradunak, berriz, egiaztapen-txostena gauzatu beharko du.

Onespen-agiriaren kopia jasotakoan, kontratistak faktura kontratuaren berariazko klausulen 19.5 klausulan adierazten den erregistroan aurkeztuko du.

33.3.- Ordainketa

Botere adjudikatzaileak fakturak hartu eta hurrengo hogeita hamar (30) egunetan ordaindu beharko du prezioa, betiere aurretik kontratuaren arduradunak ontzat ematen baditu.

Ordainketaren eskakizuna betetzen atzeratzen bada, aurreko paragrafoan aipatzen den epea betetzen denetik aurrera kontratistari berandutze-interesak eta kobrantza-kostuengatiko kalte-ordaina ordaindu beharko dizkio, Merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeak aurrez ikusitako baldintzetan.

Nolanahi ere, interesak sortzeko epea zenbatzen hasteko kontratistak emandako zerbitzuen ziurtagiriak aurkeztuak izango ditu, eta fakturak kontratuaren berariazko klausulen 19.5 klausulan adierazitako erregistroan egongo dira. Kontratistak faktura SPRIren erregistroan aurkezteko hogeita hamar (30) eguneko epea betetzen ez badu, interesak faktura jasotzen denetik, bidekoa bada, botere adjudikatzaileak adostasuna onetsi eta ordainketa egin gabe hogeita hamar (30) egun igarotakoan hasiko dira sortzen.

34.- KONTRATUA ALDATZEA

34.1.- Baldintzak

Kontratua gauzatzen denean, kontratazio-organoak kontratuaren berariazko baldintzen 16. klausulan eta SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezartzen diren kasuetan bakarrik aldatu ahal izango du.

Interes publikoko arrazoitzat jotzen dira, besteak beste, dagokion aurrekontu-ekitaldian aurrekontu-egonkortasunaren xedea lortzeko direnak.

34.2.- Prozedura

34.2.1.- Nolanahi ere, aldaketa erabakitzeko prozeduran honako jarduketa hauek sartzen dira:

a) Traktu bakarreko kontratuak eta traktu jarraituko kontratuak kontratuaren xedea osatzen duten unitateak zehatz-mehatz ezarrita badaude:

1) Kontratuaren arduradunaren txostena, aldaketa eskatzen duten interes publikoaren arrazoiak, irismen kualitatiboa eta kuantitatiboa, inguruabarrak eta inguruabar horien egiaztapen objektiboa azaltzeko.

2) Prozeduraren hasieran onetsi den kontratazio-organoaren ebazpena.

3) Kontratistarentzat bost (5) egun balioduneko entzunaldia.

4) Proiektuaren edo zehaztapen teknikoen idazlearentzat hiru (3) egun balioduneko entzunaldia; bigarren kasuan, kontratazio-organotik kanpoko hirugarrenak prestatu baditu bakarrik.

5) Txosten juridikoa.

6) Kontratazio-organoaren ebazpena eta kontratistari jakinaraztea.

7) Aldaketaren iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzea, kontratistaren alegazioekin eta, bidezkoa bada, aurretik eskuratu diren txosten guztiekin batera.

8) Aldaketaren iragarkia EBAOn argitaratzea kontratua arauketa harmonizatuaren araberakoa bada (zerbitzua SPKLren IV. eranskinean bildutako bat ez denean) eta aldaketak SPKLren 205.2 artikuluko a) eta b) letretako ustezko bati erantzuten badio.

b) Unitateko prezioaren arabera traktu jarraituko kontratuak, baldin eta prestazioaren unitate guztiak kontratua gauzatzean zehatz-mehatz definitu ez badira:

1) Kontratuaren arduradunaren txostena egiazko beharrak hasieran zenbatetsitakoak baino handiagoak direla justifikatzeko eta irismen ekonomikoa zehazteko.

2) Prozeduraren hasieran onetsi den kontratazio-organoaren ebazpena.

3) Kontratistarentzat bost (5) egun balioduneko entzunaldia.

4) Txosten juridikoa.

5) Kontratazio-organoaren ebazpena eta kontratistari jakinaraztea.

6) Aldaketaren iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzea, kontratistaren alegazioekin eta, bidezkoa bada, aurretik eskuratu diren txosten guztiekin batera.

34.2.2.- Ondoren definitzen diren kasuetan, gainera, honako jarduketa hauei erreparatu behar zaie:

1) Kontratuaren gehieneko prezio edo aurrekontu mugatzailea aldatzen bada, kontratistak bermea doitu beharko du ebazpena jakinarazten zaionetik hamabost (15) egun naturaleko epean.

2) Aldaketa AKPAn aurrez ikusten ez bada, Aholku Batzorde Juridikoak txostena egingo du kontratuaren gehieneko prezio edo aurrekontu mugatzailea 6.000.000 eurokoa edo hortik gorakoa bada eta aldaketarekin % 20tik gora aldatu behar bada. Ondoz ondoko aldaketak erabakiz gero, ehuneko aldaketa guztiak aintzat hartuta egingo da.

34.2.3.- Nolanahi ere, aldaketa SPKLren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatuko da, eta SPKLren 63. eta 207. artikuluekin bat etorriz argitaratuko da.

34.3.- Ondoreak

Kontratistak ezinbestez bete beharko ditu klausula honen arabera adostutako aldaketak.

35.- AZPIKONTRATAZIOA

Kontratuaren berariazko klausulen 14.1 klausulan azpikontratazioa onartzen bada, kontratistak prestazioa zati batean gauzatzea azpikontratatu ahalko du, betiere klausulak ezartzen dituen mugen barruan eta klausula honetan xedatutakoari jarraikiz.

Kontratistak hirugarrenekin kontratuaren zati bat egitea kontratatzen badu, agiri honi eta kontratuaren baldintzei zorrozki begiratuta, kontratua gauzatzean bere gain hartuko du erantzukizun osoa, gizarte- eta lan-arloko eskakizunak betetzea barne.

35.1.- Kontratuaren arduradunari jakinaraztea

a) Kontratistak lizitazioaren fasean KAEB agiriaren II. zatiko D atala baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan azaldutako moduan bete badu eta helburua hartan adierazitako baldintza zehatzetan azpikontratazioa egitea bada, kontratuaren arduradunari bidali beharko zaio **V. ERANSKINEKO** adierazpena, behar bezala bete eta sinatuta, gutxienez, azpikontratistak lanak hasi baino bost (5) egun baliodun lehenago.

b) Kontratistak lizitazioaren fasean KAEB agiriaren II. zatiko D atala baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan azaldutako moduan bete badu, baina helburua KAEBen azaldutako baldintza desberdinetan azpikontratatzea bada edo, bestela, atala bete ez badu, kontratuaren arduradunari bidali beharko zaio **V. ERANSKINEKO** adierazpena, behar bezala bete eta sinatuta, gutxienez, azpikontratistak lanak hasi baino hamabost (15) egun baliodun lehenago.

35.2.- Azpikontratistei edo hornitzaileei ordaintzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzea

Kontratistak azpikontratistarekin edo hornitzailearekin hitzartutako ordainketa-baldintzak bete dituela justifikatu beharko du. Dena den, SPKLren 216. artikuluan ezartzen diren mugak errespetatuko dira, baldintza orokorren 28.33 klausulak eta, eta gainera, azpikontratisten kasuan, baldintza orokorren 33.1.1 klausulak d) letran xedatutakoarekin bat etorriz.

36.- KONTRATUA LAGATZEA ETA ABEE-AREN KIDEAK ALDATZEA

36.1.- KONTRATUA LAGATZEA

36.1.1.- Ustezkoak

SPKLren 98. artikuluak aurrez ikusten dituen kontratistaren oinordetza-kasuak eta SPKLren 69.9 artikuluak adierazten duen ABEEaren osaera aldatzeko ustezkoak gorabehera, kontratua honakoetan laga ahalko da:

1. Konkurtsoei buruzko Legearen testu bategina onesten duen maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, kontratistak kaudimengabezia duenean, eta oraindik konkurtsoa aitortu ez denean, baldin eta beste edozein prozeduratan kaudimengabezia aitortu ez bada.
2. Kontratista konkurtso-egoeran aitortu denean, likidazio-fasea ireki denean edo konkurtsoa aitortzeko birfinantzaketa-akordiora iristeko ala hitzarmenaren proposamen aurreratuan atxikipenak lortzeko negoziazioak hasi direla auzitegi eskudunari jakinarazten zaionean ere bai, betiere konkurtsoaren arloko legedian aurrez ikusitako baldintzetan.
3. Kontratista pertsona fisikoa denean eta kontratua amaitu baino lehen erretiratzeko nahia azaldu duenean.

36.1.2.- Prozedura

1. Kontratistak kontratuaren arduradunari lagatzeko baimena eskatzen duen idazkia bidaliko dio. Eskaerari honako agiri hauek erantsi beharko zaizkio:

   i. Kontratua lagatzeko eskaera egitea ahalbidetzen duen inguruabarra egiaztatzen duten agiriak.
   ii. Lagapen-hartzaileak SPKLren 214.2 artikuluko c) letran dauden eskakizunak betetzen dituela ziurtatzen duten agiriak.

2. Kontratazio-organoaren ebazpena prozedura hasteko.
3. Kontratuaren arduradunak egindako txostena, gutxienez kontratuaren zenbatekoaren % 20 gauzatzearen eskakizuna bete behar den edo ez zehazteko; erantzuna baiezkoa izanez gero, eskakizuna bete ote den adierazteko ere bai. Era berean, SPKLren 214. artikuluko 1. ataleko bigarren paragrafoan ageri diren mugak errespetatzen direla azalduko du.
4. Txosten juridikoa.
5. Kontratistak lagapena formalizatuko duen eskritura publikoaren zirriborra aurkeztea.
6. Lagatzea baimentzen duen kontratazio-organoaren ebazpena eta kontratistari jakinaraztea.
7. Lagatzea baimentzen duen kontratazio-organoaren ebazpena kontratatzailearen profilean argitaratzea.
8. Eskritura publikoaren bidez lagapena formalizatzea.
9. Lagapen-hartzaileak bermea Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian osatzea. Ez da lagatzaileak jarritako bermea itzuliko edo kitatuko lagapen-hartzailearena formalki eratzen den arte.

36.1.3.- Baldintzak

36.1.3.1.- Nolanahi ere, kontratazio-organoak lagapena baimendu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dira:

1. SPKLren 214. artikuluko 2. atalean dauden eskakizunak betetzea.
2. Lagatzailearen (kontratista) ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua adjudikatzeko erabakigarriak ez izatea.
3. Lagapenak eraginkortasunez ez mugatzea merkatuko lehia.

36.1.3.2.- Ez da kontratua lagatzea baimenduko kontratistaren ezaugarriak nabarmenki aldatzen direnean, baldin eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementuak badira.

36.1.3.3.- Kontratistaren (lagatzailea) eta lagapen-hartzailearen artean egindako lagapena eskritura publikoaren bidez formalizatuko da.

36.1.3.4.- Lagatzailearen bermea ez da itzuliko edo kitatuko lagapen-hartzailearena legez osatuta ez dagoen artean.

36.2.- ABEE-AREN KIDEAK ALDATZEA

36.2.1.- ABEEaren osaera aldatzearen ondorioz kideen kopurua gehitzen ala murrizten bada edo kide bat edo batzuk ordezten badira, honako jarduketa hauek gauzatu beharko dira:

1. ABEE kontratistak kontratuaren arduradunari aldatzeko baimena eskatzen duen idazkia bidaliko dio. Eskaerari honako agiri hauek erantsi beharko zaizkio:

i. ABEEaren osaera aldatzea ahalbidetzen duten inguruabarren justifikazioa.
ii. Osaera berria eta gero, ABEEak eskatzen diren kaudimenaren edo sailkapenaren eskakizunak betetzen dituela eta kide guztiek jarduteko gaitasun osoa dutela eta sektore publikoarekin kontratatzeko debekurik ez dutela ziurtatzen duten agiriak.

2. Kontratazio-organoaren ebazpena prozedura hasteko.

3. Kontratuaren arduradunak egindako txostena, gutxienez, kontratuaren zenbatekoaren % 20 gauzatu dela azaltzeko.

4. Txosten juridikoa.

5. Kontratistak osaera berriko ABEEa formalizatuko duen eskritura publikoaren zirriborra aurkeztea.

6. ABEEaren osaera aldatzea baimentzen duen kontratazio-organoaren ebazpena eta ABEEa kontratistari jakinaraztea.

7. ABEEaren osaera aldatzea baimentzen duen kontratazio-organoaren ebazpena kontratatzailearen profilean argitaratzea.

8. Eskritura publikoaren bidez ABEEa formalizatzea.

9. ABEEak berme berria Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian osatzea. ABEEak lehendik osatutako bermea ez da itzuliko edo kitatuko berria formalki eratzen den arte.

36.2.2.- ABEEaren kideren batek jarduera-adarrean bat-egiteko, banatzeko edo eskualdatzeko eragiketen ondorioz sozietate xurgatzailea, bat-egitearen ondoriozkoa, banaketaren onuraduna edo jarduera-adarraren eroslea ABEEaren kidea ez bada, baldintza orokorren 35.2.1 klausulako izapide berdinak jarraituko dira, gutxienez kontratuaren zenbatekoaren % 20 gauzatzearena izan ezik.

36.2.3.- ABEEaren kide bat edo batzuk konkurtso-egoeran aitortzen badira, nahiz eta likidazio-fasea irekita egon, kontratua gauzatzeko berme osagarri nahikoak ematearen gainean SPKLren 212.5 artikuluak xedatutakoaren ildotik, SPKLren 69.9 artikuluko c) letrak ezarritakoari erreparatuko zaio. Halakoetan honako jarduketa hauek gauzatuko dira:

1. ABEE kontratistak kontratuaren arduradunari idazki bat bidaliko dio, ABEEaren kide bat edo batzuk konkurtso-egoeran daudela ziurtatzeko agiriekin batera, honakoren bat eskatzeko:

i. Gainerako kideek kontratua gauzatzen jarraitzeko. Halakoetan, erantsi beharko dira frogagiriak ABEEak, osaera berriarekin, eskatzen diren kaudimenaren edo sailkapenaren eskakizunak betetzen dituela adierazteko.
ii. ABEEaren hasierako kideekin kontratua gauzatzen jarraitzeko, konkurtso-egoeran aitortu direnak barne.

2. Baldintza orokorren 37.2.1 klausulako 2tik 9ra bitarteko puntuetan (3. zenbakia izan ezik) deskribatutako izapideak egitea. Eta, kontratazio-organoak erabakitzen badu ABEEak kide guztiekin (konkurtsoan daudenak barne) kontratua gauzatzen jarraitzea, ABEE kontratistak berme osagarri nahikoak eman beharko ditu ebazpenean kontratazio-organoak azaldutakoaren arabera, kontratua behar bezala gauzatze aldera.

VI.- KONTRATUA AZKENTZEA

37.- HONAKO HAUEK BETETZEA: EMATEA, HARTZEA ETA LIKIDATZEA

37.1.- Ematea eta behar bezala bete dela egiaztatzea

Kontratuaren xede diren prestazioak PTPAn ezartzen diren zehaztapenen arabera emango dira, eta baldintza orokorren 8. klausulan azaldutako epeei erreparatuko zaie.

PTPAk bestelakoa adierazi ezean, hona hemen emateko epeak:

- Traktu bakarreko kontratuetan: kontratistak prestazio guztiak kontratuaren arduradunari entregatzen dizkion egunean, PTPAk ezartzen duen moduan eta formatuan.
- Traktu jarraituko kontratuen kasuan: kontratua gauzatzeko epe osoa amaitzen den egunean.

Emate-egunetik, gehienez, hamabost (15) egun baliodunen epean, kontratuaren arduradunak egiaztapen egokiak egingo ditu hitzartutako baldintzak behar bezala bete direla ziurtatzeko eta egiaztapen-txostena emango du honako alderen batean:

a) Bete dela uste badu: kontratua hartzea eta hartarako eguna proposatuko ditu —betiere kontratuaren klausula espezifikoen 15.2 klausulan azaldutako epearen barruan— eta txostena kontratistari helaraziko dio.

b) Bete ez dela uste badu: ez-betetzeak eta/edo akatsak identifikatuko ditu, eta zuzentzeko jarraibideak emango ditu. Kontratistari txostena bidaliko dio, eta bertan definituta egongo da zuzentzeko epea. Gainera, txosteneko ondorioen gainean bost (5) egun balioduneko epean erreklamazioa idatziz egiteko aukeraren berri emango dio.

Kontratistak epearen barruan erreklamaziorik egiten ez badu, jarraibideekin eta akatsak zuzentzeko beharrarekin ados dela ulertuko da.

Kontratistak epearen barruan erreklamazioak egiten baditu, egiaztapen-txostena eta erreklamazioa kontratazio-organoari helaraziko zaizkio, eta hamabost (15) egun balioduneko epean ebatzi beharko du.

37.2.- Akatsak zuzentzea

37.2.1.- Zuzentze-epea igarotakoan, kontratuaren arduradunak egiaztapen egokiak egingo ditu emandako jarraibideak behar bezala bete direla ziurtatze aldera, eta gehienez hamar (10) egun baliodunetan bigarren egiaztapen-txostena emango du:

a) Behar bezala bete dela uste badu: baldintza orokorren 37.1 klausulako a) atalean azaltzen diren jarduketei erreparatuko die.

b) Ez dela bete uste badu: ez-betetzeak eta/edo akatsak identifikatuko ditu, eta kontratistari nahiz kontratazio-organoari egiaztapen-txostena bidaliko die, zehapenak jartzeko proposamenarekin batera. Bidezkoa bada, inguruabarrak kontuan hartuta, honako jarduketaren bat gehituko du:

1) Kontratua suntsiarazteko prozedura hastea eta bermea konfiskatzea; kontratistak berak konfiskatutako bermearekin iristen ez dena ordaintzea botere adjudikatzaileareen kalte-galerei erantzuteko.

2) Zuzentzeko epe berria ematea eta kontratuaren gehieneko prezio edo aurrekontu mugatzaileareen % 25era arteko zehapena jartzea.

Azpikontratistak bigarren epe horretan zuzentzen ez badu, kontratua suntsiaraziko da, eta bermea konfiskatuko da. Gainera, botere adjudikatzaileari kalte-galerengatik ordaindu beharko dio konfiskatutako bermearekin iristen ez den zenbatekoan.

37.2.2.- Obra-proiektuak egiteko kontratuetan akatsak zuzentzeko eta gabeziak konpontzeko SPKLren 315. artikulua kontuan hartuko da.

37.3.- Harrera

Nolanahi ere, hartu arte, kontratistak hitzartutako baldintzak behar bezala betetzearen aurrean erantzungo du, eta hala izango da nahiz eta kontratuaren arduradunak aldeko egiaztapen-txostena eman edo zerbitzu partzialen ziurtagiriekin ados azaldu.

Kontratuaren arduradunak hitzartutako baldintzak behar bezala bete direla uste duenean kontratua hartuko da.

37.4.- Likidazioa

Kontratuaren izaerak hala eskatzen duenean eta/edo SPKLren 309.1 artikuluko bigarren paragrafoko aurreikuspena kontratuaren berariazko klausuletan berariaz jasotzen denean, harrera- edo adostasun-aktaren egunetik zenbatzen hasita, hogeita hamar (30) eguneko epean, kontratazio-organoak likidatzea erabakiko du. Hala, kontratistari jakinarazi eta, bidezkoa bada, ordainduko dio, baldin eta faktura harrera-egunaren ondoren aurkeztu ez bada.

Kontratistak faktura harrera-dataren ondoren aurkeztu badu, hogeita hamar (30) eguneko epea faktura kontratuaren berariazko klausulen 19.5 klausulan azaldutako erregistroan aurkezten denetik hasiko da zenbatzen.

Likidazioaren saldoa ordaintzen berandutzen bada, kontratistak berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen gaineko kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeak aurrez ikusitako baldintzetan.

38.- BERME-ALDIA ETA BERMEA ITZULTZEA

38.1.- Kontratistaren betebeharrak

Kontratuaren berariazko klausulen 15.3 klausulan ezartzen den berme-aldian kontratistak bere kargura konpondu beharko ditu egindako lanek dituzten akats guztiak, baldin eta akats horiek idatziz ziurtatu eta jakinarazten badira eperaren barruan. Epea kontratua hartu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

Akatsa epearen barruan eta forman zuzentzeko eskatu ondoren, kontratistak konpontzen ez badu, botere adjudikatzaileak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 100. artikuluko nahitaezko betearazpen-bitartekoak erabili ahalko ditu.

Berme-aldia botere adjudikatzaileak forman eta epearen barruan zuzentzea erreklamatu gabe igarotzen bada, kontratista emandako prestazioaren erantzukizunaz salbuetsita geldituko da, obra-proiektuak egiteko kontratuetarako SPKLren 314. eta 315. artikuluek xedatutakoaren kalterik gabe.

38.2.- Bermea itzultzea

38.2.1.- Kontratuaren berariazko klausulen 15.3 klausulan berme-aldirik ezartzen ez bada, kontratua likidatzeko erabakiak bermea itzuli edo kitatzeko agindua izango du.

38.2.2.- Kontratuaren berariazko klausulen 15.3 klausulak berme-aldia ezartzen badu, aldi hori amaitzen denean, honako jarduketa hauek gauzatuko dira:

a) Berme-aldian forman eta epearen barruan ez bada erreklamaziorik egin edo eginda ere, zuzendu badira: kontratazio-organoak ebazpena emango du bermea itzuli edo kitatzeko.

Ebazpena gehienez bi (2) hilabeteko epean eman eta jakinaraziko zaio kontratistari. Epea berme-aldia amaitzen denean hasiko da zenbatzen.

b) Berme-aldian forman eta epearen barruan erreklamazioak egin ondoren, kontratistak zuzendu ez baditu: kontratuaren arduradunak kontratistari jarraibide egokiak emango dizkio akats horiek behar bezala konpontzeko. Horretarako, epe bat emango da, eta epe horren barruan oraindik kontratistak bere ardurapean izango du lanen eta prestazioen nahiz zerbitzuen kalitate teknikoa SPKLren 311. artikuluko 2. atalean deskribatutako baldintzetan, berme-aldia luzatzeagatik zenbatekoren bat jasotzeko eskubiderik gabe.

Kontratistak kontratuaren arduradunak emandako jarraibideak epearen barruan betetzen ez baditu, bermea konfiskatuko da.

38.2.3.- Kontratuaren berariazko klausulen 8.5 klausulak bermearen zati proportzionala itzultzea edo kitatzea onartzen badu, baldintza orokorren 38.2 artikuluak xedatutakoaren arabera jardungo da. Berme-aldia ezarri bada, zati batean hartu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

38.2.4.- Kontratua amaitu zenetik urtebete igarotzen bada kontratistari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik harrera formalik eta likidaziorik gabe, bermeak itzuli edo kitatuko dira SPKLren 110. artikuluan hizpide dituen erantzukizunak argitzen direnean. Kontratuaren balio zenbatetsia 100.000,00 eurotik beherakoa bada eta kontratista SPKLren 111.5 artikuluan dauden aipamenen arabera ETEa bada, epea urtebetetik sei (6) hilabetera murriztuko da.

39.- SUNTSIARAZTEA

SPKLren 211. eta 313. artikuluetan, herritarren aldeko zuzeneko prestazioak ematen dituzten kontratuen kasuan 294. artikuluko c), d) eta f) letretan eta, bidezkoa bada, kontratuaren berariazko klausulen 17. klausulan ezarritakoez gain, hona hemen kontratua suntsiarazteko beste arrazoi batzuk:

a) Botere adjudikatzailearen zuzendaritza- eta ikuskapen-ahalmenak oztopatzea, SPKLren 190. artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz.

b) Konfidentzialtasuna errespetatzeko kontratistaren eskakizuna ez betetzea.

VII.- GORABEHERAK ETA IKUSKAPENA

40.- GORABEHERAK

40.1.- Kontratazio-organoaren eskumenak

Kontratazio-organoak ebatziko ditu auzigaiak honako arlo hauetan: administrazio-kontratuen interpretazioa, betetzeko orduan izan daitezkeen zalantzak ebaztea, aldaketa, kontratua gauzatzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna adieraztea, gauzatzea etetea, suntsiaraztea eta ondoreak. Erabakiek administrazio-bidea amaituko dute, eta haien aurka aukeran organo beraren aurrean berraztertzeko errekurtsoa jarri ahalko da hilabeteko epean edo administrazioarekiko auzien errekurtsoa bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

40.2.- Prozedura

Agiri honetan eta sektore publikoko kontratuen araudian kasu berezietarako ezartzen dena izan ezik, kontratua gauzatzean eta azkentzean botere adjudikatzailearen eta kontratistaren artean sor daitezkeen gorabeherak kontraesaneko espedientearen bidez ebatziko dira, eta nahitaez honako jarduketa hauek izango ditu barne:

a) Botere adjudikatzailearen proposamena edo kontratistaren eskaria.

b) Kontratistarentzat bost (5) egun balioduneko entzunaldia.

c) Kontratuaren arduradunaren txostena.

d) Bidezkoa bada, aholkularitza juridikoaren txostena.

e) Kontratazio-organoaren ebazpen arrazoitua eta kontratistari jakinaraztea.

Justifikatzen duten interes publikoko arrazoiak edo gorabeheren izaerak hala eskatu ezean, prozedura hau izapidetzeko kontratua etengo da.

41.- EGINTZEN IKUSKAPEN-ARAUBIDEA

SPKLren 44.1 artikuluan dauden kontratuei dagokienez, SPKLren 44.2 artikuluan aurrez ikusitako egintzen aurrean, kontratazioaren arloan errekurtso berezia ebazteko eta behin-behineko neurriak erabakitzeko organo eskuduna Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratu Errekurtsoen Administrazio Organoa da.

Egintzak SPKLren 44.1 artikuluan dauden zerbitzu-kontratuei ez badagozkie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen (112., 121. eta 123. artikuluak) eta Administrazio Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen ohiko errekurtsoa izan dezakete.

ERANSKINAK

.

I. ERANSKINA

LAN-KONTRATUEN BALDINTZEI BURUZKO DATUAK

Zerbitzu-kontratua: (*azaldu kontratuaren xedea*) [OHARRA: subrogazioa dagokionean, ikus SPKLren 130. artikulua]

Hitzarmen kolektiboa	Lanbide kategoria	Kontratu mota	Lanaldia	Antzinatasun data	Kontratuaren epemuga	Urteko ordainsari gordina	Indarreko itunak

.....(e)n, 20….ko .....aren ……(e)(a)n

Sinadura:

II.1 ERANSKINA

KONTRATAZIO AGIRI EUROPAR BAKARRA (KAEB)

AURKIBIDEA

Inprimaki honek honako zati eta atal hauek ditu:

I. zatia. Kontratazio-prozedurari eta botere adjudikatzaileari edo erakunde adjudikatzaileari buruzko informazioa

II. zatia. Operadore ekonomikoari buruzko informazioa.

- A atala: Operadore ekonomikoari buruzko informazioa.
- B atala: Operadore ekonomikoaren ordezkariei buruzko informazioa.
- C atala: Beste erakunde batzuen gaitasunetara jotzeari buruzko informazioa.
- D atala: Azpikontratistei buruzko informazioa, nahiz eta operadore ekonomikoa beren gaitasunean ez oinarritu.

III. zatia. Baztertzeko arrazoiak:

- A atala: Zigor-kondenen arrazoiak.
- B atala: Gizarte Segurantzako kotizazioak edo zergak ordaintzeari dagozkion arrazoiak.
- C atala: Kaudimenik ezaren, interes-gatazken edo profesionaltasun gabeziaren arrazoiak.
- D atala: Botere adjudikatzailearen edo erakunde adjudikatzailearen estatu kideari dagokion legedi nazionalean aurrez ikusita egon daitezkeen bestelako bazterketa-arrazoiak.

IV. zatia. Hautatzeko irizpideak:

- Sección α: Hautaketa-irizpide guztiei buruzko azalpen globala.
- A atala: Egokitasuna
- B atala: Ekonomia- eta finantza-kaudimena.
- C atala: Gaitasun tekniko eta profesionala.
- D atala: Kalitatea ziurtatzeko sistemak eta ingurumena kudeatzeko arauak.

V. zatia. Gaitutako hautagai-kopurua murriztea.

VI. zatia. Azkeneko adierazpenak.

I. zatia. Kontratazio-prozedurari eta botere adjudikatzaileari buruzko informazioa

KONTRATAZIO-PROZEDURARI BURUZKO INFORMAZIOA

I. zatian eskatzen den informazioa KAEB sortu eta betetzeko KAEB zerbitzu elektronikoa erabiltzean automatikoki eskuratuko da. Honako helbide elektroniko honetan aurkitu ahal izango da:-https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es

Kontratatzailearen identitatea[1]	**Erantzuna**
Izena:	[ ]
Zer kontratazio da?	**Erantzuna**
Kontratazioaren izenburua edo deskribapen laburra[2]:	[ ]
Botere adjudikatzaileak edo erakunde adjudikatzaileak esleitutako espedientearen erreferentzia-zenbakia (hala badagokio)[3]:	[ ]

II. zatia. Operadore ekonomikoari buruzko informazioa

A: OPERADORE EKONOMIKOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Identifikazioa	**Erantzuna**
Izena:	[ ]
BEZaren zenbakia, hala badagokio[4]: BEZaren zenbakirik izan ezean, adierazi, hala eskatzen zaizunean, nazioko beste identifikazio-zenbaki bat.	[ ] [ ]
Posta-helbidea:	[…]
Harremanetarako pertsona edo pertsonak[5]: Telefonoa: Posta elektronikoa: Interneteko helbidea (webgunearen helbidea, hala badagokio):	[…] […] […] […]
Informazio orokorra	**Erantzuna**
Operadore ekonomikoa mikroenpresa, enpresa txikia edo ertaina da?[6]	☐ Bai ☐ Ez
Erreserbatutako kontratazioaren kasuan bakarrik[7]**:** operadore ekonomikoa tailer babestua edo gizarte-enpresa da ala kontratua enplegu babestuaren programen esparruan gauzatzea aurrez ikusten du? **Erantzuna baiezkoa bada,** Zein da desgaitasuna duten langileen edo gutxietsien ehunekoa? Behar izanez gero, zehaztu zer kategorian edo kategoriatan dauden desgaitasuna duten langileak ala gutxietsiak.	☐ Bai ☐ Ez […] […]
Hala badagokio, operadore ekonomikoa inskribatuta dago baimendutako operadore ekonomikoen zerrenda ofizialen batean edo egiaztagiri	☐ Bai ☐ Ez ☐ Ez dagokio

[1] EBAOko lizitazio-iragarkiaren I. ataleko I.1 puntuan azaltzen den informazioa errepikatu beharko da. Baterako kontratazioaren kasuan, azaldu kontratatzailea guztien izenak.
[2] Ikus lizitazio-iragarkiaren II. 1.1 eta II 1.4 puntuak.
[3] Ikus EBAOko lizitazio-iragarkiaren II.1.1 puntua..
[4] Espainiako herritarrek edo operadore ekonomikoek beren IFZ adierazi beharko dute; Espainian bizi diren ez espainiarrek, AIZ; EBko estatu kideren bateko operadore ekonomikoek IFZ-BEZ edo erkidego barneko IFZ ala, bidezkoa bada, DUNS zenbakia; EBko estatu kideetatik kanpoko operadore ekonomiko atzerritarrek, DUNS zenbakia aurkeztu beharko dute.
[5] Errepikatu behar daina aldiz harremanetarako pertsonari buruzko informazioa.
[6] Ikus 2003ko maiatzaren 6ko Batzordearen gomendioa, mikroenpresa, enpresa txiki eta enpresa ertainaren definizioari buruzkoa (2003-5-20ko 124. AO L, 36. or.). Datu honek beren-beregi helburu estatistikoa du.
Mikroenpresa: 10 langiletik beherako operadore ekonomikoa, urteko negozioen bolumenak edo urteko guztizko balantzeak 2 milioi euro gainditzen ez baditu.
Enpresa txikia: 50 langiletik beherako operadore ekonomikoa, urteko negozioen bolumenak edo urteko guztizko balantzeak 10 milioi euro gainditzen ez baditu.
Enpresa ertaina: mikroenpresa ala enpresa txikia ez den operadore ekonomikoa eta 250 langile baino gutxiagorekin, urteko negozioen bolumenak 50 milioi euro gainditzen ez baditu edo urteko guztizko balantzea 43 milioi eurotik gorakoa ez bada.
[7] Ikus kontratuko klausula espezifikoen 20.7 klausula eta EBAOko lizitazio-iragarkiaren III.1.5 puntua

baliokiderik du (adibidez, (aurre)sailkapenen sistema nazionaleko esparruan)[8]?	
Erantzuna baiezkoa bada: **Erantzun zati honetako gainerako galderei, B ataleko galderei, eta, hala badagokio, C atalekoei; bidezkoa bada, bete V. zatia eta, nolanahi ere, bete eta sinatu VI. zatia.** Azaldu zerrendaren izena edo ziurtagiria eta inskripzio- edo ziurtapen-zenbaki egokia: Inskripzio-ziurtagiria edo ziurtagiria formatu elektronikoan eskuragarriak badira, adierazi honako hau: Inskripzioaren edo ziurtapenaren erreferentziak eta, hala badagokio, zerrenda ofizialeko sailkapena[9]: Inskripzioak edo ziurtapenak eskatzen diren hautaketa-irizpide guztiak aintzat hartzen ditu? **Erantzuna ezezkoa bada:** **Izendatu, gainera, IV. zatitik, A, B, C edo D ataletatik, falta den informazioa, dagokionaren arabera.** ***Iragarkiak edo kontratazio-agiriek hala eskatzen dutenean BAKARRIK:*** Operadore ekonomikoak aukera izango du ziurtagiri bat aurkezteko Gizarte Segurantzako kotizazioen eta zergen ordainketari buruz, edo informazioa emateko botere adjudikatzaileak edo erakunde adjudikatzaileak ziurtagiria zuzenean eta doan lortu dezan edozein estatu kidetako datu-base nazional baten bitartez? Dokumentazioa formatu elektronikoan eskuragarria bada, azaldu honako hauek:	a) […] (web orriaren helbidea, dokumentua sortzen duen agintaritza edo organismoa, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […] […] b) ☐ Bai ☐ Ez c) ☐ Bai ☐ Ez (web orriaren helbidea, dokumentua sortzen duen agintaritza eta organismoa, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […]
Parte hartzeko modua	**Erantzuna**
Operadore ekonomikoa kontratazio-prozesuan beste batzuekin batera parte hartzen ari da[10]?	☐ Bai ☐ Ez
Erantzuna baiezkoa bada, egiaztatu gainerako interesdunek KAEB inprimaki bereizia aurkezten duela[11].	
Erantzuna baiezkoa bada: a) Adierazi operadore ekonomikoak zein eginkizun betetzen duen taldean (arduradun nagusia, berariazko zereginetarako arduraduna, etab.): b) Adierazi kontratazio-prozeduran batera parte hartzen duten gainerako operadore ekonomikoak: c) Hala dagokionean, talde parte-hartzailearen izena:	a): […] b): […] c): […]
Loteak	**Erantzuna**
Hala dagokionean, adierazi operadore ekonomikoak zein loterako aurkeztu nahi duen eskaintza:	[]

B. OPERADORE EKONOMIKOAREN ORDEZKARIEI BURUZKO INFORMAZIOA

Hala dagokionean, adierazi kontratazio-prozedura honetan operadore ekonomikoa ordezkatzeko baimena duten pertsonen izena eta helbidea.

Ordezkaritza izanez gero	**Erantzuna**
Izen-abizenak:	[…];

[8] Ikus baldintza orokorren 11.5 kausula.
[9] Erreferentziak eta sailkakpena, hala badagokio, ziurtagirian ageri dira.
[10] Bereziki, talde partzuergo, partaidetzako enpresa edo antzeko batean (ABEE).
[11] Bi operadore ekonomiko edo gehiago enpresa-elkarte batean aurkezten badira, edo adjudikaziodun izanez gero, ABEEa formalki osatzeko konpromisoa hartzen badute, operadore ekonomiko bakoitzak EKAB inprimakia behar bezala osatu eta sinatu ostean, aurkeztu beharko du, eta II., III., IV. eta V. zatiak beteko dira. Zenbait operadore ekonomikok batera aurkezten badute eskaintza, adjudikaziodun izanez gero ABEEa formalki osatzeko konpromisoarekin, ABEEa formalki osatzeko konpromisoa ere aurkeztu beharko dute, klausula administratibo partikularren agiriko dagokien eranskineko ereduaren arabera.

C:

Jaiotza-data eta -lekua, hala badagokio:	[…]
Zer kargutan/gaitasunetan jarduten duen:	[…]
Posta-helbidea:	[…]
Telefonoa:	[…]
Posta elektronikoa:	[…]
Beharrezkoa bada, adierazi ordezkaritzari buruzko informazio zehatza (moduak, irismena, xedea…)	[…]

BESTE ERAKUNDE BATZUEN GAITASUNETARA JOTZEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Baliabidea	**Erantzuna**
Operadore ekonomikoak beste erakunde batzuen gaitasuna[12] erabiltzen du IV. zatiko hautaketa-irizpideak betetzeko?	☐ Bai ☐ Ez

Erantzuna baiezkoa bada, KAEB inprimakia bereiz aurkeztu behar du erakunde bakoitzak, behar bezala bete eta sinatuta, zati honetako A eta B ataletan eta III. zatian eskatutako informazioarekin.

Era berean, operadore ekonomikoaren erakundean zuzenean sartuta ez dauden teknikari edo organismo teknikoak ere hemen adierazi behar dira, eta bereziki, kalitate-kontrolaren arduradunak.

Operadore ekonomikoak baliatuko dituen gaitasun zehatzei dagokienez bidezkoa denean, erakunde bakoitzari buruz jaso behar da IV. zatian eskatutako informazioa[13].

D: AZPIKONTRATISTEI BURUZKO INFORMAZIOA, NAHIZ ETA OPERADORE EKONOMIKOA BEREN GAITASUNEAN EZ OINARRITU

Atal hau bete beharko da baldin eta berariaz hala eskatzen bada kontratuaren klausula berezien 14.2 klausulan.

Azpikontratazioa	**Erantzuna**
Operadore ekonomikoak hirugarrenei kontratuaren zatiren bat azpikontratatzeko asmorik du?	☐ Bai ☐ Ez **Erantzuna baiezkoa bada, datua ezagutuz gero,** banan-banan aipatu aurreikusitako azpikontratistak: […][14]

Baldin eta kontratuaren klausula berezien 14.2 klausulan informazio hori eskatzen bada atal honetan eskatu denaren osagarri, zati honetako A eta B ataletan eta III. zatian eskatutako informazioa ere eman beharko da, azpikontratista bakoitzeko, edo azpikontratisten kategoria bakoitzeko.

[12] Gaitasuna esan arren, kaudimena ulertu behar da.

[13] Esate baterako, kalitate-kontrolaz arduratzen diren organismo teknikoak badira: IV. zatia, C atala, 3. puntua.

[14] Adierazi azpikontratistak, baldin eta hala eskatzen bada kontratuaren klausula espezifikoen 14.2 klausulako a) letran. Adierazi baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan eskatutako datuak.

III. zatia: Baztertzeko arrazoiak

A: ZIGOR-KONDENEN ARRAZOIAK

2014/24/EB Zuzentarauaren 57. artikuluko 1. atalean honako arrazoi hauek ezarri dira eskaintzak baztertzeko:
Erakunde delitugile batean parte hartzea[15].
Ustelkeria[16].
Iruzurra[17].
Terrorismo-delituak edo terrorismo-jarduerekin lotutako delituak[18].
Kapitalak zuritzea edo terrorismoa finantzatzea[19].
Haurren lana eta gizakien beste salerosketa mota batzuk[20].

Zigor-kondenei buruzko arrazoiak, 2014/24/EB Zuzentarauaren 57. artikuluko 1. apartatuan jasotako arrazoiak aplikatzeko xedapen nazionalei jarraikiz[21]	**Erantzuna**
Epai irmo bidezko kondena ezarri diote **operadore ekonomikoari** edo beraren administrazio-, zuzendaritza- edo gainbegiratze-organoko **edozein** pertsonari, ala horien ordezkatzeko, haien izenean erabakiak hartzeko edo haiek kontrolatzeko ahalak dituen norbaiti, goian adierazitako arrazoietako batengatik? (Betiere, baldin eta epai hori aurreko bost urteetan eman bada, eta oraindik aplikagarria den baztertze-epea ezarri bazen epaian).	☐ Bai ☐ Ez Dokumentazioa formatu elektronikoan eskuragarria bada, azaldu honako hauek: (web orriaren helbidea, dokumentua sortzen duen agintaritza edo organismoa, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […][22]
Erantzuna baiezkoa bada, adierazi honako datu hauek[23]: a) Kondenaren eguna, zein puntu den (1. puntutik 6. puntura) eta kondenatzeko arrazoiak: b) Kondenatuaren identifikazioa []: **c) Kondenan bertan zuzenean ezarrita baldin badago:**	a) Eguna: [], puntua(k): [], arrazoia(k): [] b) [ ] c) Baztertze-epearen iraupena […]Eta zer punturekin dagoen lotuta [ ];

[15] Delinkuentzia antolatuaren aurkako borrokari buruzko Kontseiluaren 2008ko urriaren 24 ko 2008/841/JAI Esparru Erabakiaren 2. artikuluan jaso den definizioaren arabera (2008-11-11ko 300. AO L, 42. or.).
[16] Europako Erkidegoetako eta Europar Batasuneko estatu kideetako funtzionarioen partaidetza duten ustelkeria-egintzen aurkako borrokari buruzko hitzarmenaren 3. artikuluan (1997-06-25eko 195. AO C 195, 1. or.) eta sektore pribatuko ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko Kontseiluaren 2003ko uztailaren 22ko 2003/568/JAI Esparru Erabakiaren 2. artikuluaren 1. apartatuan (2003-07-31ko 192. AO L, 54. or.) definituta dagoen bezala. Baztertzeko arrazoi horretan kontuan hartzen da botere adjudikatzailearen (erakunde adjudikatzailearen) edo operadore ekonomikoaren legeria nazionalean ustelkeriari eman zaion definizioa ere.
[17] Europako Erkidegoetako finantza-interesen babesari buruzko hitzarmenaren 1. artikuluan ulertzen den moduan (1995-11-27ko 316. AO C, 48. or.).
[18] Terrorismoaren aurkako borrokari buruzko Kontseiluaren 2002ko ekainaren 13ko 2002/475/JAI Esparru Erabakian jaso den definizioaren arabera (2002-06-22ko 164. AO L, 3. or.). Baztertzeko arrazoi horren barne hartzen dira delitua egiteko indukzioa edo konplizitatea, bai eta delitua egiteko saiakuntza ere, Esparru Erabaki horren 4. artikuluan jasota dagoen bezala.
[19] Finantza-sistema kapitalak zuritzeko eta terrorismoa finantzatzeko ez erabiltzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005eko urriaren 26ko 2005/60/EE Zuzentarauaren 1. artikuluan jasota dauden bezala (2005-11-25eko 309. AO L, 15. or.).
[20] Gizakien salerosketaren aurkako borrokari eta prebentzioari buruzko eta biktimak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko apirilaren 5eko 2011/36/EB Zuzentarauaren 2. artikuluan jasota dagoen bezala (2011-04-15eko 101. AO L, 1. or.). Zuzentarau horrek Kontseiluaren 2002/629/JAI Esparru Erabakia ordezkatzen du.
[21] Ondorio horietarako, SPKLren 71. artikuluko 1. apartatuaren a) letrak dio hauek direla kontratatzeko debekuak: "*Epai irmo bidez zigorra jaso izana, honako delitu hauengatik: terrorismoa, antolakunde edo talde kriminal bat eratu edo integratzea, zilegi ez den elkartzea, alderdi politikoen legez kanpoko finantzaketa, gizakien salerosketa, negozioetako ustelkeria, influentzia trafikoa, funtzionario eroskeria, prebarikazioa, iruzurrak, funtzionarioei debekatutako negoziazio eta jarduerak, Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren kontrako delituak, langileen eskubideen kontrako delituak, bidegabeko eralgitzea, kapital zuriketa, lurralde antolamendu eta hirigintzaren eta ondare historikoaren eta ingurumenaren babesaren arloko delituak, edo lanbide, ogibide, industria edo merkataritzan aritzeko gaitasungabetze zigorra. Halaber, kontratatzea debekatuta izango dute erantzukizun penaldun deklaratzen dituzten pertsona juridikoek, bai eta haien administratzaile edo ordezkari egitatezko edo zuzenbidekoek ere, kargu edo ordezkaritza hori indarrean dagoen bitartean eta kargua utzi arte, baldin eta apartatu honetan aipatutako egoeran badaude".*
[22] Errepikatu behar den guztietan.
[23] Errepikatu behar den guztietan.

B.

	Dokumentazioa formatu elektronikoan eskuragarria bada, azaldu honako hauek: (web orriaren helbidea, dokumentua sortzen duen agintaritza edo organismoa, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […][24]
Kondenatu bada, operadore ekonomikoak neurririk hartu du sinesgarritasuna erakusteko, nahiz eta baztertzeko arrazoi egokia egon (autozuzenketa)[25]?	☐ Bai ☐ Ez
Erantzuna baiezkoa bada, adierazi hartutako neurriak[26]:	[…]

GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIOAK EDO ZERGAK ORDAINTZEARI DAGOZKION ARRAZOIAK

Gizarte Segurantzako kotizazioak edo zergak ordaintzea	**Erantzuna**	
Operadore ekonomikoak bete ditu **zergak edo Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaintzeko betebehar guztiak**, bai finkatuta dagoen herrialdean bai botere edo erakunde adjudikatzailearen[27] estatu kidean (baldin eta ez badira herrialde berdinak)?	☐ Bai ☐ Ez	
Erantzuna ezezkoa bada, adierazi honako datu hauek: a) Herrialde edo estatu kidea b) Zenbatekoa c) Nola zehaztu da arau-haustea? 1)Administrazio-ebazpenaren edo ebazpen judizialaren bidez: Ebazpen irmoa eta loteslea da? Idatzi kondenaren edo ebazpenaren eguna. - **Kondena baldin bada, eta hartan ezarrita baldin badago,** baztertze-epearen iraupena. 2) Beste bide batzuen bidez. Zehaztu. Operadore ekonomikoak bete ditu zituen betebeharrak, ordainketaren edo akordio loteslearen bidez, zor dituen zergak ala Gizarte Segurantzako kotizazioak eta, hala dagokionean, sortutako interesak eta ezarritako isunak ordaintzeko?	**Zergak** a) […] b) […] c1) ☐ Bai ☐ Ez - ☐ Bai ☐ Ez - […] - […] c2) […] d) ☐ Bai ☐ Ez **Erantzuna baiezkoa izanez gero,** zehaztu: […]	**Gizarte-kotizazioak** a) […] b) […] c1) ☐ Bai ☐ Ez - ☐ Bai ☐ Ez - […] - […] c2) […] d) ☐ Bai ☐ Ez **Erantzuna baiezkoa izanez gero**, zehaztu: […]
Baldin eta zergen eta Gizarte Segurantzako kotizazioen ordainketari buruzko dokumentazioa formatu elektronikoan badago, adierazi honako datu hauek:	(web orriaren helbidea, dokumentua sortzen duen agintaritza edo organismoa, dokumentazioaren erreferentzia zehatza)[28]: […] […] […] […]	

C: KAUDIMENIK EZAREN, INTERES-GATAZKEN EDO PROFESIONALTASUN GABEZIAREN ARRAZOIAK[29]

Balizko kaudimenik ezaren, interes-gatazken edo profesionaltasun gabeziaren informazioa	**Erantzuna**
Zure uste eta jakituriaren arabera, operadore ekonomikoak ez ditu bete **lanaren, gizartearen eta ingurumenaren** arloetako **betebeharrak[30]?**	☐ Bai ☐ Ez

[24] Errepikatu behar den guztietan.
[25] 2014/24/EB Zuzentarauaren 57. artikuluaren 6. atala aplikatzeko xedapen nazionalekin bat etorrita.
[26] Azalpenean erakutsi beharko da hartu diren neurriak egokiak direla egin den delitu mota kontuan hartuta (delitua behin gertatu bada, edo behin baino gehiagotan, edo sistematikoki, etab.).
[27] Ondorio horietarako, SPKLren 71. artikuluko 1. ataleko a) letrak dio hauek direla kontratatzeko debekuak: "epai irmo bidez zigorra jaso izana, honako delitu hauengatik: *(...) Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren kontrako delituak (...)*"; zenbaki bereko d) letran ezarrita dago hauek direla kontratatzeko debekuak: "*Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez edukitzea, erregelamenduz zehaztutako moduan*"; eta hauxe dago ezarrita zenbaki bereko f) letran: "*Administrazio zehapen irmo baten ondorioz ezarritako kontratatzeko debekuren baten eraginpean egotea, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean edo Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrean ezarritakoari jarraikiz".*
[28] Errepikatu behar den guztietan.
[29] Ikus 2014/24/EB Zuzentarauaren 57. artikuluko 4. apartatua. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da baztertzeko arrazoi hauek lege nazionalen arabera ulertu behar direla, kasu zehatz bakoitzean adieraziko den bezala.
[30] Kontratazio honen ondorioetarako, lege nazionaletan, kontratazioaren iragarkian edo baldintza-agirietan, edo 2014/24/EB Zuzentarauaren 18. artikuluko 2. apartatuan jasota dagoen bezala.

	Erantzuna baiezkoa bada, operadore ekonomikoak neurririk hartu du sinesgarritasuna erakusteko, nahiz eta baztertzeko arrazoi egokia egon (autozuzenketa)? ☐ Bai ☐ Ez **Neurriak hartu baditu,** adierazi zeintzuk: […]
Operadore ekonomikoa egoera hauetakoren batean dago[31]: **Porrotean** Kaudimenik ezaren edo likidazioaren prozeduraren mende. Hitzarmena egin du bere hartzekodunekin. Antzeko ezaugarriak dituen eta lege- eta arau-xedapen nazionaletan indarrean dagoen prozedura batekin lotutako egoera batean dago. Bere aktiboak likidatzaile edo auzitegi batek administratzen ditu. Bertan behera utzi zaizkio enpresa-jarduerak. **Erantzuna baiezkoa bada:** Zehaztu: Adierazi zein arrazoi oinarri hartuta den operadorea, hala ere, kontratua egikaritzeko gai, inguruabar horietan jarduera egiten jarraitu ahal izatearekin lotuta aplika daitezkeen xedapen eta neurri nazionalak kontuan hartuta[32]? Dokumentazioa formatu elektronikoan eskuragarria bada, azaldu honako hauek:	☐ Bai ☐ Ez - […] - […] (web orriaren helbidea, dokumentua sortzen duen agintaritza edo organismoa, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […]
Operadore ekonomikoa **hutsegite profesional astun** baten erruduntzat jo dute[33]? Erantzuna baiezkoa izanez gero, zehaztu:	☐ Bai ☐ Ez […]
	Erantzuna baiezkoa bada, neurri autozuzentzailerik hartu du operadore ekonomikoak? ☐ Bai ☐ Ez **Neurriak hartu baditu,** adierazi zeintzuk:

Ondorio horietarako, SPKLren 71. artikuluko 1. apartatuko b) letrak dio hauek direla kontratatzeko debekuak: zehapen irmoa jaso izana:

a) Lan edo gizarte arloan oso arau-hauste astuna egiteagatik, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Lan Arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen Testu Bateginean xedatutakoaren arabera, bai eta testu horren 22.2 artikuluan aurreikusitako arau-hauste astuna egiteagatik ere.

b) Ingurumen arloan oso arau-hauste astuna egiteagatik, indarrean dagoen araudian xedaturikoaren arabera.

SPKLren 71. artikuluko 1. apartatuko d) letrak dio hauek direla kontratatzeko debekuak"*(…) 50 langile edo gehiago dituzten enpresen kasuan, enplegatuen ehuneko 2 gutxienez ezintasunen bat duten langileak izateko baldintza ez betetzea, ezintasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 42. artikuluaren arabera, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzekin*".

[31] Ikus legeria nazionala, kontratazioaren iragarkia edo baldintza-agiriak. Ondorio horietarako, SPKLren 71. artikuluko 1. apartatuko c) letrak dio hauek direla SPKLTBren 3. artikuluan aurreikusitako erakundeekin kontratatzeko debekuak: "*Hartzekodunen konkurtso boluntarioa deklaratzeko eskaera egin izana, edozein prozeduratan kaudimengabe deklaratua izatea, hartzekodunen konkurtsoan deklaratuta egotea (konkurtso horretan hitzarmen batek efikazia lortu badu salbu), esku hartze judizialaren menpe egotea edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta egotea, hartzekodunen konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze aldia oraindik amaitu gabe egonik*".

[32] Ez da informazio hori eman behar izango baldin eta operadore ekonomikoa baztertzeko arrazoia a) letratik f) letrara jaso diren kasuetako bat bada, eta nahitaezkoa baldin bada legeria nazionalaren arabera. Horretan **ezin da salbuespenik egin**, nahiz eta operadore ekonomikoa kontratua egikaritzeko baldintzetan egon. SPKLren 71. artikuluko 1. apartatuko c) letran ezarritakoa bete beharko da.

[33] Hala dagokionean, ikus legeria nazionalean, kontratazioaren iragarkian edo baldintza-agirietan emandako definizioak. Puntu honetan, SPKLren 71. artikuluko 1. apartatuko b) letran xedatutakoa bete beharko da, debeku hauek ezartzen baititu SPKLren 3. artikuluan aurreikusitako erakundeekin kontratatzeko: "*Zehapen irmoa jaso izana, arau hauste larria egiteagatik arlo profesionalean, (…)".*

	[…]
Operadore ekonomikoak akordiorik egin du beste operadore ekonomiko batzuekin **lehia faltsutzeko**[34]? **Erantzuna baiezkoa izanez gero,** zehaztu:	☐ Bai ☐ Ez […]
	Erantzuna baiezkoa bada, neurri autozuzentzailerik hartu du operadore ekonomikoak? ☐ Bai ☐ Ez **Neurriak hartu baditu,** adierazi zeintzuk: […]
Operadore ekonomikoak badaki interes-gatazkarik sortu den berak kontratazio-prozeduran parte hartzeagatik[35]? **Erantzuna baiezkoa izanez gero,** zehaztu:	☐ Bai ☐ Ez […]
Operadore ekonomikoak edo berarekin lotuta dagoen enpresaren batek **aholkularitza** eman dio botere edo erakunde adjudikatzaileari, ala **beste moduren batean parte hartu du** kontratazio-prozedura **prestatzen**[36]? **Erantzuna baiezkoa izanez gero,** zehaztu:	☐ Bai ☐ Ez […]
Operadore ekonomikoak **deuseztatze aurreraturik** izan du aurreko kontratu publikoren batean, erakunde adjudikatzaile batekin egindako aurreko kontraturen batean edo lagapen kontratuaren batean? Edo kalteen eta galeren erantzukizunik ala antzeko beste zehapenik ezarri diote kontratu horrekin lotuta?[37] **Erantzuna baiezkoa izanez gero**, zehaztu:	☐ Bai ☐ Ez […]
	Erantzuna baiezkoa bada, neurri autozuzentzailerik hartu du operadore ekonomikoak?

[34] Legeria nazionalean, kontratazioaren iragarkian edo baldintza-agirietan azaldutakoaren arabera. Puntu honetan, SPKLren 71. artikuluko 1. apartatuko b) letran xedatutakoa bete beharko da, debeku hauek ezartzen baititu SPKLren 3. artikuluan aurreikusitako erakundeekin kontratatzeko: "*Zehapen irmoa jaso izana,* arau *hauste larria egiteagatik (…) lehia faltsutzearen arloan*".

[35] SPKLren 71. artikuluko 1. apartatuko g) letrak dio hauek direla kontratatzeko debekuak: "*Estatuaren Administrazio Orokorreko goi kargudunen jarduera arautzeko martxoaren 30eko 3/2015 Legean, autonomia erkidegoetako arauetan edo Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aipatutako kasuren batean sartuta egotea pertsona fisikoa edo pertsona juridikoaren administratzaileak, edota Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko kargudun izatea, bertan ezarritako baldintzetan. Aurreko paragrafoan aipatzen diren langileek eta goi kargudunek edo administrazio horien zerbitzura diharduten hautetsiek pertsona juridiko baten kapitalean parte hartzen badute, aipatutako legerian zehaztutako moduan eta zenbatekoekin, pertsona juridiko hori ere debekuaren barruan sartuko da. Debekuak berdin hartzen ditu, bi kasuetan, aurreko paragrafoetan aipatutako pertsonen ezkontideak, bizikidetza afektiboz horien antzeko lotura daukaten pertsonak, aurrekoak eta ondorengoak, bai eta bigarren mailako odol edo ezkontza ahaideak ere, baldin eta interes gatazka sortu bada kontratazio organoaren titularrarekin edo kontratatzeko ahalmena eskuordetuta duten organoetako titularrekin edo kontratazio organoaren titularraren ordezkoekin.*" Halaber, h) letrak dio hauek ere badirela kontratatzeko debekuak: "*Kargu bat utzi ondorengo bi urteetan karguaren eskumenekin zuzenean lotutako enpresa edo sozietate pribatuetan zerbitzuak eman dituzten pertsonak kontratatu izana, eta pertsona horiek Estatuaren Administrazio Orokorreko goi kargudunen jarduera arautzeko martxoaren 30eko 3/2015 Legearen 15.1 artikuluan edo autonomia erkidegoetako arauetan aipatutako ez betetzean erori izana eta hori Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu izana. Kontratatutako pertsona enpresako antolaketan dagoen bitartean iraungo du kontratatzeko debekuak, eta gehienez ere, bi urtez, goi kargua uzten duenetik aurrera*".

[36] Ikus SPKLren 70.1 artikulua "*Bateragarritasun baldintza espezifikoak*".

[37] SPKLren 71. artikuluko 2. apartatuko c) letrak dio hauek direla kontratatzeko debekuak: "*Kontratuan funtsezkoak diren klausulak bete ez badituzte –201. artikuluarekin bat etorriz kontratua betearazteko ezarritako baldintza espezifikoak barne–, ez betetze hori baldintza pleguetan edo kontratuan arau hauste larritzat jotzen denean eta tartean enpresaburuaren doloa, errua edo zabarkeria izan denean, eta betiere zigorrak ezarri badira edo kalte eta galerak ordaindu badira*"; eta hauxe dago jasota zenbaki bereko d) letran: "*Lege honen 3. artikuluan azaldutako erakundeetatik edozeinekin egindako edozein kontraturen ezeztatze irmoa eragin badute, ezeztatze arrazoi horren errudun jo izateagatik*".

	☐ Bai ☐ Ez **Neurriak hartu baditu,** adierazi zeintzuk:
Operadore ekonomikoak berretsi dezake… …ez dela erruduntzat jo faltsutze-delitu larriagatik baztertzeko arrazoirik ez dagoela edo hautaketa-irizpideak betetzen dituela egiaztatzeko informazioa eman duenean[38], ez duela informazio hori ezkutatu, …berandutu gabe aurkeztu ahal izan dituela botere edo erakunde adjudikatzaileak eskatu dituen ziurtagiriak, eta …ez dela saiatu eragina izaten botere edo erakunde adjudikatzailearen erabakiak hartzeko prozeduran, ez dela saiatu informazio konfidentziala lortzen kontratazio-prozeduran bidegabeko abantailak eskuratu ahal izateko, eta ez dela saiatu baztertzeko, hautatzeko edo adjudikatzeko erabakietan eragin garrantzitsua izan dezakeen informazioa zabarkeriaz ematen[39]?	☐ Bai ☐ Ez

D: BOTERE EDO ERAKUNDE ADJUDIKATZAILEAREN ESTATU KIDEARI DAGOKION LEGEDI NAZIONALEAN AURREZ IKUSITA EGON DAITEZKEEN BESTELAKO BAZTERKETA-ARRAZOIAK

Baztertzeko arrazoi nazional hutsak	**Erantzuna**
Aplikagarriak dira kontratazioaren iragarkian edo baldintza-agirietan eskatzen diren baztertzeko arrazoi **nazional hutsak**[40]? Baldin eta kontratazioaren iragarkian edo baldintza-agirietan eskatutako dokumentazioa formatu elektronikoan badago, adierazi honako datu hauek:	☐ Bai ☐ Ez (web orriaren helbidea, dokumentua sortzen duen agintaritza edo organismoa, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […][41]
Baldin eta baztertzeko arrazoi nazional hutsen bat aplikagarria bada, neurri autozuzentzailerik hartu du operadore ekonomikoak? Neurriak hartu baditu, adierazi zeintzuk:	☐ Bai ☐ Ez […]

[38] SPKLren 71. artikuluko 1. apartatuko e) letrak dio hauek direla kontratatzeko debekuak: "*Lege honen* (SPKL) *140. artikuluan aipatzen den erantzukizunpeko adierazpena egitean edo gaitasunari eta kaudimenari buruzko aitorpenean datu faltsuak eman izana, edo 82.4 artikuluan aurreikusitako informazioa (sailkapenari buruzkoa) eta 343.1 artikuluan aurreikusitakoa (lizitatzaileen eta sailkatutako enpresen erregistroei buruzkoa) komunikatzeko betebeharra bete ez izana, haiei egotz dakizkiekeen arrazoiengatik*"; eta beste debeku hauek daude ezarrita 71. artikuluko 2. apartatuko a) eta b) letretan: "*Esleitzeko prozedura batean beren proposamena edo hautagaitza bidegabeki erretiratu badute; edo kontratua beren alde esleitzea eragotzi badute, 150. artikuluko 2. atalean ezarrita dagoena epe barruan ez betetzeagatik, doloa, errua edo zabarkeria dela medio*" eta "*Haien alde esleitutako kontratua formalizatzeari utzi badiote, 153. artikuluan aurreikusitako epeetan, esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik*".

[39] Ikus SPKLren 71. artikuluko 1. apartatuko e) letrak kontratatzeko debeku gisa adierazten duena.

[40] SPKLren 71. artikuluko 1. apartatuko f) letrak dio hauek direla kontratatzeko debekuak: "*Administrazio zehapen irmoaren ondorioz ezarritako kontratatzeko debekuren baten eraginpean egotea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean edo Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrean ezarritakoari jarraikiz".*

[41] Errepikatu behar den guztietan.

IV. zatia: Hautaketa-irizpideak[42]

Hautaketa-irizpideei dagokienez (zati honen α atala edo A eta D bitarteko atalak), hauxe adierazten du operadore ekonomikoak:

α: HAUTAKETA-IRIZPIDE GUZTIEI BURUZKO AZALPEN GLOBALA

Operadore ekonomikoak lauki hau bete beharko du baldin eta lizitazio-iragarkian edo kontratuaren klausula berezien 24.1 klausulan adierazita badago. Hala badagokio, kontratuaren klausula berezien 21. klausulan adierazitakoak dira hautaketa-irizpide horiek.

Hautaketa-irizpide guztiak betetzea	**Erantzuna**
Betetzen ditu eskatutako hautaketa-irizpideak	☐ Bai ☐ Ez

A: EGOKITASUNA

Operadore ekonomikoak informazio hau eman beharko du baldin eta lizitazio-iragarkian edo kontratuaren klausula berezien 21.4 klausulan adierazita badago hautaketa-irizpideak bete egin behar direla.

Egokitasuna	**Erantzuna**
1) **Inskribatuta dago lanbide- edo merkataritza-erregistro batean,** finkatuta dagoen estatu kidean[43]**:** Dokumentazioa formatu elektronikoan eskuragarria bada, azaldu honako hauek:	[…] (web orriaren helbidea, dokumentua sortzen duen agintaritza edo organismoa, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […]
2) Zerbitzuen kontratua baldin bada: Beharrezkoa da **berariazko baimena edukitzea edo** erakunde jakin bateko **kide izatea** zerbitzua eman ahal izateko operadore ekonomikoa finkatuta dagoen herrialdean? Dokumentazioa formatu elektronikoan eskuragarria bada, azaldu honako hauek:	☐ Bai ☐ Ez **Erantzuna baiezkoa bada,** zehaztu zer baimen edo kidetasun den, eta adierazi ea operadore ekonomikoak baldintza hori betetzen duen: [……] ☐ Bai ☐ Ez (web orriaren helbidea, dokumentua sortzen duen agintaritza edo organismoa, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […]

B. EKONOMIA- ETA FINANTZA-KAUDIMENA

Operadore ekonomikoak informazio hau eman beharko du baldin eta lizitazio-iragarkian edo kontratuaren klausula berezien 21.2 klausulan adierazita badago hautaketa-irizpideak (kaudimenaren eskakizunak) bete egin behar direla.

Ekonomia- eta finantza-kaudimena	**Erantzuna**
1a) Hauxe izan da **urteko negozio-bolumena** (orokorra) kontratazioaren iragarkian edo baldintza-agirietan eskatzen den ekitaldi-kopuruan: Eta/edo 1b) Hauxe izan da urteko kontratuko jardueraren arloan osatu den urteko negozio-bolumena (batez bestekoa) kontratazioaren iragarkian edo baldintza-agirietan eskatzen den ekitaldi-kopuruan[44]: Dokumentazioa formatu elektronikoan eskuragarria bada, azaldu honako hauek:	Ekitaldia: […] negozio-bolumena: […][..]moneta Ekitaldia: […] negozio-bolumena: […][..]moneta Ekitaldia: […] negozio-bolumena: […][..]moneta (ekitaldi-kopurua, batez besteko negozio-bolumena): […], […] […]moneta (web orriaren helbidea, dokumentua sortzen duen agintaritza edo organismoa, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […]

[42] Ikus kontratuaren klausula espezifikoen 21. klausulako 1-4 atalak.

[43] 2014/24/EB Zuzentarauaren XI. eranskinean jasota dagoen bezala, baliteke estatu kide jakin batzuetako operadore ekonomikoek eranskineko beste betekizun batzuk bete behar izatea.

[44] Aukera hau hautatu beharko da baldin eta dagokion iragarkian edo kontratuaren klausula espezifikoen 21.2 klausulan baimenduta badago, bestela ez.

2a) Hauxe izan da **kontratuko jardueraren arloan** osatu den **urteko negozio-bolumena** (zehatza), kontratazioaren iragarkian edo baldintza-agirietan eskatzen den ekitaldi-kopuruan: Eta/edo 2b) **Hauxe izan da urteko kontratuko jardueraren arloan osatu den** urteko **negozio-bolumena** (batez bestekoa) **kontratazioaren iragarkian edo baldintza-agirietan eskatzen den ekitaldi-kopuruan**[45]: Dokumentazioa formatu elektronikoan eskuragarria bada, azaldu honako hauek:	Ekitaldia: […] negozio-bolumena: […][..]moneta Ekitaldia: […] negozio-bolumena: […][..]moneta Ekitaldia: […] negozio-bolumena: […][..]moneta (ekitaldi-kopurua, batez besteko negozio-bolumena): […], […] […]moneta (web orriaren helbidea, dokumentua sortzen duen agintaritza edo organismoa, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […]
3) Baldin eta ez badago informaziorik eskatzen den ekitaldi guztiko negozio-bolumenari buruz (orokorra edo zehatza), adierazi noiz sortu zen enpresa ala noiz hasi zen operadore ekonomikoa jarduerekin:	[…]
4) Kontratazioaren iragarkian edo baldintza-agirietan zehazten diren **finantza-ratioei**[46] dagokienez, operadore ekonomikoak adierazten du hauxe dela eskatutako ratioen (edo ratioaren) benetako balioa: Informazio hori formatu elektronikoan badago, adierazi honako datu hauek:	(eskatutako ratioa –x eta y arteko ratioa([47])- eta balioa: […], […][48] (web orriaren helbidea, dokumentua sortzen duen agintaritza edo organismoa, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […]
5) Hauxe da operadore ekonomikoak **lanbide-arriskuen kalte-ordainetarako aseguruan** aseguratuta duen zenbatekoa: Informazio hori formatu elektronikoan badago, adierazi honako datu hauek:	[…][..]moneta (web orriaren helbidea, dokumentua sortzen duen agintaritza edo organismoa, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […]
